



IÑAKI ALKAIN  
ANTONIO ZAVALA

**GERRATEKO IBILLERAK-I**

# GERRATEKO IBILLERAK

( I )

AUSPOA LIBURUTEGIA  
(148)

---

**Auspoa Liburutegia**  
**(EDITORIAL AUSPOA)**

**Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa**  
**Teléfono (943) 67 12 82**

IÑAKI ALKAIN, ANTONIO ZAVALA

# GERRATEKO IBILLERAK

(I)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1981

*Azala:* Gudari-talde bat, Bizkai'ko mendietan, 1937 urtean. Jose Estornes Lasa'ren artxi-botik.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz  
ISBN 84 7168-090-X  
Depósito Legal: S. S. 403/81  
Septiembre 1981

## ARKIBIDEA

Itzaurrea ... ..	9
Andoain ... ..	25
Urnieta ... ..	33
Santio-mendi ... ..	47
Ernani ... ..	57
Donostia ... ..	61
Urkizu ... ..	65
Ernio ... ..	73
Motriku, Ondarroa, Gernika ... ..	83
Basalgo ... ..	91
Bermeo ... ..	109
Urbina ... ..	115
Billarreal ... ..	123
Nafarrate ... ..	143

## ITZAURREA

Bi izen-abizen liburu onen azalean. Bi lagunena lana, beraz. Orregatik, beste ezertan asi aurretik, lan ori nola egiña dan adierazi bearra dago.

Iñaki Alkain zana eta biok, bein edo beste alkar agurtuak giñan bertso-saioren batean-edo Bañan ez genduan artu-emanik izan, bere aita zanaren liburua prestatzen asi giñan artean.

Liburu ortan, *Auspoa*'ren 92'garrenean alegia, baditu Iñakik kontaera batzuk. Kontaera onak, gure iritzirako beintzat.

Bañan kontalari ona zala, beste bidetik ere erakutsi zidan. Alkarrengana biltzen giñanean, kontu-kontari asten zitzaidan beti. Zertara etorriak giñan jakiñagatik, etzuan arek presarik izaten. Goraberaren bat bazuan beti gertatu berria edo gertatu zarra, eta, ura esan artean, beste zer-egin guziak egon egin bear izaten zuten.

Bitartean, egia esan, ni adi-adi egoten nintzaion. Izan ere, ain zan iztun ona eta ain ederki eramaten zuan bere kontaera bururen-buru.

Kontalari bikaña zala bereala oartu nintzan, beraz. Bañan bazan beste norbait ere, ortaz jabetu zanik. Aita Patxi Etxeberria'k onela idatzi zidan Formosa'tik, 1970'eko Urriaren 8'an:

«Zuri idazteko asmoa aspalditik dizut. Utzi eta utzi. Beti geroa maite. Ona: berandutu.

Auspoa'ko aleak zuzen iristen zaizkit. Irakurri ere, aurrenetik azkenerako irakurtzen ditut. Esertalde batean ez danean, apurka-apurka.

Alkain aitaren bizitzako berriak oso giro oneko jarri ninduten. Arek bere alabai zuzentasuna eskatzen. Gure leengo gurasoak maiz egiten zutena. Eta emengo aueri ainbeste aldiz adierazi izan diedana.

Agian ikasia zaitut: alderdi auetan etxeko aurra da nagusi eta errege eta agintari. Arritu egiten bait-gera. Gero, orrela oitutakoak kistar egokiak izatea ia eziñezkoa gertatzen. Beti berak nai dutena egin bear.

Amaika aldiz amona zanari ikusia esan izan bait-diet. Ni senideetan zaarrena naiz. Nere urrengoa arreba degu; oraindik ere Donostia'n bizi da, *Paseo de Francia* 3'garrenean, beeko bizi-tzan.

Gaztetxoa zanean, iñoiz edo bein ateari eusten bezela ibiltzen zan. Amonak ikusi orduko:

— Neska! Ire ezurrak non ditun?

Beste batean, Agirre'tar Ioseba Mirena jauna zan. Onek ere bere alaba gazteenakin izaten zitun kezkek eta ardallak. Bein, nextatxa gazteak makurtzeko espa-edo agertu zuan.



Ta aitak:

— Ezur nagusiko miña al den?

Zure alegiñen zitu ederra txastatuz, aurrera ere ementxe jarraitzeko indarrak olaxe ateratzen ditut.»

Esan bezela, kontalari iaioa genduan, beraz, Iñaki Alkain zana. Ala ere aitaren liburua bukatu artean ez nion ezer aitatu; bañan gerorako nere asmoak artuak nituan.

Izan ere, kontatzen dakianak, doai eder ori berezkoa duanak, zer kontaturik baldin badauka, liburu ona egin dezakela dudarik ez da. Bañan zer kontatua bi bidetatik izan dezake gizonak.

Bata, berak bere burutik asmatuta. Nobelagilleak orixe egiten dute. Bañan nobelagille ez danak, nekez eramango du asmatze-lan ori bide zuzenetik.

Bestea, berriz, kontatzerik merezi duan zer-bait kontalariari berari gertatu zaiolako; kontakizuna bizitzatik atera, alegia.

Azken urte auetan, olako zenbait liburu agertu dira: Pello Errotaren alabarena, aitaren bizitza kontatuaz; Salaberria'ren *Neronek tirako nizkin*; Uztapide'ren *Lengo egunak gogoan*; Zubillaga'ren *Lardasketa*; Erauskin'en *Aien garaia*; Arrizabalo'ren *Baso-mutillak*; Ataño'ren *Txan-txangorri kantaria*.

Nobelagille bezela, Irazusta bakarrik saiatu da, *Nork bere bidea* liburuarekin. Bañan onek ere ez du dana bere burutik sortu; berak Argentina'n ikusiak eta ikasiak ortxe sartu baititu.

Oar bat egin bearra dago orain. Alkain'ena beste liburu oien ondotik agertzen bada ere, iru bakarrik ditu bera baño len idatziak: Pello Errotaren alabarena, Salaberria'rena eta Zubillaga'rena. Beste guziak geroztikakoak dira. Orain arte illunpean zergatik egon dan, liburua irakurritakoan jabetuko da irakurlea.

Liburu oiek garrantzi aundia dute. Ala uste degu, beintzat. Ez genduke, bestela, lan astun ori artuko. Zer kontaturik eduki eta kontatzen dakianak, jaulki egiten ditu bere kontaera oiek etxean edo lagun-artean, bai Euskalerrian eta bai emendik kanpora ere. Ori ere aozko literatura da. Une berean piztu eta itzali egiten dan argia. Papereratu eta betiko gordeko balitz, gure eta nun-naiko literaturaren aberasgarri litzakeana.

Ala, esan bezela aitaren liburua bukatu ondoren, kontatzen zekian ezkeror zer kontaturik bai ote zuan jakin nairik, galdera batzuk egin nizkion Alkain'i, eta bereala azaldu zan gerra. Emeretzi urte egin berriak zituan berak asi zanean, eta ogei artean bete gabeak, Bilbao'n prisionero arrapatu zutenean.

Gerrateko ibillerak kontatuaz zerbait ere idatziko ote zuan eskatu nion orduan. Bai arek bereala baietz erantzun ere, eta egingo zuala agindu.

Urrena alkarrekin bildu giñanean, orri batzuk ekarri zituan. Orri gutxi ziran, bañan gerra guzia artzen zutenak. Liburua osatzeko, askoz geiago bear zan noski. Bañan bi gauza auek oso garbi ikusi nituan: bata, liburua egiteko gai ede-

rra zegoala; bigarrena, liburuaren atalak zein izan zitezkean.

Andik aurrera onela egiten genduan. Nik galdetu:

— Urrengoa Billarreal'koa egin bear degu. Nola ibilli ziñaten?

Eta Alkain kontari asten zitzaidan. Gustora aritzen zan; bai nik ere atsegiñez entzun. Bukatutakoan, onela esaten nion:

— Billarreal'ko ori ekarri urrengo egunean, txeeetasun guziekin idatzita.

— Ekarriko det, ba —erantzuten zidan, eta olaxe banatzen giñan.

Berriz alkarrengana bildutakoan, ez giñan bereala liburu-lanetan asten. Len esan bezela, beti bazuan zerbait kontatu bearra. Ura bukatu artean, gure liburuak jai izaten zuan.

Asten giñanean, lenengo lana berak ekarrirako orriak irakurtzea izaten genduan. Neronek egiten nuan lan ori, aren letra ondo ulertzen nuan ikustearren, ondoren makinaz errezago idazteko.

Irakurtzerakoan, edo-ta gero makinaz idazterakoan, emen deskripzio bat bear zuala edo oso komeni zuala ikusten nuan; an, berriz, izketaldi bat falta; beste txeeetasun bat emen; alako puxka bat an.

Arek ordea, ni galde eta galde jardunagatik, etzan bein ere parientzitik ateratzen. Askotan parrere egiten zidan, eta beti ere alik-egokien erantzun.

Batzutan, eskatutako oiek urrengo egunean ekartzen zizkidan. Bestetan, nik eskatu gabea berdin ekarriko zuan. Uraxe irakurri, beraz. Arek ere txetasun bat edo beste falta edo komeni izango zuan, eta nik ura eskatu. Bañan lengoaz ez nintzan aztutzen eta ura ere idazteko enkargua eman berriz ere.

Zenbait aldiz, ordea, eskatutako txetasun berriak urrengorako utzi gabe, orduan bertan idazten genituan. Onela esaten zidan:

— Jarri, ba, makinan.

Ala egiten nuan, eta bera orduan kontari asten zitzaidan, etenaldiak egiñez gañera, neri idazteko leku ematearren. Maixua ikasleari *dictado* eragiñez bezelatsu, alegia. Olakoetan gustora aritzen zan, bere burua sekretario eta guzi ikusita. Ala, gero eta maizago agintzen zidan makinaren aurrean jartzeko.

Alkain zana artista zala, nik ez det dudarik egiten. Berezkoa orixe zuan. Ori zuan bere bidea. Bañan, itxura danez, bizitzak etzion ortarako erreztasunik asko eskeñi.

Askotan, iru edo lau bat kontaera izaten nintzan, paper-mordoan banatuta gañera, aietatik kontaera bakarra egiteko. Alkain joandakoan ortan jarduten nintzan.

Gure billerak, toki oberik etzala-ta, nere gelan egiten genituan, bera Urnieta'tik Donosti'ra trenean etorrira. Meriendatu ere bertan alkarrekin, patxara ederrean: gazta, ogia eta ardoa.

Oso ondo alkar artu genduan beti. Bestela, izan ere, tamaña ontako libururik nola osatu? Ala, oso adiskide egin giñan azkenerako.

Esandako gisan makiña bat arratsaldetan alkarrengana bildu ondoren, liburua gaur dagoan ontara iritxia zan. An eta emen eraskin batzuk egin asmotan giñan. Adibidez, Sabigain'go burruka-aldia berriro eta zeatzago idatzi; Artxanda'koa osatu; eta abar.

Alkain etorri zitzaidan azken egunean, ez genduan ezer ere egin. Oso makal arkitu nuan. Zer ote zuan galdetu eta gripez zegoala erantzun zidan; medikuak botika batzuk agindu zizkiola eta aiek artzen ari zala. Neronek eraman nuan Urnieta'ra, kotxean artuta.

Andik amabost bat egunera, Urnieta'ko adiskide batekin topo egin eta onela esan zidan:

— Aizu: lengoan Iñaki Alkain'en illeta izan genduan.

Tximista nere ondoan lertu izan balitz bezelatsu gelditu nintzan. Zer esan ez nekiala utzi ninduan orduan, eta urrengo egunetan berri txar ori ezin sinistu eta burutik ezin kendu. Ia bukatu rik genduan liburua ere ezin ikutu.

Berak liburuan beste batengatik esaten duana esan bear guk ere: zeru erdi-erdian gerta dedilla. 1971'eko Azaroaren 12'an il zan gizagajoa.

Ondoren, liburuaren gorabera guzia nere gain zetorren. Eraskin batzuen faltan gelditu bearko zuan. Gutxiena orixe zan, ordea; zegoan bezela ere bukatutzat eman zitekean eta.

Bañan beste korapillorik ere bazan. Liburu ontako gertaera batzuek, ez dute ezeren oztoporik izango. Beste batzuk, berriz, aundi xamarrak dira; edozein arrituta utziko dutenak. Liburua irakurtzeari ekin eta aurrera dijoan añean, ederki asko jabetuko da irakurlea zer esan nai dadan.

Ori dala-ta, itz-bide ederrik ere sortuko du bearbada liburu onek bazterretan.

Bañan Alkain joan zitzaigun ezkerro, erantzukizun guzia neretzat gelditzen zan.

Orregatik, lantegi berriari ekin nion: gerra-denborako egunkariak, *Euzkadi* eta *Eguna* batez ere, eta geroztikako kondaira-liburuak aztertu, Alkain'ek esaten dituanakin zer ikusirik daukatenak berezi eta atal bakoitzaren bukaeran oarretan erantsi, liburuaren sendogarri ta indargarri izan ditezen, eta dudazaleentzat sinisgarriago egin dezaten.

Ala, irakurle guziai auxe eskatzen diegu: oar oiek ere irakur ditzatela, arren. Ez noski biltzen lan ederra izan degulako; oietan gauza jakingarri asko dagoalako baizik.

Egunkari eta liburu oien laguntzaz liburua aberastu ondoren, Alkain'ekin batalloi berean —*Itxarkundia*— eta konpañi berean ibillitako bi adisdekin bildu nintzan: Tolosa'ko Horazio Etxeberria eta Santos Mokoroa. Eta liburu osoa pasa ondoren, onela esan zidaten:

— Batalloiaren historia ondo dago. Gauzak olaxe gertatu ziran. Bañan bakoitzak bere goraberak ere izaten ditu, eta oietan norbera beste

testigurik ez dago. Guk ezin, bada, oietaz ezer ere esan.

Ain zuzen, testigurik gabeko oiek dira gertaera danetan arrigarrienak.

Oietako bat, adibidez, Alkain eta bere lagun Etxeberria beren trintxeretatik atera eta etsaiaren eremuan sartzea, zenbat gizon, zenbat artilleria, zenbat indar zegoan ikustearren. Beingoan egiteko ere naikoa litzakeana, berak ordea maiz xamar egin bide zuten.

Etxeberria ori, andoaindarra zan, Merdillegi baserrikoa, len aitaturako Aita Etxeberria'ren anaia, Alkain baño zarragoa. Bera buru zala, antxe ibiltzen ziran batera eta bestera, naiz Bizkai barruan eta naiz Araba'ko mendi-zelaietan, etsaien tartean. Bitori'raño ere joan omen ziran gau batean.

*Esploradore* zirala esaten du liburuan Alkain'ek. Bearbada, ez du izena ondo erabiltzen. Bañan orregatik berdin izango da, noski.

Ibillaldi oiei buruz, onela esan didate Santos Mokoroa eta Horazio Etxeberria adiskideak:

— Egi-egia da ori. Guk egon-aldiak izaten genituan tarteka. Aiek bat ere ez. An ibiltzen ziran, jo ta ke beti, esate baterako asnasik artzeko betarik ere gabe.

Etsaiaren eremuan sartzen zirala ere, egi utsa omen da. Eta, orri buruz, Alkain'ek aztuta-edo zeukan gertaera au kontatu zidaten:

— Batean, etsaiaren aldera beren sarrera egin ondoren, bueltakoan sozialista batalloi bat

zegoan tokitik pasa bearra gertatu zitzaien. Nazionalistak zirala, *Itxarkundia*'koak zirala eta abar esanagatik, besteak batere sinistu nai ez. Ixpitizat artu eta ia-ia biak afusillatu zituzten. Bañan batenbat bialdu eta *Itxarkundia*'ren buruzagiak aien alde agertu. Orri eskerrak. Bañan mandataria etorri arte, biak preso eduki zituzten.

Urrena, Santos Mokoroa'k onela esan zidan:

— Billarreal aldean gertatua esango dizut. Gau batez, guardi egiten geunden, erne-erne noski, punta-puntan baigiñan. Iñaki Alkain ori, iñori ezer esan gabe, etsaiaren aldetik abiatuta, arrastaka eta lau oñean, ixil-ixilik, gu geunden punturaño etorri eta orduan «Kaixo, jaunak!» esan. Berak orrela agurtu arte, guk batere sentitu ez. Ikaragarri abilla zan azariak bezela ibiltzen. Bañan orixe zan batere premirik gabe bizia arrisku gorrian jartzea eta jokatzea. Guk sentitu izan bagendu, lau tiroz garbituko baigenduan.

Gertaera ori ez du Alkain'ek kontatzen. Ezta urrengo beste au ere. Horazio Etxeberria eta Santos Mokoroa'k onela esan zidaten:

— Onako au, Alkain'ek bein baño geiagotan egiña da. Billarreal inguruan giñan, Pagotxiki'n-edo, ango burruka-aldia bukatu ondoren. Alakoren batean, Alkain'ek onela esaten zuan: «Au oso aspergarri zegok. Festa jarri bear diat.» Billarreal'ko kantoi bateko etxe batean, etsaiaren buruzagi-jendea biltzen zan. Eta Iñaki, arrastaka-ta, gabaz araño joan eta esku-bonba



pare bat bota. Alakoetan, noski, frente guzia sutan jartzen zan, alde bateko eta besteko ametralladorak eta fusillak dantzan eta zalapartaka. Inguruak ostera ere paketzen ziranean, Iñaki an azaltzen zan lasai asko, txistuka.

Ikusten danez, liburuan gertaera arrigarri asko badago ere, oroitu ez eta illunpean utziak ere bazituan Alkain'ek beste batzuk.

Ura, bere emeretzi urterekin eta berez jostakiña izanik, jostakizuna bezela artu zuan gerra, eta ezin jostatu gabe egon, naiz-eta bere burua arriskuan jarri.

Batek, liburua irakurri ondoren esan didana auxe da: Jose Antonio Agirre'gana errezegi biltzen zirala Etxeberria eta Alkain; ori ezin zitekeala ola izan. Beste batek, berriz, Agirre'k mendiko gudariekin itzegitea atsegin izaten zuala esan dit. Zeñek arrazoi?

Ori erabakitzea, irakurlearen gain uzten degu. Santos Mokoroa eta Horazio Etxeberria'k esana berrituko degu: bere goraberetan norbera izaten dala testigu bakarra.

Bañan gauzak diran bezela artu bear dira; liburuak ere bai, beraz, eta onako au berdin. Eta liburu au, erderaz *memorias* esaten dan saillean sartu bearko litzake; euskeraz, *oroitzapenak*. Liburu oiek, geienetan, gauzak gertatu eta andik urteetara idazten dira. Alkain'ena, ogei ta amabost urteren buruan. Eta edozeñek dakiana, naiz-eta buru oneko gizona izan, ezin ditzazke iñork ere txeetasun guziak xuxen buruan gorde.

Ala ere, liburu oiek, puntu batzuk nastu edo oker agertu arren, beren mamia egi-egia izaten dute eta kondairaren aberasgarri izaten dira, garai artako giroa, gizonen buruzbideak eta abar, beste dokumentu guziak baño obeto erakusten baitituzte.

Ala ere, norik bere iritzia emateko eskubide osoa dauka, noski. Bañan auxe eskatuko genien guk irakurleai: naiz alde naiz kontra izan, ez dezala inork bere iritzia axaetik eta nolanaietan eman. Eta, al badu, lanari ekin eta saia dedilla beste liburu batean dakianaren berri azaltzen.

Orrela, beste liburu bat izango degu gerrari buruz, eta ori gure literaturaren eta kondairaren onerako izango da.

Izan ere, gauza batek zearo arrituta nauka aspalditik: 1936'eko gerra negargarri artaz euskeraz liburu geiago agertu eza. Alako urrikeria ikusita, arrotz batek onela esango luke: emengo gerratean, banaka batzuk izan ezik, beste guziak erdaldunak zirala. Bitartean, euskaldun asko ta asko ibilli ziran, beren borondatez edo kintak arrapatu zitualako, bai alde batean eta bai bestean.

Utsune ori bi bidetatik datorrela uste degu: bata, idazteko betidanik izan degun zabarkeria; bestea, oraindik ere, berrogei ta bost urteren buruan, gerra arek bildurra eta lotsa ematen digulako.

Bañan garaia bada, noski, gauzak illunpetik argitara azaltzen asteko eta izan ziran bezela ai-

tortzeko. Ez digu orrek kalterik egingo. Mesede bai, guk uste beintzat.

Liburu au argitara baño len, bidezkoa baitzan, Etxeberria eta Alkain'en familiakoak ere irakurri dute.

Alkain'en seme-alabak eta senideak, illabebe-tetsu beren mende eduki zuten eta argitaratzeko baimena eman ere bai.

Etxeberria zanaren familatik, beraren anai zarrenak irakurri du. Len ere aitaturako Aita Patxi Etxeberria'k, alegia, Formosa'n bizi danak, onera etorri zan batean. Eta, argitaratzeko baimena emateaz gañera, berri jakingarri auek ere idatzi eta bialdu zizkigun, 1972'eko Otsaillaren eskutitz batean:

«Gure anai zana, senideontzat Joxinixio zan. Zuk Joxe deitzen diozu. Agian Alkain'ek ere alaxe esaten zion.

Neronek garbi ez dakit: bañan gure anai Joxinixio senideetan boskarrena zala uste det. Mutilletan laugarrena. Beraz, zuk diozun bezela: «baserria utzi ta gerrara joan zala...» (1), ez det uste nere anaiarentzat zuzen esana dagoanik. Ordurako baserrirako izendatua, oraindik Merdillegi'n bakar-bakarrik bizi dan anai Jomari zan.»

Eta beste batean:

«Ua, guk Zentral Aundi deitzen genion ortan ibiltzen zan. Alegia, orain Iberduero esaten dioten ortan. Aren lana, geienetan, indar-etxe ortarako urak zetozen uarka zaitzea.

---

(1) Nik eskutitzez alaxe esaten bainion.

Uarka ori Beñes'en asten zan. Uarkan, batez ere orbel-garaian, osto pilla aundiak jeisten. Beraz, orbel oriek uerkatik ateratzen izan bide zan gure anaiaren lanik aundiena.

Gudua asita andik laister, baso aietatik bera naparrak zetozen. Nik ez dakit zenbat. Aiek gure anaia arkitu eta galdetu:

— Andoain'era zuzen al goaz?

— Bai zera! Oso oker zabiltzate. Gañera, or beian abertzale eta erkal-alderdikoak dituzute.

Orrela, gure anaiak aiei itzuli zitezen zidor garbia erakutsi. Izan ere, mendi mazal aietan txaraka eta sasi itxia besterik ez zan.

Aiek gure anaiari, aiekin joatea nai ote-zukean galdetu. Arek:

— Eskarrik asko! Bakoitzak bere zer-egiañak izaten ditu. Zuek zoazte ortik gora eta zeron osasuna zaindu.

Geroago, Andoain aien esku zanean, delako naparrak gure anaiaren billa ibilli ziran. Noskiago, len ain gizonki lagundu zitelako, zerbait gertatu ba'litzaion ere gaizkatu egin nai zuten.

Ordurako, gure anai zana, bere betiko zintzotasunez okertu gabe, geroago ibiliko zan lanetan asia genduan. Belkoain'en bertan, lenengoz eusko-ikurriña arek jarri zuan.»

Beste eskutitz batean, berriz, onela esaten zidan:

«Neronek ere guduak ikusi izan ditut. Bai Txina eta Nipon'darren artean izandako ua ere. Zortzi urtez ibili ziran, eta alderdi batekoen ar-

tean zer saldukeri eta gudari artetik zer ies-egiteak izan ziran gogan ditut. Alegia: iñork ez duala gazterik il nai izaten. Eta amatxoren magal eta *maitteak* oso gogoan izaten ditugula.»

Eta, beste zer esanik gabe, itzaurre luze oni bukaera ematen diogu.

A. Z.

## ANDOAIN

Andoain'go erriak bertako bertsolarien txapelketa antolatu zuan; 1936 urteko martxoa zala uste det.

Amaika bertsolarik kantatu zuten: Merdillegi'ko Joxe Etxeberria; beste bat Labakane'koa ta Labaka esaten ziotena; bestea, Ixkurrain'goa; Kaskabeltxa, Elixalde, Txutxurretegi eta Luga rraitza. Oietatik aurrera, ez naiz oroitzen besteak zein ziran. Guziai beren etxe-izenez esaten zieten.

Nik, juradoko jaunengandik deia izan nuan, an agertzeko eta txapelketa ondoren zerbait kantatzeko. Urnieta'tik, nere jaioterritik alegia, oñez joan nintzan, auzoko mutil bat lagun artuta: Antonio Mujika Kortajarena, Belauntzaran baserrikoa.

Oso txapelketa alai ta xelebrea izan zan. Naiz bertsoak oso ongi ez neurtu, alkarri txiste ederrik kantatu zioten.

Epaiketan jaun auek ziran: Aitzol, Jose Ariztimuño apaiza alegia, berez tolosarra. Onek egiten zuan iruren erabakia; *terzerotza* esan nai nuke. Eta beste biak, Jose Olaizola eta Txomin Olano, nere musika-erakuslea, iaioa benetan. Irurak illak dira.

Ni atzeko aldean egon nintzan, bertsolarien ateraldiak entzuten. Bi ordu eta geiagoan egon ere, bañan bai pozik.

Beren artean ari zirala, garbi nabaitzen nuan danetan egokiena eta iaioena Merdillegi esaten ziotena zala. Bere esanetan jatortasuna eta garbitasuna ikusten nuan. Nere artean onela esan ere bai:

— Merdillegi orrek bear dik emen txapeldun.

Eta ala gertatu. Epailleak, nere iritzia zan bezela, Merdillegi orri eman zioten txapela. Jantzi ondoren, jende guziari agurtzeko, bertso eder bat kantatu zuan; bañan ez naiz oroitzen.

Zubimendi jauna zan puntuak eta gaiak ematen. Eta, txapelketa eta erabakia bukatu, bera zegoan lekutik altxa ta nigana etorriaz, onela jarri zidan puntua, eztarriz nola arkitzen nintzan ikusteko:

Zer moduetan zatoz  
gaur musikarekin?

Eta nik:

Ustean oso ongi  
ikasi zurekin;  
gañera garbi-garbi  
abo-otsarekin,  
orain ezenaioan  
bear diot ekin.

Orduan esan zidan:

— Azaldu adi, bada.

Azaldu nintzanean, txalo ugariak nituan.  
Eta, txalo aiek ari zirala, Zubimendi jaunak onela dit:

— Motell, au dek zigarro bat erretzeko go-go daukatena.

Eta erantzun nion:

— Zigarroa bakarrik?

Eta ark:

—Martel-kopa bat balego ere...

Gizagajoak arrazoi zeukan. Bi ordu eta geiago zeramazkian an, eta etzuan gutxi egin orrenbeste denboran ezer erre eta edan gabe egotea.

Txaloak bukatu ziranean, onela kantatun gutxi gora-bera:

Nere auzoko Andoain erri,  
aurren bertsoa gaur zuri,  
esker ugarik nik emanikan  
danentzat on izan bedi.  
Ezagututa zaudete orain  
erriko bertso-alderdi,  
biotz-biotzez arratsalde on  
dizuetela danoiri.



Danak entzuten egondua naiz  
poz arturik biotzean,  
iñon bertsorik entzuten badet  
ez naiz gelditzen atzean,  
gañera berriz errietako  
txapelketa auek jartzean;  
urtero auek bear lirake,  
jaunak, erri bakoitzean.

Irugarrena, Merdillegi'ri bota nion:

Zu, Merdillegi, zorion sutsuk  
aurren-aurren bereala,  
ikusi det nik zure erriko  
bertsoz txapeldun zerala;  
erakutsia eman dezu ta  
ezin ukatu iñola,  
ontaz aurrera zuk nai badezu  
biok lagunak gerala.

Nere bertso ori entzunik, berak, maitasun  
sutsuz bere alkitikan altxarik, nigana etorri eta  
besarkada bat eman zidan:

— Alkain gaztea, millaka esker. Eta, zer-  
nai gerta ere, beti nerekin konta zazu.

Nik orduan onela galdetu nion:

— I, Merdillegi: barka zak, bañan nola dek  
izena, etzekiat eta?

Berak onela esan zidan:

— Jose Etxeberria.

Onela izan zan gure ezaupidea. Une artan,  
alkarren besarkada arekin, biok zoriontsu jarri  
giñan. Zeñen gutxi pentsatzen genduan, gero

alkarrekin zenbat eta zenbat samintasun eramanean bearko genduan.

Ettxeberria ori etzan gorputz aundikoa. Obeto esateko, txikikoa zan. Bañan ankaz eta buruaz oso pizkorra ematen zuan.

Sudur-luze xamarra zan, eta arpegiz extua. Illez, gaztain-kolorekoa. Begiak etzituan txikiak, aundiak ere ez; bañan aiek ere gaztain-kolore antzekoak. Begi oietan oso begirapen apala zuan, bañan denbora berean oso argia.

Bertso oiekin, festari bukaera eman zioten. Arratsaldeko zortziak inguru ziran.

Aparia nik ez nuan uste irabazia neukanik, eta egun artako lanak bukatuak nituala pentsatzen nuan. Gañera, lagun batekin bainintzan.

Bañan Aitzol, Zubimendi eta Txomin Olano zanak, or eramane gaituzte biok gonbiratuta Bar Inazio'ra; Andoain'go abertzaleen batzokira esan nai det.

Alde batera, gazte izanik, lotsa ematen zidan apari artara joateak. Bañan Zubimendi jaunak, ain alaia baitzan, onela esan zidan:

— Alkain gaztea: zu apari ontara etortzen ez bazera, apari tristea izango da neretzat.

Ori entzunik, nere lagunarekin apaltzera joan nintzan, eta bai ongi apaldu ere. Apalondan, bertsolarietatik iñor ez baitzan bertsotan asten, Zubimendi jaun orrek, bere gogoko pueroa ezpañetan duala, onela esaten dit:

— Alkain gaztea: nik etzaitut apaltzera bakarrik ekarri, gaurko jai-aldiari laguntzera baizik.

Orduan ez neukan bertsotan asi besterik. Danak agurtuaz eta zorionak emanaz ekin nion. Etxeberria'k erantzun zidan eta saio polita egin genduan biok. Iñor ikutu gabe izan zala, ori badakit.

Ondoren, Zubimendi jaunak *habano* bat eskeñi zidan, naiz-ta ni puro erre-zalea ez izan, onela esanaz:

— Alkain, ez nauk asko deskuidatu, ez, i apari ontara ekartzeaz, ere lagun da guzi. Bestela, Andoain'go batzokia ez uken bizi. Puro au ostutakoa dek, bañan danak dituk merezi.

Nik orduan onela esan nion:

— Zu, Zubimendi jauna: ostutako gauza batek bai al du bear ainbat gustorik?

Aren erantzuna:

— Danok etorri gera mundu ontara ostuta.

Aren esana geroztik ez daukat aztuta. Bañan ez ninduan utzi poztuta. Bazirudian esan zidala apari arekin nastuta.

Andik aurrera, olakoetan oi dan bezela, danak bertsolari.

Apari ori alaitasun ederrez igarorik, nere laguna eta biok, Urnieta'tik Andoain'era oñez etorriak izanik, berriro ere geren errira oñez joateko asmotan giñan.

Bañan Aitzol, Olano, Olaizola eta Zubimendi jaun oiek bazuten tasis bat berekin; eta Aitzol jaunak, biok oñez giñala ikusirik, txoferrari onela esan zion:

— Barrenean lekurik ez dago; bañan gazte auek automobillaren estriboan joango dira Urnieta'raño, lau kilometro daude eta, baldin kotxeak indarrrik badauka.

Beste ernaniar bat ere artua zuten kotxe artan Ernani'ra ekartzeko. Bost eta bi, zazpi lagun etorri giñan Urnieta'raño. Andik aurrera, ez dakit geiago (1).

---

(1) Andoain'go bertsolari-txapelketa ori, 1936 urteko Garagarrillaren 11'an ospatu zan, Korpus egunez.

Donosti'ko *El Día* egunkarian arkitu degu txeta-sun ori. Aurretik, 1936-VI-10'an, onela zion:

«Andoain: 18 bertsolari datorren ostegunez:

Etxeberria, Lubarritza, Laka, Berrospe, Itxaso, Ma-xartegi, Arratibel, Txakon, Txurikai, Txurikai gaztea, Ubalategi-txiki, Oztape, Bentaberri, Exkurain, Etxeberria-Usandizaga, Benezi, Pelipe Argizala eta Otaegi.»

\* \* \*

Txapelketa jokatu ondoren, berriz, 1936-VI-12'an, onela zion erderaz.

«Once bertsolaris en Andoain: Etxeberria, Lubarritza, Laka, Berrozpe, Itxaso, Ubalategi Txiki, Bentaberri, Eskurrain, Aramenea, Benezi y Otaegi.

Jurado: José de Ariztimuño «Aitzol», José Zubimendi, Juan Aranguren, Domingo de Olano.

Dirigió: Zubimendi.

*Retirado el Jurado a deliberar, después de celebrada la competición, actuaron con carácter de exhibición dos bertsolaris, de Urnieta el uno y el otro de Ayete, siendo muy aplaudidos.*

Vencedores: Etxeberria, Laka y Lubarritza.

*Por la noche, bertsolaris, organizadores y miembros del Jurado, se reunieron en fraternal cena, servida excelentemente en los locales del Batzoki, acto gastronómico que discurrió, aunque huelgue el decirlo, en medio de un ambiente de humor e intensa animación y cordialidad.»*

## URNIETA

Uztaren emezortziaren bazkalondoa zan. Gure baserritik erriko errementariarengana gauduekin joana nintzan, gurdi-kurpil berrien billa, eta ango nagusi Jose Lizeaga jaunak onela esan zidan:

— Iñaki, notizi txarrak dizkiagu.

— Zer bada, Joxe?

— Afrika'n ejerzitua altxa dek, eta laister emen altxako dituk.

— Salsa ederra badator orduan, lendik soñu txarrak datoz eta.

Eta ala gertatu zan. Andik laister, Donosti'ko kuartela kalera ateratzen asia zala. Bañan Eibar, Mondragon eta alderdi oietako jendea Donosti'ra segituan etorri zan, eta Carrasco jaunak erretiratu egin bear.

Urnieta'n ere komite bat jarri zan. Ez aber tzaleak bakarrik; baita republikanoak eta abar.

Komite orren tokia batzokiaren azpian zan, *Bar Antonio* deritzaionean, nere jaiotetxean ain zuzen.

Gu abertzale izenekoak, Roke Lasarte jaun jarri genduan gure kapitan. Oso gizon jatorra zan; Urnieta'koa. Amaika lan egiten zuan Euskalerriko oiturak zaintzen. Eta, ain saiatua izanik, bera aukeratu genduan gure kapitantza egiteko.

Beste errietan bezela, guk ere Urnieta zaindu nai genduan, eta iñor il gabe kontu egin. Gauetan, txandaka-txandaka, bi lagunek guardia egiten genion erri guziari.

Nik guarditzan ibiltzen nuan laguna, Rafael Barkaiztegi zan, kalean bizi zana. Ni, berriz, baserrian; Berrasoeta'n.

Senideetan nere aurretik bost arreba izanik, ni nintzan maiorazkoa; eta, baserri aundia baigenduan, lan ugari izaten zan. Orregatik, guardia nuanean, egunez lanean jardunda, eta tarteka eta bazkalondoan kuluxka batzuk egiñaz, illunabarrean Roke Lasarte orren mende jartzen nintzan.

Rafael nere lagun ori eta biok, oso ongi alkartzen giñan.

Errian bazeuden karlista batzuk eta abar gordeta, erritar etziranak, eta guk zaintzen genituan.

Gau batez, ordea, Donosti'ko C.N.T.'koak etorri ziran, oietako batzuen billa. Ekarri zuten kotxea, marka *Buick* zan; eta berak, pistola-ametralladora eta guzi, oso armatuak.

Gu, berriz, fusil italiano zar batzuekin genbiltzan. Gure partido nazionalistak besterik

etzuan. Ez geneukan segurantzirik, tiroa tira bearrez arkitu ezkeru, fusil aietako batek sutuko zuanik. Ura zan guarditza!

Aiek ala ikusirik, nere lagunari onela esan nion:

— Ni Kaxeta'ko baratzara niak, eta ik auei esan bear diek, berak zerbait estutzen baaute, or daukakela tropa gordeta.

Aietako batek, kotxetik atera eta onela galdetzen dio:

— *Oiga, guardia: ¿dónde viven aquí los señores de tal y cual?*

— *Pues en esa misma casa, subiendo esas escaleras. Pero tenemos orden de no molestar a ninguno de ellos.*

Orduan, C.N.T.'ko ura txulo jartzen asi zan, eta nere lagunak esan zion:

— *Como tengo esa orden, quiero cumplirla. Pero si Vd. se pone así, sepa que en esa huerta hay por lo menos cincuenta. Con que saque las cuentas.*

Bitartean, bada ez bada ere, an neukan apuntatua, miliziano aren aoko zulora, nere fusil zarra, geienetan kartutxoa sutzen etzuana.

Nere lagunaren itz oiek entzunda, sartu zan ostera bere kotxean, billa zebiltzan gizon oien etxe ondoan buelta eman zioten kotxeari, eta ixil-ixilik alde egin zuten.

Gu bi gazte umezurtz giñan, eta bizkarrean genituan fusillekin ez geneukan geren burua salbatzerik; bañan an ikasi genduan, askotan bu-



ruak eta ausardiak armak baño lan geiago egiten dutela.

Andoain'go errian bazan gizon aundi bat; ez diruz bakarrik, bai gorputzez ere. Aren izena, Luziano Pastor Añibarro zan. Luken esaten zitzaion. Jaun onek, erbeste-errietan, geienaz Suiza'n, etxe askotako representazioak ibiltzen zituan.

Gure partidoak, jaun ori eta Rafael Pika-bea aukeratu zituan, estranjeritik armamentua ekartzeko. Txekoeslobakia'n-edo bi trenkada erosi eta bidean zetozela utzi zituzten.

Jaun orrek ni ezagutzen ninduan, bere emazte zana nere aitaren lengusu propioa zalako. Gure etxera askotan etortzen zan. Oso alaia zan; gizon atsegiña, esan nai nuke.

Txekoeslobakia'tik edo ibilli zan tokitik etorri eta gure etxera joan zan, eta aitari onela galdetu:

— Iñaki etxean al dezute?

— Ez; guardia egiten ia gauero or zebillek. Or dek nunbait ere.

Eta kalean arkitu ninduan. Besarkatu ondoren, esan zidan:

— Iñaki, bi trenkada armamento bidean ditugu. I iaioa aiz eta Buruntza mendi ori ikusi zak ongi, zer egin liteken.

Pastor Añibarro orrek buruzbidea zuan, Andoain artzerako, bi trenkada armamento oiek Donosti'ra sartuko zirala. Eta orregatik pentsatzen zuan, Buruntza zala gogor egiteko mendi egokia.

Urrengo egunean bertan, artu ditut auzoko bi nere lagun, Buruntza mendi ortara joateko. Pastor Añibarro'k, lan ori ixil-ixilik egiteko esan zidan. Orregatik, komiteari eta nere kapitanari kasorik egin gabe, or abiatu gera.

Lasai-lasai irurok goazela, bidean dagoan Azkorte'ko Santa Kruz ermita ortara irixtean, or azaldu zaigu, lenago Oria'n itai batekin gizona il zuan bat. Gallego oietakoa zala uste det. Beltza esaten zioten. Eta onela dio:

— *¡Alto! ¿A dónde vais?*

— *A dar un paseo por Buruntza.*

— *¿Un paseo? ¿No sabéis que estamos en guerra?*

— *Sí, pero nosotros no somos guerreros.*

— *Pues quedáis detenidos.*

Ori entzunik, onela esan nion:

— *Vd. a mí me conoce perfectamente, porque Vd. es de Oria y yo de Urnieta. Y además creo que estamos defendiendo la misma causa.*

Bañan alaz guziaz ere etzan gurekin fiatzen. Onela esan zigun:

— *Bajaréis conmigo al comité de Urnieta.*

Eta jetxi bear izan genduan. Komiteko lendakari egiten zuana, Antonio López zan, republikanoa. Berarengana Beltza aren mendean azaldurik, onela dit:

— *¿Qué pasa, Iñaki?*

— *Pues íbamos los tres a dar un paseo al monte Buruntza, y estos estaban en la ermita de Santa Cruz, y parece que nos han tomado por espías, por no tener documentación.*

Orduan Antonio jaun orrek, guregandik apartaturik, zerbait jatorbide ematen asi zitzaion Beltza orri.

Tarte ortan, gure kapitan Roke Lasarte jaunaz azaldu zan:

— Zer pasa zaik, Iñaki?

— Motell, Beltz orrek detenitu eta Santa Kruz'etik ekarri gatzik, Buruntza mendia ikusteko baimenik ez gendualako.

— Demonio eroa! Bidean zertan ez dek akabatu?

— Roke, enian ezer ere, makilla besterik.

Antonio López orrek, makinaz eskribitu eta Buruntza ori ikusteko baimena eman zidan. Bañan nere bi lagunak ikaratu egin ziran, eta ni bakarrik joan nintzan gizon beltz arekin.

Ermitaraño iritxi eta barrura sarturik, an ikusi nuan Aita Santo Kristo gizagajoa tiroz zulatuta zeukatela. Aserraturik, onela esan nion gizon beltz orri:

— *¿Qué culpa tiene el Santo Cristo? ¿Así pensáis ganar la guerra, con todo lo comunistas que seáis?*

Ermitaren barruan bazeuden amar bat lagun lasai-lasai etzanda. Gañera, mozkortuak zeudela uste det.

Baztar batean edariak, gañera ugariak, eta bestean aragi, ogi, urdai-azpiko eta abar; etzeukaten ezeren paltarik.

Arrazoi bainuan, ez Beltza orrek eta ez besteak kinkik atera gabe, Buruntza'ko joan-etorria pake-pakean egiten utzi ninduten.

Buruntza mendi onek orain badauka, gerroztik egiña, gurutze luze eta aundi bat. Bañan orduan etzuan.

Bere egalean zeukan, eta oraindik an dago, ermita txiki bat, San Roke deritzaiona. Ongi gogoan daukat egun artan eskatu niola, aita gurre batez, gerra guzian aurren-aurrena osasuna emateko.

Errezo ori egiñik, tellatu gañetik inguru guziari begiraka egon nintzan. Pastor Añibarro'k arrazoi aundia zuala ikusi nuan, mendi ori etsaiari arpegi emateko aukeratzea; eta gañera, ango arkaitzetan, trintxera eta zulorik egiten lanik etzegoala.

Bañan Pastor Añibarro eta Rafael Pikabea gizagajoak, beren ustez ain xuxen zebiltzanak, ekarri dituzte Baiona'ko estazioraño-edo bi trenkada armamento oiek. Bañan Frantzi'ko gobernuak, *no intervención* zala eta etzala, bertan gelditu arazi zituan, Donosti'raño allegatu gabe.

Bi lagun oiek naigabe izugarria eramán zuten. Bañan gizonak ez luke orren errez etsi bear. Onekin esan nai det, bi jauntxo oiek gero egin zutenarekin eroso bizi izango ziralá. Ura ikusiagatik, etzuten iges egin bear, berriro ere nuntzaitetik ekin baizik.

Bitarte ortan, Asturias'ko dinamitero batzuk etorri ziran. Bost bat lagun-edo. Mario jaunak ekarri zituan, guri gerra zer zan erakusteko. Mario ori militarra zan, komandantea, eta italianoa jaiotzez.

Mario jaun orrek auxe nai zuan: Urnieta'ko mendigain guziak zulatu, dinamitarekin bete, eta, etsaia igotzen zanean, urrutitik su eman eta mendigaña, arkaitzak eta etsaiak txiki-txiki egitea.

Urnieta'ko bide, bidetxior eta baztar guziak asturiano aiei erakusteko, iru lagun bialdu ginduzten: Jose Berakoetxea, Juanito Elustondo eta ni, irurok urnietarrak.

Ala, egun batez, asturiano oiekin ibilli eta alkarrekin oso lagun egin giñan.

Urrengo egunean ere berriro alkarrekin joan bear genduala esan ziguten, mendi aiek ikus-tera.

Bañan guk, Urnieta'ko gure komitera joanda, gerra danok txandaka-txandaka sufritu bear genduala eta urrengo egunerako beste batzuk bialtzeko eskatu genduan. Eta komiteko lenda-kari egiten zuanak, beste lau bialdu zituan gure ordez.

Bañan Mario jaun orrek, ori jakiñik, bera zegoan kuarteletik lau guardi eta miliziano gu detenitzera bialdu zituan. Eta an joan bear izan genduan irurok Mario jaunaren aurrera, deklarazioa egitera.

Guk, noski, artean gazte izanik, ezer ere

ez genekian militartasunaren berri. Nik orain garbi aitortzen det, geren buruzagien aginduari burla egin geniola eta oso gaizki portatu giñala.

Kuartel aurrera allegatu geranean, or jarri gaituzte paretaren kontra, onela esanaz:

— *¡Firmes!*

Orduan, Berakoetxea'k onela esan zidan:

— Iltzera ekarri gatzik.

Nik erantzun nion:

— Gero ere il bearko diagu, bai, eta gaur, naiz-eta guk erru aundirik ez izan, gu izango gaituk, erderaz esaten dan bezela, *los paganos*. Eta ala izan dedilla.

Onela, paretaren kontra gaudela, alako batez komandante jaun ori azaldu zaigu, atera digu atzeko aldeko polsillotik pistola *nueve largo*'koa, gerra denboran askok eta askok ibilli zutena, eta onela digu:

— *Ayer os portasteis de maravilla y hoy os habéis insubordinado. Yo no soy político, ni euskaldun, ni castellano, ni español; pero soy universal. Y cuando uno pone su corazón en algo, debe saber dar la vida.*

Eta pistola petxuan jartzen zigun, gora eta bera igurtziaz. Bañan azkenean onela esan zigun:

— *Sois todavía jóvenes y os perdono esta vez. Pero os advierto que a la próxima os mataré.*

Andik aurrera, amar bat egunean, asturiano aiekin ibilli nintzan, etxetik agertu ere gabe. Oso fiñak ziran eta poz-pozik nenbillen.

Bai abillak zirala bonbak egiten. Iturrieta-ko tubo txiki edo aundirekin, nai zan eratakoe-kin, egiten zituzten. Nik uste det, dinamita eta pistoia izan ezkeru, makil batekin ere bonba egingo zutela, makilla erditik labanarekin zulatuta.

Aiekin nenbillela, andoaindar batzuekin ere allegatu nintzan itzegitera, eta asturiano aien-gatik onela zioten:

— Alkain, Alkain, olakorik ez diagu egin bear. Gerra irabazia zeukagu, geldirik egonda ere.

Eta abar eta abar. Onelako itxaropena izan zan gurea.

Bañan asturiano aiek zerbait egin nai eta Leitza-errekako zubia bota zuten. Emezortzi-ren bat kartutxo jarri ur-ertzean, zubiaren azpian, ango ondar eta lurrez estalirik pillarea-ren kontra; eta baztarretik su eman eta zubia putzura.

Ni, berriz, gañeko aldetik begira eta pene-tan, alperrik galdua iñorentzako ez dala nere artean esanaz.

Aien bototik, etsaiari entregatu baño len, etxe guziak eta zubiak kixkalita utziko zituzten.

Arrazoi pixka bat ere bazuten. Ni ez naiz kixkali-zalea, egin-zalea baizik. Bañan bein gerra egiten asi ezkeru, gogor saiatu bear du batek,

bere burua illik ikusi nai ez badu beintzat. Gu, berriz, biguñegi asi giñan.

Asturiano aiek, Donostia artu baño lenago joan ziran emendik beren lurrera; eta, azken agurra egiterakoan, onela esan zidan aietan buru egiten zuanak:

— *Contigo a cualquier sitio. Pero con la gente de intereses creados a ninguna parte. Y aquí no pasa sino eso.*

Nik ba al nekian orduan *intereses creados* zer zan! Gero ikasi nuan, eta geroztik gogoan eukitzen ditut itz oiek.

Illunabar batez, or azaldu da Andoain'go Jose Etxeberria, andoaindar eta tolosar mutil-talde batekin. Onela esan zidan:

— Iñaki, bazekiat erria eta inguru au zaintzen jarri autela. Bañan etzekiat zer dijoan emen. Gu Beasain aldeko mendietan ibilli gaituk, eta ez diat fulamenturik ikusten. Ire idea zer daukaken jakin nai nitek.

Onela erantzun nion:

— Neronek ere berdintsu ikusten diat. Etxean eta errian egonda, etsaiari muturrekorik ematerik etzegok.

Gero, Roke Lasarte'ren mendean nengoala esan nion; eta berak, nere erri eta inguruetan mutil-sail bat billatzeko eskatu zidan.

Gau artan Urnieta'ko batzokian lo egin zuten, eta urrengo goizean Azpeiti'ko Loiola alde-ra irten ziran.



Nik, berriz, nere errian egonda, onik ez neukan; bañan agindua ala zan eta egon bearrez gertatu nintzan.

Bitartean, etsaia beti aurrera. Beasain, Billafranka eta Tolosa arturik, Andoañ'eraño ere etorri ziran (1).

Ala ere, gu lasai, armamentoa Txekoeslobakia'tik etortzekoa zala eta. Bi illabetez aurretik Naparro aldera geren eskopeta zarrekin eta atxurrekin irten izan bagiña, naparrak beren lekuan sartuko genituan. Bañan Txekoeslobakia'ra begira geunden...

Urrena, Urnieta zetorren. Amabost egun barru artu zuten (2).

Artu zuten egunean, etxera joan nintzan, aita eta senideak agurtzera eta erropak artzera.

Orduantxe zetozen reketek Buruntza menditik. *C.N.T.*'koak eta kalean *viva el comunismo* eta *viva Rusia* deadar egiñaz ibiltzen ziranak, laisterka eta korrika etorri ziran Buruntza'tik beera, bildurrak aidean, atzera begiratuaz.

Aietako bi gure baserriko ataritik pasa ziran, aballa ederrean gañera.

Eta gure aita, ain zan jeniozkoa, etsaia artean urruti zegoala eta aiek korrika ikusirik, atarira irten eta onela die, besoak gora altxata:

— *¿Ganar con vosotros la guerra? ¡De ninguna manera!*

Ni, komuneko leiotik Buruntza'ko egalera, naiz aparte xamar izan, artean øre tiroka ari nintzan nere italiano fusil bada-ezpadakoarekin;

eta, ura entzunik, onela esan nuan nere artean:

— Ori dek arrazoia aitarena!

Ala, nere arreba Elixabetek pardela erroparena preparatu artean, tiroka jardun nintzan.

Gure baserriko etxe atzean intxaur aundi bat zan, eta aren azpian nere lagun bat, Migel Isasa, zai neukan. Nere aita eta senideak ere an bildu ziran.

Nere pardel ori arturik, danoi agur egitera inguratu naiz. Senideena egiñik, urrena, jakiña, aitarena egin bear. Eta onela dit:

— Semea, bai al oa etxea utzita?

Nere erantzuna:

— Aita, joan egin bearko det. Aurrera xamar sarturik ibilli naiz, notizi txarrak datoz Goierrri aldetik, eta iltzeko gogorik ez daukat nik oraindik, gaztea naiz eta.

Eta aitak onela erantzun zidan:

— Bien, motell, semea! Dana bazekiat. Bañan naiago diat il aizela entzutea, gaur edo bigar or atarian orain pasa diran oiek bezin kobardea aizela entzutea baño. Orain eldu iok oni, zortzi duro auei. Besterik etzeukat. Geiago baneuzka, emango nizekikek.

Orduan onela esan nion:

— Aita, ni gaztea naiz. Iltzeko arriskutan jartzen det nere burua, eta ez det diru bearrik. Oinbesteko familiarekin geldituta, zortzi duro oiek zuretzat geiago balio dute, neretzat baño. Gerra galtzen badegu, diru bearrik ez dago;

eta, irabazten badegu, berak ekarriko du zerbait.

Eta, era orretan aita eta senideak agurturik, an zegoan lagunarekin eta pardelarekin, arta-soro tartetik Ernani aldera irten nintzan.

---

(1) Beasain, uztaillaren 27'an artu zuten; Billafranka, abuztuaren 1'an; Tolosa, 11'an; Andoain, 17'an. (Arrarás: *Historia de la Cruzada Española*, VII, 250-1 orri-aldeetan; J. M. Martínez Bande: *La guerra en el Norte*, 80.)

(2) Urnieta, iraillaren 6'an artu zuten. (J. M. Martínez Bande: *La guerra en el Norte*, 81.)

## SANTIO-MENDI

Urnieta'tik irten eta lenbiziko geldi-aldia, Postagaña edo Posta deritzaion etxean egin genduan.

Manuel Isasa'k aurrera jarraitu zuan, eta ni an gelditu nintzan, nere lagun Jose Berako-etxea'rekin.

Etxe artara etortzekoak, Urnieta'ko beste bi lagun genituan: bat, Tomas Zumalakarregi, karlista zarren jenerala bezela; eta bestea, Jesus Otaegi, mendigoizaleen lendakari egiten zuana.

Egon eta egon, ez dakit zenbat denboran, lagun oien zai, eta etziran azaldu.

Ori ikusirik, gu biok, baztarka-baztarka, ti-roai alde egiñaz, Ernani'ra allegatu giñan.

Emen, Zinkuene'ko ondoan dagoan moja-komentua genduan kuarteletzat.

Komentu ontan, batzuk karlistak zirala eta bestek ez dakit zer, jauntxo aundi xamar oietako batzuk gordeta zeuden. Guk antxe zaindu genituan, etsaiak sartu bitartean.

Gure lenbiziko irteera, Arrikarte mendira izan zan. Mendi au, Urnieta eta Lasarte bitartean dago.

Mendi ontan geundela, Santa Barbara mendian gure artilleria baitzegoan, goiz batean gure azpiko aldean zeuden baserri batzuetara tiraka asi zan.

Guk, baserri aietako familiak nolakoak eta zer ziran jakiñik, bereala telefonoz deitu genien artilleroai, baserri aiei uzteko pakean, oso jende guretarra zala eta.

Arrikarte ortan, iru egun ta erdian egon gihan.

Andik ostera Ernani'ra jetxirik, beste egun batzuk esan dedan komentu ortan egin genituan.

Beste batzuk, Urdaburu mendian egon ziran; eta, aiek larri-larri etorri ziranean, Astigarraga'ko Santio-mendi'ra irten bear izan genduan.

Donostia artu zuten bezpera zan; larunbata.

Astigarraga'ko plazatik irten eta betik gora goazela, Goikoetxe baserriko ataritik pasatzean, angoak, ezagunak baintuan, onela otsegin zidaten:

— Alkain, Alkain! Egon adi pixka bat. Arraultza-pare bat janda joango aiz goi alde ortara. Indar geiago izango dek.

Baita gelditu ere. Lagunak aurrera jarraitu zuten; eta ni, baserri ortan gosari ori egin ondoren, bakar-bakarrik igo nintzan.

Goiko gañean, nere oso ezagun bat arkitu nuan. Gizagajo au, beste asko bezela, republika-

-denboran oso balientea izana zan. Bañan ingurura iritxi nintzanean, onela esan zidan:

— Aizak, Iñaki, motell! Or atzeko aldean bertan zeudek.

Nik esan nion:

— Ago ixilik, motell. Tiro-soñuan ezagutzen diat iru bat kilometrora daudela.

Ni, galtzak askatzeko gogoz bainengoan, baztar batera joan eta nere egin bearra egiten lasai asko asi nintzan.

Ez nekian, ordea, etsaiak zein alderditatik tiratzen zuten eta, onelako batez, *pakun* eta *zast*, atzeko aldean gertu xamar.

Aguro altxa nintzan, nere galtzak zintzilik eskuetan nituala.

Lagun orren ingurura allegatu nintzanean, onela esaten diot:

— I, ipurdi inguruan bala sartu zidatek.

Orduan, itzik ere etzidan erantzun. Bereala, korrika alde egin zuan goitik beera Astigarraga aldera. Geroztikan, ez nuan geiago ikusi.

Andik illabete batzutara, Ernani'n bertan gelditu zala eta afusillatu egin zutela jakin nuan.

Etsaiarentzat oso kontrario gogorra zan nunbait. Bañan orrelaxe da gerra.

Bearbada, mutil ura, gurekin jarraitu izan balu, gaur bizirik egongo zan.

Gizagajo orrek alde eginda, sartu naiz trintxeretara. Trintxera aiek, naiko ongi egiñak zeuden.

Etsaiak, Urdaburu inguru alderdi ortatik, kañonazoka asi ziran.

Aiek orrela ekin ziotenean, baziran gure artean erdi negarrez onela esaten zutenak:

— Emen etzegok egoterik.

Aietako bati onela erantzun nion:

— Zer uste uan, bada? Au, sagardotegian sagardoa edan eta Gora Euzkadi'ka jardutea zala? Ez, motell, ez! Bear dan garaian esan bear diagu ori. Jarrai zak tiroka, al deken lasaitasun ederrenez. Gero ere bazegok negar egiteko denbora.

Ori entzunik, onela esan zuan batek:

— Alkain, sekulan eman deken arrazoirik ederrena dek ori. Orain diagu, ik esan dezela, garaia.

Eta beste batek onela esan zuan, oju aundi bat egiñaz:

— Ea, mutillak!

Ori esan zuana, Astigarraga'koa zan.

Orrela, indartsuago jarri giñan, Santio-mendi orri zainketa egiten. Berrogei ta amar bat lagun giñan.

Guk ez genduan ez ametralladorarik eta ez fusil-ametralladorarik; len esandako fusil italia-no zar aiek baizik.

Eta munizioa ere kontatua: bakoitzak berrogeina tiro inguru.

Ain tiro gutxi izanik, gure tiroak oso ongi tireak izan bear zutela zer esanik ez dago.

Bañan batzuek, al dan azkarren andik alde egitearren, bear etzan lekura tiroak tira eta munizioak bukatu zituzten.

Ala, pixkabanaka, gu giñan tokian, iru lagun bakarrik gelditu giñan: Urnieta'ko Martin Irizar; beste bat Astigarraga'koa, izenez ez naiz gogoratzen, republikanoa; eta ni.

Gu, Santio-mendi'ko eskubiko aldean giñan. Mendi onek beste gain bat ere badu, ermita dagoana. Ontan C.N.T.'koak zeuden.

Ala, irurok, geneuzkan tiroai ongi kontu egiñez, an ari giñan.

Alako batez, or iritxi zaigu, asto txiki beltz batekin, beste mutil bat, bi kaja munizio astoaren gañean dituala. Orduan gure poza!

Jakiña zegoan, mutil ura, besteak alde egin da ikusi eta ala ere guregana etorria, nai eta nai ez balientea izango zala. Eta ala izaki.

Geroztik, Bizkai aldean eta abar, amaika aldiz makiña bat lekutan gertatu nintzan. Ikusi nituan balienteak, bañan aiek irurak baño balienteagorik iñor ere ez.

An jardun giñan, al genduan arte, gure aurrera azaltzen zana ankaz gora boteaz, txoria baño ere alaiago laurok.

Egun da sekula, dakitala beintzat, nik ez diot ez burura eta ez gorputzera tirorik tira iñori ere. Nere barrenak ez baitit iñor iltzerik agintzen.

Orduan ala asi nintzan eta Bizkaia'n ere berdin jarraitu nuan.



Bañan, ori ikusirik, nere lagun aiek onela esan zidaten:

— I, Alkain: ik anketara tiratzen diek. Tira iek burura, guk bezela, eta ez dek iñor ere inguratuko.

Onela, ango zainketa iru bat orduan egin genduan.

Besterik ez baitzan, eguerdi aldean atun-jatea egin genduan, laurok txandaka: bat jaten eta beste irurak tiroka.

Len esan bezela, ermita aldean *C.N.T.*'ko jende ori zegoan. Bañan, guri kasorik egin gabe, alde egin zuten.

Alako batez, «*¡Viva España! ¡Viva Cristo Rey!*» eta abar entzun genduan.

Trintxera-ixkiñara atera naiz eta or ikusten det sekulako rekete-pilla, beren bandera eta guzi, ermitatik gure aldera datozela.

Santio-mendi orrek zabal-leku bikaña baitu, guk oso zail geneukan andik bizirik irteten, eta arrunt ikaratu giñan noski.

Bañan, esaera dan bezela, iltzeak beste guziak erremedioa badute, eta estuasun artan ere zerbait bururatu zitzaigun.

— Pañuelo zuriak al dituzute? —galdetu nien.

Batek bai eta besteak ez. Bañan nik baneukan zuri-zuria, arrebak pardelan jarria. Artu eta fusil-muturrean jarri nuan, lagunai onela esanik:

— Aurretik ni irtengo nauk. Bañan, makur-makur, beti Astigarraga aldera egingo diat. Be-

rak, pañuelo zuri ori ikusita, berengana joango  
gerala usteko ditek. Asto beltz orrengana eun  
metro zeudek; eta, astoarengana allegatzean, ni  
munto orren atzean gelditu egingo nauk, eta  
zuek ere bai nere ondoan. Berak, or gelditu ge-  
rala pentsatuko ditek. Zuek, bitartean, arrasta-  
ka-arrastaka, muntoaren babesean, beste berro-  
gei metro inguru daukazute. Eta, zuek oiek pa-  
satzean, nik ere beste norabait alde egingo diat.

Esan bezela, nere lagun oiek, arrastaka eta  
al zuten bezela, abiatu eta joan ziran.

Asto beltzarekin etorri zana zauritua ze-  
goan; bañan ura ere bere oñez joan zan.

Bitartean, ni begiraka asto beltzaren eta  
muntoaren atzetik, nere fusil pañuelo zuri du-  
nari eragiñez.

Besteak joanak zirala ikusirik, onela esan  
nion nere buruari:

— Munto onek etsaiaren aldera jarraitzen  
dik; eta, besteak alde egin dutela eta ni emen  
gelditu naizela ikusirik, pañueloarekin gurutze-  
seña egiñik munto oni segitzen badiot, beren  
aldera nijoala pentsatuko ditek. Bañan, sagasti  
ortaraño allegatzen naizenean, tximista bezela  
alde egingo diet.

Ala pentsatu eta ala egin. Berak onela esa-  
ten zidaten:

— *Miliciano, entrégate. Serás respetado. No  
te apures. Nosotros no matamos a nadie.*

Oiek danak entzun nituan; bañan nik sagas-  
ti-ingurua arrapatu nai, beren alderdira ninjoa-  
la itxura egiñez.

Eta, sagasti-parera allegatu nintzanean, an ziak Iñaki tximista baño azkarrago, bere fusil, pañuelo zuri eta astoak bizkarrean zeukan eskopeta berri-berri batekin. Laister ziran atzetik oju-marruak:

—*¡Cabrón! ¡Hijo de puta! ¡Nos has engañado!*

Eta abar eta abar, Bañan, aiek gogoratzera-ko, nik irureun metro eta geiago korrika egin nituan, eta ez ninduten geiago ikusi.

Orduan, gutxienez, eun bat tiro alper-alperrik tira zituzten.

Sagasti artan sagar ederrik bazegoan eta aiek joko zituzten. Adar-tartean tiro-zalaparta ederrik bazan beintzat.

Nere estuasun artan korrika asko egin bainuan eta egun guzian tiroka jardun bainintzan, jakiña, egarririk nengoa.

Astigarraga'ko plazara jetxi eta ango eskalaretan or ikusten det izugarrizko sagardo-botilla-illara jarria.

Arriturik gelditu nintzan, eta nere buruari onela esan nion:

— Auek emen jarri dituanak, etziken etsaiak Santio-mendi artzerik nai, eta danak netretzat utziak dizkik.

Bañan bakar bat edateko abildadea izan nuan, eta ez geiago. Nere egarriarekin, bakar ura bi tragotan ustua nuala uste det.

Bañan sabela atun-jatez eta polboraz lendik zikindua bainean, an ziran tiroak eta lañoak!

Berealaxe asi zitzaidan sabela, filarmonika bezela kirrika eta karraka.

Kotxeretara baño lenago arta-soro bat baze-goan, eta ez nintzan nai ordurako ara iritxi, nere galtzak askatzera.

Andik irten eta banoa Ergobia aldera. Bañan, ara allegatu baño len, ostera arta-tartera.

Aiek izan ziran, Santio-mendi'k eman zizkidan erregaloak.

Noizbait ere allegatu naiz Ergobi'ko estanko ondora; eta an, bertakoak nere aitaren lengusu txiki izanik, Otaño'tarrak izenez, ordu erdi inguru egin nuan.

Baita bertso-pare bat-edo kantatu. Etziran alaitasunezkoak izango eta bertako nagusi eta amonak negarrez jarri nituan. Eta, ni negar-zalea ez izanik, egiñalak egin nituan gero, pozez uzteko.

Emendik abiatu eta bideko arta-soroetan sarrera bat edo beste egiñik, allegatu naiz noizbait ere Ernani'ra (1).

---

(1) «El 12 (de setiembre) se ocupa Santiagomendi, no sin librarse combates muy violentos (113), culminando así un amplísimo movimiento...» (José Manuel Martínez Bande: *La guerra en el Norte*, 83 orri-aldean.

(113) *Bajas propias*, 40.

## ERNANI

Santio-mendi'ko nere iru lagunak, ordurako esana zuten ni an goien gelditua nintzala. Danak, illa edo prisionero izango nintzala uste zuten; eta, bizirik ikusita, jakiña, asko poztu ziran. Geien-geiena, Roke Lasarte gure kapitana. Jaun onek bereala onela dit:

— Motell, irekin zerbait kontatzen diat. Emendik aurrera, nai badek, kabo-galoiak jantzi itzak.

Ez naiz gogoratzen, bein ere jantzi eta ibilli nituanik.

Urrena, onela dit Roke Lasarte orrek:

— Utzi itzak fusil, eskopeta eta kartutxera oiek, eldu iok pistola ametralladora oni ta goazemak.

Pentsa besterik ez dago, zer gogo edukiko nuan orduan iñora joateko. Ala ere joan egin nintzan. Astigarraga'ko sagardoaren gaizki egiñak joanak neuzkan. Kapitanak kopa bat koñak eman zidan eta bereala berpiztu nintzan.

Irten gera komentu edo kuartel ortatik, eta, kale nagusian betik gora goazela, onela galdetu diot kapitanari:

— Zu, Roke: zertara goazen jakin al liteke?

— Bai, motell. Bereala esango diat. *C.N.T.*'-ko jende txoro orrek Santa Barbara aldean ez ditek ezer egin; bañan orain, Ernani'ko eliza eta abar kixkali nai omen ditek.

— Orain jakiñaren gañean negok eta lagun-duko diat.

Ernani'ko elizara sartu giñan eta ordurako su ematen asiak zeuden. Oju au egin genduan indar aundiz:

— *¡Alto!*

Bat an ari zan, makurtuta, aldare-inguruko alfonbra bati su eman eziñik. Beste alfonbra batzuk bazeuden emanak; bañan artean sua indarrrik gabe.

Zertan ari zan ikusi nuanean, joan naiz ixil-ixilik atzetik, nere ezkerreko anka motz onekin jo det ipurdian, eta ez dakit zenbat bidean joan zan arrastaka.

Orrek pistola ametralladora zeukan, eta kendu egin nion. Eta an ziran guziaz, zituzten arma danak kendu genizkien Roke Lasarte eta biok. Armak ain errez uzten zituztela ikusirik, onela esan genduan:

— Au jende aula dek. Auei errexa zegok, bizkarrean daramazkiten fusillak eta armamentoak kentzen.

Beste gure lagun batzuk ere etorri ziran, eta danok kalerik-kale jende-klase orri armamentoa kentzen asi giñan. Kamioikada bat laister bete zan egun artan gure partidurako.

Gerraren asieran ainbat izatera, Ernani'n lan artan ibilli bearrik ez genduan. Ordutik asi giñan jabetasuna geren eskuz artzen. Lendik artu izan balitz, ez det uste gaur onela egongo giñakenik.

Beste gauza batez ere orduantxe konturatu nintzan: bi lagunek indar ikaragarria dutela, alkar ondo artu eta ausardiarekin badijoaz. Bañan azkenerako bere azio koxkorra egin zuan jende orrek, ume batek ere egingo lukeana. *Tilo*'ko plazaren atzeko aldean apaiz-etxe bat zan. Izenik une ontan ez daukat gogoan. Bañan, gu akordatu gabe, su eman zioten eta erre.

Beste gañerakoan, Ernani guzia zutik, oso-osorik eta garbi-garbirik utzi genduan.

Illunabarra neretzat oso gogaikarria izan zan. Nik banekian urrengo egunean Donostia artua izango zala, eta Ernani'ko erria bereala utzi bearra geneukala ere bai.

Gure arteko lagun batzuek naiko duda eta kezka bazeukaten, aurrera joango ote ziran ala bertan gelditu. Onela zioten:

— Au ikusia zegok. Eta guk, nik eta onek, emen gelditzea erabaki diagu.

Nik, orduan, guzientzako erantzunbide bakarra izaten nuan:

— Motellak norbere buruarekin norberak

agintzen dik. Bañan ordu zail auetan ikusten da bakoitza zenbaterañoakoa dan.

Nik, Santio-mendi'tik eskopeta berri-berria ekarri bainuan, eta gure kuartel edo komentu artan zegoan jaun batek bere oe ondoko mesanotxea kartutxoz betea zeukala bainekian, zaku batean artu eta kendu egin nizkion.

Jaun ura ere etsaiari besoak zabaltzera zijoan, eta etzeukan kartutxo bearrik. Gu, berriz, premian genbiltzan.

Zaku ori artu eta, nerekin batera, Donosti'ra joan bear genduan autobusera sartu nuan. Eta exeri bezin laister, lo gelditu nintzan.

Ala, lo nengoala, nunbait ere jaun arek kartutxoak nik artu nituala jakin zuan, eta alako batez or entzuten det:

— Alkain! Alkain!

Esnaturik, galdetzen det:

— Zer da?

Autobusaren leiora inguratu eta onela dit:

— Zuk artu al didazu mesanotxetik, neukan kartutxo-pilla?

— Bai, jauna. Eta zergatik ez?

— Eta, zuk kartutxo oiek artuta, guk estuasun batean zer egin bear degu?

— Jauna, amabost egun ontan ez dezu ezereen estuasunik izan. Eta, gurekin etortzen bazera, zainduko zaitugu orain arte bezela.

Eta ixil-ixilik joan zan.



## DONOSTIA

Donosti'ra goizeko irurak inguruan allegatu giñan, eta, gure kuartela an baitzegoan, San Bartolome kalean gelditu.

Batzuk an sartu ziran; bañan besteak kale-rik kale asi giñan.

C.N.T.'koak an zebiltzan relojeri eta eskapare ederrenetan lapurretak egiten; eta, Ernani'n bezala, berdin-berdin egin genduan Donostia'n ere: berak zituzten arma guziak kendurik, aurrera bialdu Zarautz aldera.

Ori izandu zan Donosti'ko gure ordu gutxi-ko eginkizuna. Eskerrik askorik ez bada izan ere, orrela egin genduan.

Nere erriko guardi-laguna, Rafael Barkaiztegi, gerrietako miñez jarrita, Barrio Gros'en, zein kaletan ez naiz gogoratzen, bere izeben etxean zegoan.

Nere lagunekin bisita egitera joan nintzan, beraren asmo jakitearren: andik irten nai zuan edo etzuan.

Kaleko atean deiturik, balkoiera irten zitzaidan, bere aitarekin.

Ondo al zegoan galdetu nion, eta erantzun au eman zidan:

— Oraindik ez negok ondo.

— Bueno, Rafael: ondo ez egon arren, gurekin etorri nai badek, denbora daukak. Gurekin etorrita ere, or bezelaxe sendatuko intzake.

Bere aitak orduan onela erabaki zuan:

— Nere semea emen gelditzen da, eta zoazte zuek aurrera pake-pakean. Nik ere lagun bat bear det, zuek bezelaxe.

Obeko zuten gurekin etorri izan balira, biak afusillatu baitzituzten. Ori izugarria izan zan.

Izketaldi ori egiten ari giñala, or entzuten ditugu Miracruz gañetik goitik beera «*¡Viva Cristo Rey! ¡Viva España!*» oju egiñaz, sekulako zarata-otsarekin datozela.

An egoterik etzegoala ikusirik, geren koxean sartu eta alik azkarren Orio aldera. Rafael Barkaiztegi orren anai bat genduan txofer. Juan zuan izena.

Oraindik gogoan daukat, bidean zer kantatu genduan. Ernani'n gurekin izan zan frantzes bategen erakutsi zigun. Zer esan nai duan ez dakit, bañan onela zan:

*Opa, kamara, opa,  
opa, opa, opa,  
opa, kamara, opa,  
opa, opa, opa (1).*

Gero aztu ziran *opa opa* danak ederki. Kanpotik alai, bañan barrendik zakurra baño tristeago.

Erderaz *a mal tiempo buena cara* esaten da. Euskeraz, berriz, onela pentsatzen nuan nere artean, eta lagunai ere esaten nien:

— Eguraldi txarraren ondorenean, ona izaten dek. Eta txarra igarotzen ez dakianak, onik ez dik izango.

Orio'ra allegatu gera. Ango Juanito Altuna'k taberna zeukan; bañan berez arotza zan eta gure baserrian sagardo-tolareak egiten jarduna.

Jakiña, bisita egin bear, eta joan gera beraren tabernara.

Irten zaigu nagusi jaun ori eta onela dit:

— Zu, Iñaki, zatoz sukaldera pixka bat.

Joan naiz sukaldera eta esaten dit:

— Iñaki, gerra au galdua zegok eta gelditu adi emen.

Onela erantzun nion:

— Ez, Juan, ez. Zuk gure aita ezagutzen dezu ongi, eta atzo, etxetik irteterakoan, onela esan zidan: «Joaten aizen lekura joaten aizela, ez adilla beñ ere kobardea izan. Gaur edo bigar kobarde izan aizela entzutea baño, naiago diat il aizela entzutea». Orregatik, Bilbao galdu arte, egiñalak egingo ditut. Eta millaka esker zure borondate onagatik.

Gazta-puska bat ogi eta ardo zarrarekin jan genduala badakit.

Eta berriro ere, Zarautz'tik barrena Zestua'-  
-ra arte, *Opa, kamara* kantatzen joan giñan. Eta  
Zestua'tik Azpeiti'ko Loiola'ra.

Gure egun ura orrela joan zan.

---

(1) Frantzesez idatzita: *Au pas, camarade, au pas...*

## URKIZU

Azpeiti'ko Loiola'ko komentuan kuartelera-tu gera. Bi egunean emen egonik, ogei ta amabost bat lagun Andazarrate'ko gañera irten giñan. Or iru egun egin genituan.

Andik beera, Asteasu aldera, ermita bat dago, mendi-ttonktor batean. Santa Marina izena duala uste det. An ere izan giñan.

Gain ontatik ere zer egin asko ikusten zan, Donosti eta Tolosa aldera begiratuta. Bañan alperrik. Gu beti otzak.

Onak bai, bañan otzak. Eta orrela ezin erakutsi ortzak. Eta gerran, ortzik erakusten ez bada, etsaia laister asiko da lañezten.

Gero bai; gero asi giñan gerra gogor egiten, bañan berandu. Etsaia indarrez jantzia.

Lagun prestu eta balienteak baziran gure artean. Asko gañera. Bañan kobardeak ere bai. Olakoak, mesederik batere ez eta kalte aundia egiten dute. Roke Lasarte gure kapitanak oietako bi andik bialdu zituan, onela esanaz:

— Zuek biok badakit euskaldun jatorrak zeratela, bañan ia orain arte amatxori bularra edaten jardun zeratenak; eta emen, «Ai, ama!» esanda, ez dago ezertxo ere. Orregatik, Bilbao'-ra joan eta egon an zai eta pakean.

Andik, ostera Loiola'ko kuartelera eraman gaituzte. Emen itxogiten eta deskantsatzen egun bat igarorik, urrengo egunean irten gera, gure kapitan Roke Lasarte'ren aginduz, Bidani'ko errira (1).

Une onetan ez naiz gogoratzen zer egun zan, bañan agorraren erdi ingurua zala badakit; eta egunsentian allegatu giñala ere bai, eta ordurako izotza zuri-zuri zegoala ere bai. Auek danak begien aurrean dauzkat.

Joan eta bereala, Roke Lasarte kapitanak, Jose Berakoetxea, Balentin Olazagirre, Juanito ..... (2) eta ni, Santutxo'ko tabernara bialdu ginduan, onela esanaz:

— Lan zail xamarra jartzen dizuet; bañan bazekiat zuek nere agindua zuzen egingo didazutela.

Eta onela izan genduan agindua:

— Aurrena, Santutxo'ko nagusia artu bear dezute, txukun-txukun itzegiñaz, karlista izan bear dik eta. Aren etxe atzean dagoan mendiaren gañean, egun asko ez ditek izan bear reketeak egonak dirala. Oraindik an dauden edo ez, nagusi orrek jakingo dik. Ea, poliki-poliki arturik, enteratzen zeraten. Gero, reketerik ez badago, ea mendigain ortan zut-zutik jartzen

zeraten, artilleriari laguntzeko. Gu, Ernio'ko egaletik, Tolosa'ko Urkizu ballara artzera joango gera.

Urkizu ballara au, Albiztur eta Tolosa'ren gain-gaiñean dago. Oso toki polita da. Oll oak arraultz asko egiteko leku alaia benetan. Dandana kare-arkaitz gainean dago. Ganaduarentzat ere, oso leku atsegiña benetan. Eta, ganaduarentzat ona danean, gizonarentzat ere ez da txarra izango.

Eta egun ortan bazirudian danentzako ona zala. Asieran ala gertatu zan beintzat.

Guk oso egoki egin genduan geren egitekoa. **Artu genduan Santutxo'ko** nagusia txukun-txukun, agindua genduan bezela, eta bera pozik prestatu zitzaigun bidea erakustera eta danetara. Nik oraindik ez dakit karlista zan edo zer zan. Bakarrik, guretzat oso gizon lagunkorra izan zala benetan. Besterik ez.

Gizon orrek mendi guzia erakutsi digu. Jetxi da bera etxera, eta gu an gelditu gera mendiaren gainean.

Reketeak aurreko egunetan egondako lekua, garo tartetik joanda arkitu genduan. Baita *Diario de Navarra* periodiko bat ere, eta beste zer edo zer ere bai.

**Artilleri gurea Santutxo'ko** atarian jartzeko, gure zai zeuden artilleroak, Urkizu ballara orri tiroka asteko. Deia eta abixoa eman genien, bereala jarri eta tiratzen asteko. Segituan asi ziran (3).

Lau kañoi ziran, zazpi t'erdikoak. Bañan kañoiketa ederra egin zuten denbora gutxian.

Guk, geunden mendi gañetik, morserekin erakusten genien nora eta nola tira. Ordurako zerbait ikasia genduan morse ori.

Guretarrak mendi-egalean aurrera nola zijoa-zen ikusten genduan; eta, aiek aurrera egiten zuten añean, artilleriak ere aurrera tira bear.

Guzia oso ederki egin zan. Urkizu ori artzen, alde danetara, iru bat ordu; Santutxo'ko ataritik kañoiak asi eta ordu t'erdiren bat.

Bañan artu eta ostera uzten ere, etzan askoz geiago izango. Bi atzera-aurrerak laister egiñak ziran arraiotan.

Etsaiak bereala prestatu ziran kontraatakea emateko, Albiztur alde ortatik. Bazirudian aurretik jakiñaren gañean zeudela, berriz ekiteko. Asko esatea izango da, bañan ala ematen zuan.

Gure kapitana, Urkizu artutakoan guregana etortzekotan gelditua zan.

Gu geunden mendigaña, Alegi eta Tolosa bitartean dago. Orduantxe etzegoan zalla kamio jenerala gora eta beera ixten. Bañan gu, geren kapitana Urkizu gañetik noiz allegatuko zitzai- gun zai egon giñan. Katalejoak ere bagenituan. Aiekin, Urkizu aldera begira geunden. Urkizu artu eta laister, bi lagun goitik beera ikusi genituan, eta orduan onela esan genduan:

— Kapitana bazetorrek guregana.

Eta an geunden pozik, noiz agertuko ote zan. Bañan alperrik. Andik bereala, len esan be-



zela, etsaiak kontraatea asi zuten, eta orduan esan genduan:

— Gure kapitana, ostera bere mutilletara biurtuko uan.

Gauzak itxura ori zekarren. Onela, gu mendigain ortan gelditu giñan, kañoiak Santutxo'ko etxe ondoan zaindurik, alik eta gureak Urkizu ballara galdu zuten artean.

Eguerdiko amabiak inguruan asi zan kontraatea. Gure kañoiak, guk erakutsita, ongi asko tiratzen zuten. Etsaiarentzat etsairik aundiena kañoi aiek izan ziran. Gure lagunak bereala asi baitziran atzera egiten.

Gu oso arriturik geunden, len ain egoki artutakoa orren errex nola uzten zuten begiraka. Nik, gauza onik ez nuan an ikusten eta nere lagunai onela esan nien:

— Motellak, ezer etzekiat; bañan, nere iritiz, kapitanari zerbait pasa zaiok. Bestela, ezin litekek Urkizu orren errex uztea. Orrelakoren bat bear dik izan. Ez diat entenitzen bestela.

Guziok ortan gelditu giñan. Ala, beintzat, gure lagunak Urkizu utzia zutela ikusirik, eta artilleria orduan leku txarrean arkitzen zala, au ere Bidani'ko errira atzeratu zan.

Bitartean, gu an gelditu giñan, gure lagunak ea noraño atzeratzen ziran ikusten eta mendigain ura zaintzen.

Gure lagunak, Pabiano tratantearen baserri gañetik asi ziran Urkizu aldera joaten; eta ge-

ro, onuntzean, leku au ere atzean utzi zuten. Danak, estu eta larri, Bidani aldera.

Guk, guzi-guzia ikusten genduan. Alaz guztiaz ere, illunbista artean antxe egon giñan, etsaiak nun gelditzen ziran begiraka, urrengo egunerako. Eta etsaia, goizean zegoan leku berean gelditu zan.

Ura dana ikusirik, onena Bidani'ra joatea izango zala pentsatu genduan, gure lagunai zer pasa zitzaien jakitearren.

Aurrena Santutxo'ra jetxirik eta, gurekin ondo portatu zalako, ango nagusiari eskerrak emanik, or joan gera Bidani'ra.

Asi giñan bata eta besteari galdezka, eta gure kapitan Roke Lasarte falta zala. Iñork ere etzigun aztarren fulamentuzkorik ematen.

Bere asistentea artu nuan, eta onek, goitikan beera Santutxo aldera abiatu zala esan zidan, bañan andik aurrera berak ezer etzekiala.

Nik orduan esan nion:

— Ni arritzen nauena, au dek: Urkizu artzean guregana jetxiko zala, goizean erorren bistan esan ziguk. Ura, guregana etortzeko asmotan abiatuko uan Urkizu'tik goitik beera. Eta, iaren asistente izanik, ez al dik berarekin etortzeko esan?

Erantzun zidan:

— Bai, aurrena ori esan zidak. Bañan, goitik beera abiatu eta bereala, pixka batean itxogiteko esan zidak. Itxogiten nagoala, or ikusi dizkiat reketeak betik gora datozela. Ni, or-

duan, nere lagunetara igo nauk. Ortik aurrera etzekiat ezertxo ere.

Onela, beste ezer jakin gabe gelditu giñan. Arritzeko gora-bera izan zan benetan. Bañan gure kapitan jatorra an galdu zan nola edo ala. Geiago azaldu ez baitzan. Nunbait ere, arkaitz-tarteren batean geldituko zan gizagajoa.

Naigabe ederra izan zan gure artean illunabar artan, ainbesteko gizon prestu bat era artan galduta.

Beste bi edo iru lagun ere baziran galduak.

Gau artan, geienak Muñoa'tarren palazioan egin genduan lo. Nik, beintzat, ango sala eder bateko silloi batean.

Ura bezin koltxoi ederrik ez det askotan arkitu. Bañan nik ezin lo egin, naiz eta silloi ederra izaki azpian. Izan ere, kapitanaren fulamentua ikusita, nork lo artu? Ez beintzat ura maite zutenak.

Bañan nik sentitzen nituan zurrungaka lasai asko lotan zeudenak, ezer ere pasa ez balitz bezela (4).

---

(1) Iraillaren 18'garrena.

(2) Alkain'ek etzidan Juanito orren abizenik eman.

(3) Bertako baserritar batzuek esan zidatenez, kañoiak Santutxo'n ez; Isatse baserri ondoan jarri ziran. Isatse, Santutxo baño eun bat metro beeraxeago dago, kamio-bazterrean. Andikan aurrez-aurre ikusten da Urkizu; baita ere eskubitara, gaiñ-gaiñean, Iñaki eta bere lagunak izan ziran mendi-kaskoa, Intxorbi mendia alegia. Santutxo'tik, berriz, ez da ez bat eta ez bestea ikusten.

(4) *Euzkadi*, 1936-IX-19:

«LOS MENDIGOXALES TOMARON AYER LA OFENSIVA EN BIDANIA.

...Varios grupos de mendigoxales, divididos en pequeños destacamentos, atacaron por tres sitios distintos la posición de Urkizu. La fusilería entró en acción a media mañana.

La elevada moral de nuestras fuerzas trajo como consecuencia disminución en la del enemigo, observándose fácilmente que éste estaba desconcertado ante el empuje de nuestros bravos gudarís. Las piezas de artillería ligera que nuestras fuerzas tienen emplazadas en lugares convenientes batieron sin cesar a los rebeldes, introduciendo el desaliento en sus filas. En una acción conjunta y llevados de su ardor bélico, avanzaron los mendigoxales con ímpetu arrollador, y, animándose unos a otros con el grito de «Gora Euzkadi azkatuta», cargaron sobre el enemigo, haciendo gala de extraordinaria valentía. Nuestros valientes muchachos salieron en su persecución y sin darse cuenta sobrepasaron la posición de Urkizu, situada casi en término de Tolosa, pero ante las órdenes cursadas por sus jefes, que tuvieron en cuenta motivos estratégicos, se replegaron a sus posiciones anteriores.

En esta acción los mendigoxales se apoderaron de una ametralladora trípode, de cinco cajas de municiones y además de una caja llena de piezas de recambio para ametralladora...

...en Bidania (\*) encontraron nuestras fuerzas cinco cadáveres, que, sin duda, debido a la veloz huida que emprendieron los facciosos, no pudieron recoger. Pero vieron también cómo trasladaban sus compañeros a varios requetés heridos.»

Artu zutela bai, beraz; bañan egun berean atzera egin zutenik, ez du aitatu ere egiten.

---

(\*) *Urkizu* bearko luke, guk uste beintzat.

## ERNIO

Goizeko bostak inguruan jaiki gera. Etsaiak, esan bezela, bezperan Uikizu'n lengo lekuan geldituak ziran.

Orregatik, guk, bezperan atakea ematen asi giñan lekura ostera joan bear. Alaxen, Pabiano'ren baserrira igo giñan.

Baserri au Albiztur'ko partean dago. Baserri ontan, ni ordurako ezagutzen ninduten, eta ara nolatan:

Gure baserrira, ardiekin negua pasatzera, Amezqueta'ko artzai bat etortzen zan; Inazio Goñi izenak zituana, bañan Galartxei deitzen ziotena.

Artzai bikaña zan berez; emen inguruan artalderik ederrena zuana eta korrikalari iaio xamarra, gañera. Bazituan bi edo iru apostu, Aia'ko Txikiarekin jokatuak.

Artzai onek bere artzai-ibilketa onela egiten zuan: aurrena, Pabianoren baserrian illabete bat inguru; urrena, gure baserrira; emen

maiatza arte egoten zan, eta emendik Aralar mendiko barruti eta malloetara joaten zan. Urte askotan orrela ibilli zan artzai ori.

Eta, gure baserrira etortzerakoan, Pabiano'ko semeren bat ekartzen zuan, artaldeari bidean laguntzeko.

Allegatu gera, beraz, Pabiano baserri ortarra. Jakiña, bereala ezagutu ninduan bertako Rufino semeak, eta ez da zer esanik aien orduko poza. Sartu naiz nere lagun Jose Berakoetxea'rekin, eta etzekiten guretzat zer egin.

Bereala, beintzat, atera digute arraultza-pare bana urdai-azpiko ederrarekin, etxeko ogiarekin, eta ardo enbotellatua ere bai.

Bezperan goserik ibilli bagiñan ere, baserri ontan asekada ederra artu genduan denbora gutxian.

Gure lagunak baserri onen ondoko mendigañera igo ziran, an bezperan gelditu ziran lagunetara. Mendigain au lañoak arturik zegoan. Bañan lagunak bazekiten nun giñan geldituak; Pabiano baserrian bixita egiten, alegia.

Ordu bete inguru genduan etxe ontan geundela, eta, gazta ederra jaten ari gerala biok, orasi dira *pakun* tiro-otsak, inguru xamarrean gañera.

Nere laguna, sukaldeko leiotik saltatu zan kanpora. Ni, berriz, sartu giñan atetik atera nintzan, famili ura agurtuaz. Batzuek negarmalkoa zerioten. Ain ziran biotz onekoak.

Atera nintzan orduko, nere lagun Joxeri

deadar egin nion. Etzegoan urruti. Pago baten atzean gelditua zan, badaezpada ere nere irteera zaintzen.

Biok alkartu eta jo degu mendian gora, eta or arkitu degu lenengo Errazkin, Errenteria'koa, estu eta larri, onela esanaz:

— Uste gabean laño tartean sartu zaizkiguk. Gure lagun geienak korrika alde egin ditek. Nik ere mugitu bearra izan diat, bañan anka biurritu zaidak.

Onela ari gerala, or inguratu zaigu beste lagun bat, gure erri Urnieta'koa, Kaxiano Ezeiza, garai batean txirrindulari edo ziklista bikaña izana.

Errazkin al zuan lekura bialdurik, gu irurok gelditu giñan mendi artan.

Tarteka-tarteka lañoak alde egiten zuan, bañan bereala osterala lañotzen. Eta gu an, iru lagun bakarrik.

Gure lagunak, ametralladora aundi bat utzirik alde egin zuten, eta onela esan genduan:

— Laister alde egin bearko diagu, bañan ametralladora onek ez dik emen gelditu bear. Nolabait ere eraman bear diagu.

Ametralladora ori alemana zan, *Heinchel* edo orrelako izenen bat zuana. Eta oso ederra eta pisu aundikoa, bere anka eta guzi.

Alako batez, jo eta artu digu mendigaña lañoak, eta an ziran kontuak, etsaiak urruti etzebiltzala jakiñik.

Baserriko sukaldetik oju eta irrintziak entzunak geunden. Bañan orduan etziran mendigañera igotzen ausartu. Nunbait, beste saio baterako utzi zuten, eta Albiztur aldetik gordeta zeuden.

Laño-kolpe orrekin batera, or asi zaizkigu oju eta marruka alde guzietatik, «*¡Viva Cristo Rey! ¡Viva España!*» eta abar deadar egiñaz.

Gu, orduan, an egoterik etzegoala ikusirik, armak eta ametralladora aundi ura artu eta larri-larri Pabiano baserri ingurura jetxi giñan.

Onen ingurutik laño artera tiroka ekin genion, eta bai ixildu ere azkar asko deadar-otsak.

Orduan, ixil-aldi ura aprobetxatuaz, Zelatun aldera jo genduan. Bañan lenbiziko mendigañean gelditu gera eta ametralladora aundi ura kaxko batean jarri degu.

Lañoak alde egiñik batera, or ekiten diegu *ta-ta-ta-ta-ta-ta* berak orduantxe artutako mendigañari. Laister izkutatu ziran atzeko egalera.

Andik laister, ostera jo digu lañoak, eta Joxe nere lagunak onela dit:

— Iñaki, ez al diagu obe izango gorago igotzea?

— Zer bada, Joxe?

— Oiek asko dituk eta gu iru bakarrik.

— Bazekiat iru bakarrik gerala; bañan oraindik beste iru peine bazeuzkagu, eta auek tira arte nik beintzat onik etzedukat. Auek gatatutakoan joango gaituk.



Berriz ere alde egin du lañoak, eta gure sa-soia orduantxe! Ederki asko ikusi genduan, aiek zenbat bear zuten kuxkurtzeko.

Ogei bat lagun naiko muniziorekin izan ba-giña, etzuten, ez, egun artan artuko ez Bidani, ez Goiatz eta ez Errezil. Bañan gu iru bakarrik izaki, eta munizio gutxirekin gañera.

Azkeneko iru peineak laister tira eta kixkali nituan, beintzat, irugarrengo saio artan; bañan ala ere fusillarekin jardun giñan.

Ostera, alako batez, lañoa sartu zaigu, eta geren ametralladora eta guzi Zelatun gañera igotzea erabaki degu.

Alaxe igo giñan, eta an arkitu genituan gure lagun baliente aiek, patxara ederrean, jaten geienak gañera.

Gu aietara allegatu orduko, bereala zarataka asi ziran, eta batek onela esan zuan:

— Auek etorri dituk eta etsaiak ez dizkiagu oso urruti izango.

Baita ere azkar alde egin Azpeiti aldera danak. Bagenituan lepotik eldu eta ibillitakoak, an gurekin gelditzearren. Bañan alperrik. Aiei, labana sartuta ere, etzitzaien odolik aterako. Bai jende otza!

Aiek danak alde eginda, iru erritarrok bakarrik gelditu giñan Zelatun'en.

Ederki asko ikusten genduan, etsaiak Bidani'ko Trintxera'tik asi eta Errezil aldera nola zetozen. Goiatz aldetik ere bazijoazen. Milla pare bat soldadu izango ziran.

Alaz ta guztiaz ere, lañoa tarteka-tarteka joanik, tiroka asten giñan geren italiano fusi-llakin, eta etsai guztiak dantzan jartzen genituan. Kamio-baztarrera azkar asko sakabanatzen ziran. Ori ikusirik, onela esaten genion alkarri:

— Motellak, oiek gu baño ere aulagoak dituk.

Errezil'ko sarrera ederki ikusi genduan, laño-tarte batean. Eta guk erantzuna tiroka eman genien (1).

Illunbista zala, or etorri zaizkigu bederatzi edo amar lagun, Saseta jauna buru dutela.

Saseta au berez arabarra zan, militarra gañera, eta asko zekiana.

Bereala, lengo jende-pilla nun zan galdetu zigun.

Gu irurok ez beste guziak alde egin zutela erantzun genion, eta bazirudiala kale-zuloan entxufeia nai zutela.

Saseta jaun orrek euskeraz gutxi zekian, bañan arrazoi sakon au eman zigun erderaz:

— *Todas las guerras tienen un día en que se acaban los enchufes, y ésta también lo tendrá.*

Ondoren, onela agindu zigun :

— *Vosotros, quedaos aquí hasta que conquisten Andazarrate. Nosotros, vamos allá.*

Ori esanik, Saseta jaun ori, berak zuan talde arekin, Andazarrate aldera joan zan.

Gu irurok antxe gelditu giñan; bañan ez la-sai. Bi lagun, guardi egiten txabola barrendik.

Bestea, batera eta bestera zeletaka. Jakiña, zele-leta egiteko iaioena mendikoa dana izaten da berez, eta ni nintzan zeleteroa.

Zelatan'go txabolatik Andazarrate aldera irteten nintzan, zer mobimentu ikusten zan begirapena egitera.

Tirorik ez nuan entzuten. Bakarrik, kamioan betik gora eta goitik beera zebiltzan automobillen argiak ikusten nituan.

Onela esan nien nere lagunai:

— Motellak, Andazarrate utzi ditek eta goazemazute emendik, larrez-larre eta erreka-zuloz, Arrua'ko bide-gurutzera.

Ni, ordurako, alderdi aietan zerbait ibillita nengoan. Bañan ez gauzez eta euritan; eguraldi ederrez baizik.

Irurok, busti-busti egiñik, an pasa giñan Granada deritzaion errota ondotik; obeto esateko, nere lagun Basarriren jaiotetxe ondotik.

Ez giñan, guk nai genduan lekura, nai ordurako allegatu.

Guretako bat, Jose Berakoetxea, Arrua'ko bide-gurutze artatik Zumai aldera joan zan, autobus batean sartuta.

Gu, berriz, oñez Zestua aldera, nere lagunak Azpeiti'ko Loiola'n bere motoa utzia zuan eta ura artzera.

Zestua'ra allegatu giñanean, egunsentia zan. C. N. T.'koak an zebiltzan, azken agurra egiten.

Gu, bere automobilla baztarretik atera ezi-

ñik zegoan txofer batekin gertatu giñan. Bakarririk ezin zuala eta laguntza eskatu zigun. Eta Loiola'ra joan bear zuala, eta guk ura bear.

Ala, laguntza egiñik, atera degu automobil ori, eta poz-pozik joan giñan Loiola'raño (2).

---

(1) Errezill'en esan zigutenez, Zelatun'go tiroak eriotz bakarra egin zuten: baserri bateko astoarena.

(2) *Euzkadi*, 1936-IX-20.

«Loyola (doce noche, por teléfono).

*La intensidad de los ataques del enemigo y el cansancio físico de nuestros bravos gudaris, agotados como consecuencia de la dureza de la lucha que vienen sosteniendo con el mayor entusiasmo, trajo como resultado que los rebeldes pudieran apoderarse de otro pedazo del territorio de Gipuzkoa.*

*Varios pueblecitos cayeron en su poder, algunos de los cuales lo habían estado anteriormente y fueron rescatados por los mendigoxales, pasando de nuestra zona de dominación a la suya. Resistió nuestra gente bravamente y procuró defender sus posiciones, como lo ha venido haciendo desde hace tiempo.*

*En el sector de Vidania atacó el enemigo desde las primeras horas de la mañana, empleando cañones, ametralladoras y autos orugas, elementos bélicos que apoyaban a sus fusileros. Nuestras tropas le dieron la réplica adecuada y resistieron durante largo rato el empuje de los facciosos. Pero como estos intensificaron sus esfuerzos aumentando el número de combatientes, bien a su pesar, aunque hicieron gala de su coraje y entusiasmo, se vieron precisados a desalojar sus posiciones y retirarse. De esta forma cayeron en poder del enemigo, que resultó muy castigado y sufrió gran número de bajas, los pueblecitos de Bidania, Erregil, Beizama y Goyatz.»*

\* \* \*

J. M. Arrarás: *Historia de la Cruzada Española*, VII, 265:

«El día 19 de setiembre, las dos vías aludidas (\*) presentaban un aspecto desusado. Filas de camiones y de automóviles ligeros conducían hacia el Oeste grupos de soldados que llenaban el aire de canciones. Orio, Zarauz, Zumaya, Guetaria (patria de Juan Sebastián Elcano), Régil, Azcoitia, Azpeitia, eran ocupados sin disparar un tiro. El repliegue de los milicianos había sido tan rápido que no conseguían los nacionales tomar contacto con ellos en ningún punto del frente.»

(\*) Tolosa, Errezil, Azpeitia eta Orio, Zarautz, Deba.

\* \* \*

Saseta, Asturias'en il zan, 1937'eko Otsaillean.

Asturianoak atakea jo zuten, Oviedo artu naiean; beren iriburua Aranda jeneralaren mendetik atera asmotan alegia.

Aiei laguntzera, bi batalloi-edo joan ziran Bilbao'tik, Saseta'k buru egiten zuala.

Il-berria ematerakoan, Otsaillaren 24'an, *Euzkadi* egunkariak aren goralpenak egin zituan.

Beste gauza askoren artean, Ernio mendian nola ibilli zan aitutzen zuan:

«Recordamos que en los primeros tiempos se mostró como un consumado estratega, en ocasión de que un destacamento de las milicias vascas quedó situado en el Ernio entre dos columnas enemigas. Se movió hábilmente entre el cúmulo de montañas, y día y medio más tarde apareció con su destacamento, con su gesto habitual, con su aire de hombre sencillo y bueno.»

\* \* \*

Andik bi egunera, 1937-II-26'an, *Euzkadi* egunkari ori bera, Saseta'ri buruz ostera mintzatu zan, Andima de Orueta'k firmatutako idazki luze batean.

Jaun orrek dionez, berrogei ta amar gizonekin, burruka gogor bat egin omen zuan Errezill'en nazionalen aurka. Bertan esan digutenez, auek tirorik gabe sartu ziran, aurrean kontrariorik arkitu ez eta.

Orueta orrek jarraitzen duanez, Errezil'dik Ernio aldera igo zan Saseta amar mutillekin.

Eta andik, al zuten bezela, Zestua'n azaldu omen ziran bigaramonean, eguerdi aldera.

\* \* \*

*Eguna* egunkariak, 1937-II-28'an, *Saseta* izeneko idazlan batean, onela zion:

«Berdin, Bidani'ko mendietatik izkillurik gabe nekatuak eta zanpatuak gure gudari-anaiak Errexil'ko ateetan arkitu genituanean eta bala eta odei beltz artean Ernio-rantz abitu gintzaizkizunean...»

Idazlanaren firmatzalle: *Euskalduna*'ko gudari bat.

## MOTRIKU, ONDARROA, GERNIKA

Nere lagunak, Loiola'tik bere motoarekin alde egin zuan.

Ni, berriz, an gelditu nintzan Lander Etxaniz'en kamioia kargatzen, eta, bukatutakoan, Saturraran aldera abiatu giñan.

Bañan Motriku'ko sarreran, Urnieta'ko mutil bat, Ramon Miner, topo egin genduan. Onela dit:

— Motell, emen al aiz? Atzo illunabar ezkeron emen natxiok ire zai, Pastor Añibarro'k jarria. Etorri bezin laister, berarengana agertzeko esan zidak. Olako lekutan familiko danak zeudek eta joan adi.

Nik erantzun nion:

— Motell, nola joango nauk, bada? Alde batetik, busti-bustia natxiok; eta, bestetik, bi gautan lo egin gabe. Nik, aurrena, erropak aldatu eta lo lasai egin bear diat. Arratsaldeko laurak inguruan agertuko naizela esaiok, eta bitartean egoteko lasai.

Erropak aldatu eta bazter batean lo egiñik, laurak inguruan agertu nintzan.

Len esan bezela, Pastor Añibarro ori gizon sonatua zan; eta, gañera, gure aitaren lengusu propioa eta nere anaiaren aitajauna. Oso aberatsa diruz.

Onela esan zidan:

— Iñaki, badakik bi trenkada armamento Pikabea'k eta biok Txekoeslobakia'n erosi eta frontera-ixkiñaraño, Endaia'raño, iritxiak zirala. Frantzi'ko gobernuak, Irun'go errira pasatzen galerazi ziguk. Goazemak, bada, gurekin Frantzi'ra, an ongi egongo gaituk eta.

Jaun ari onela erantzun nion:

— Zu, Luken: Frantzi'ko gobernuak bi trenkada oiek Endaia'n gelditu dituala? Orrek esan nai du, ez dirala Endaia'raño iritxi; geienaz ere, abiatu egin zirala baizik. Bestela, Irun galdu baño len bi trenkada oiek Endaia'ra allegatu izan balira, gaez illunpetan, ala edo ola, Irun'a sartuko ziran.

Berak onela esan zidan berriro:

— Iñaki, i oraindik gaztea aiz eta nere esana egin zak. Gerra au ikusia zegok eta goazemak gurekin Frantzi'ra, oso engañatuak gabiltzak eta.

Onela esan nion orduan:

— Etxetik irteterakoan, gaur edo bigar kobarde izan naizela entzutea baño, il naizela entzutea naiago lukela esan zidan neri aitak. Eta nere aitak ez du ni kobarde naizenik entzungo. Eta Frantzi'ra joateko nerekin ez kontatu.

Eta arek berriro:



— Bai, aitak ori esango zian; bañan gerra au joan dek.

Ordurako galdua zegoala esan nai zuan. Orduan nik esan nion:

— Baditeke, Luken. Bañan nik, Bilbao galdu arte ez det etsiko. Eta, bitartean, ez naiz iñora joango.

Eta antxe partitu giñan alkarrengandik: ni Saturraran'era, nere lagunetara; eta ura, kanoa batean, illunabarreko bederatzietan, Frantzi'ra iges.

Ari au bakarrik gertatu zitzaion: beti irabazten oitua egon, eta, bein galtzea gertatu zitzaionean, berealaxe etsi.

Bañan nigana borondate ona agertu zuan eta millaka esker berari.

Orduan askok alde egiteaz ni ez naiz batere arritzen, gerra negargarria baita. Bañan buru eginen zuten askok ori egitea, au bai ez detala nik ongi arkitzen. Bañan ala bearko du, egin zuten eta.

Ala, beintzat, lagun-sail bat, danok erritarak, Ondarroa'ra joan giñan, eta Gazaga'tarren etxean ostatuz jarri.

Famili jator oni bai biziaren erdia zor diotala. Zelatun aldean arrapatua, sekulako katarroa neukan, eta famili onek lagundu zidan sendatzen. Gazaga'tarrak, millaka esker.

Erri zoragarri ontan amabost bat egun egin genituan. Jatekoa, gerok erosi eta famili orrek

antolatzen zigun. Jatekoa eroatera, Lander Etxaniz bialtzen genduan.

San Migel ingurua zan, eta, amuko txipiroia asko baitzegoan, Etxaniz orrek egunero txipiroiak ekartzen zituan.

Eta Sebastian Garagorri'k, Urnieta'ko Karrikax deritzaion etxekoa bera eta, ni bezelaxe, artean bein ere txipiroirik jan etzuana, onela dio egun batez:

— I, Lander: gaur ere txipiroiak?

Onela erantzun zion:

—Sebastian, Karrikax'en askotan jaten al ituan?

Mutututa gelditu zan orduan Sebastian, arrazoirik etzuan eta.

Gazaga'tarren famili ortako Andre Bixentak, bertso batzuk erakutsi zizkidan, karlisten kontrakoak. Eta, karlistak beren txapel gorri aundiarekin geren etsaiak izanik, bai nik ere gustora ikasi.

Guziak sei izango zirala uste det, eta nik orain bi dauzkat buruan. Bañan danetan onentxoena izango ziran eta onela dituzu:

Gure Karlos erregez  
ondo gera oroitzen:  
Euskal-Errietan  
anaiak alkar iltzen,  
bera Durango'n bailerik baile  
neskatxak engañatzen...  
Gure lege zarrak  
esku onetan zebiltzen.

Osaba-illobak  
asarretu-papera  
ederki egin zuten  
guri jartzeko gerra:  
relijioa aotan artu  
eta mutillak iltzera.  
Karlista euskalduna,  
lotsatzen ez al zera?

Ondarrua'tik, nere gaitza sendaturik eta txi-  
piroi eder askorik janik, Gernika'ra joan giñan,  
agustinoen komentura. Au, abertzale alderdiak  
etxe guzia guretzat jarria zeukan.

Andoain'go nere lagun Etxeberria artean or-  
zebillen, gizagajoa, Berriatua eta Markina ingu-  
ru oietan. Bañan, agustino-komentu kuartel or-  
tan nengoala jakin zuanean, egun batez an azal-  
du zitzaidan, bere lagun sudur-luze batekin.

Nik artean ez nuan gizon ura ezertarako ere  
ezagutzen. Bañan, alkarketa egin genduanean,  
onela esan zidan:

— Alkain gaztea, zuk bearbada ez nazu ni  
ezagutuko. Bañan nik bai zu, bertsoan adituta.  
Badakit Etxeberria onen lagun aundia zerala. Au,  
Berriatua'ko mendigain oietan ezagutu det, eta  
onen esanean etorri naiz zuregana. Emen gauza  
bat egin bearrean gera: gure artean itxura uga-  
ri ikusi degu eta probetxurik gutxi; eta alka-  
rren artean konpañi bat osatu bear degula pen-  
tsatu degu, *Euskalduna* izena duana. Gurekin  
etortzeko konforme al zera?

Gizon aren jatortasuna ikusirik, ezeren kezkarik eta zalantzarik gabe, onela erantzun nion:

— Bai pozik!

Gizon ura Tolosa'koa zan. Urdiña deitzen zioten. Billarreal'ko burruka-aldian il zan. Gizagajoa, bere sudur luzearekin, on askoa zan.

Urdiña ori, il artean konpañi orren buru izan zan. Eta Etxeberria eta ni sarjento izendatu ginduan. Konpañi ortan danok gipuzkoararak giñan: andoaindar, tolosar, urnietar, ernaniar eta abar.

Konpañi ori osatzen ari giñala, nik agusti-noetako kuartel ortan lo egiten nuan.

Bañan, goizean beti goiz jeikitzen oitua-ta, goiz altxatzen nintzan etzan-lekutik.

Erria eta parajea ezagutzea beti pozgarri izan da neretzat; eta, egun batean, Gernika'ko kale batean ninjoala, goizeko zazpirak inguru ziran.

Ordurako banekian kafeteriak goizeko zazpiretan ateak zabaltzen zituztela; bañan ez nuan pentsatzen, iñolaz ere, nere bi adiskiderekin arkitzerik.

Bi adiskide auek, jaun naiko aurreratuak ziran euskaldun abertzale bezela; eta aietako bat, mitiñetan eta abar, izlari iaioa.

Kale berean beste aldetik ikusi nituanean, aiengana inguratu eta agurra onela eman nien:

— Egun on, jaunak.

Arriturik gelditu ziran ni ikusita, eta aietako batek onela dit:

— I garai ontan emen, Iñaki?

— Bai, jauna. Ni ere, etzan-lekutik jeiki eta emen nabil, zuen antzera, zerbait gauza onik arkitzen ote detan.

— Motell, Iñaki! Izugarritzko egoki agertu aiz. Etorri adi gurekin kafe artzera, eta alkarrekin egonalditxo bat egingo diagu.

Onela, bi adiskide oiekin sartu naiz, eta, mai ondoan exeririk eta kafea lasai artuaz, alako batez onela dit aietako batek:

— Iñaki, nai al dek gurekin Frantzi'ra joan? Gu, bigar joatekoak gaituk. Nai baldin badek, gurekin etorri adi.

Orduan nere erantzuna:

— Bejondaizuela! Zuek biok gaur arte buru eta maixu ibilli zerate, eta orain Frantzi'ra igesi? Nerekin orretarako ez kontatu. Etxetik irteerakoan, aita gureak onela esan zidan: «Gaur edo bigar kobarde izan aizela entzutea baño, naiago nitek il aizela entzutea». Eta gure aitak ez du nigatik ori entzungo. Jaunak, nik, Bilbao galdu arte, egiñalak egingo ditut. Lenago ere, beste jaun batekin joan besterik ez neukan. Ari ere, zuei bezelaxe esan nion. Norbera geran bezelakoak gera, eta zuek nai dezutena egin. Bañan neretzat paper txarra egingo dezute.

Orduan, aietako batek onela dit:

— Bai, Iñaki, gu bagiatxik. Neri aita afusillatu zidatek, anaia ere frentean nola edo ala il dek, eta ori neretzat disgusto aundia izan dek.

Onela erantzun nion:

— Bien, motell! Ik beintzat zerbait bada-  
kik. Bañan nik etzekiat ezertxo ere, gure aita  
il badute ere, bere alaba, seme eta guzi. Ala  
ere, il dituztela jakingo banu, orduan eta su-  
tsuago jarriko nindukek. Or konpon adi, ba-  
ñan nerekoak bukatu dituk.

Guretako batzuk zearo aulak agertu zira-  
la esan nai du onek. Toki errexean edozein ibil-  
tzen da ongi; bañan leku zallean ezagutzen da  
egiazkoa nor dan.

Bi jaun aiek Frantzi'ra joan eta bi egun ba-  
rru, bapore aundi bat fusil eta gerrarako bear  
ziran tresna eta armamentu geienakin Bilbao'n  
sartu eta ustuzan. Baita gu danok bereala on-  
gi asko aiekin jantzi ere.

Gogoaz zeukanak bazuan, beraz, naiko arma-  
mento. Bañan okerrik aundiena ori izan zan:  
mingañarekin esaten zana, biotzarekin ez sen-  
titzea.

Aspaldikoak gerala airo-arro esaten degu;  
bañan euskaldun itzak eskatzen dituan eginki-  
zunak egitea, bazterrera utzi.

Gu, berriz, andik egun batzutara, gure kon-  
pañi *Euskalduna* osaturik, frentera joan giñan,  
Basalgo mendira.

## BASALGO

Basalgo mendia, Bergara'tik Plazentzi'ra goazela, ezkerretara arkitzen da, Elgeta eta Eibar aldera.

Mendi ontan amabost bat egun egin genituan, len esan bezela, kapitan Tolosa'ko Urdirña genduala.

Or geundela, etsai aldetik bertsolari bat genduan, eta bein baño geiagotan alkarrekin bertsotan jardun giñan.

Berak esan zidanez, Amezqueta'koa zan, eta artzai ibiltzen zana. Eta ezagutzen ninduan, ni ordurako Amezqueta'n San Bartolome egun batez bertsotan izana bainintzan.

Nik ez nuan bera ezagutzen; eta, gañera, bildurragatik edo ez dakit zergatik, etzidan bein ere izen eta abizenik eman.

Gau batez, or tratua egin degu, urrengo gauerako, olako lekutan alkarrekin juntatu eta egonaldi bat egiteko, bera lagun batekin eta ni ere bai. Leku ori, bi trintxeren erdian zegoan.

Aiek, ardoa eta zer jana ekarriko zutela; eta guk, botella pattarra.

Nik, Tolosa'ko lagun bat artu nuan. Beltz-beltza zan eta Beltxa esaten genion. Azturik daukat izena nola zuan. Oso pizkorra zan (1).

Urrengo egunean, Urdiña zanari baimena eskatuta, joan gera agindutako ordurako, geren botella pattarrarekin, esandako lekura. Eta ez dakit zenbat denbora zai, asko beintzat, eta iñor azaldu ez. Etzioten nagusiak baimenik emango. Azalduko zan, bestela.

Etsaiaren trintxeratik berreun bat metrora alde geunden, eta, iñor azaltzen etzala ikusirik, etsaiarengandik pixka bat aldendu eta garo tar-teko lubaki-zulo batean sartu giñan.

Ordurako, nere lagun Beltxak idikia zuan botella pattarra, koñak Byass, eta or asi gera biok txandaka-txandaka botella ortatik edaten. Bai ederra zegoala!

Jakiña, bi edo iru trago egiñik, ni berealaxe jarri nintzan, erderaz esaten dan bezela, *inspirado*, eta onela ekiten diot bertsoan:

Gabon, bai, or zeraden  
euskaldun berezi,  
ixilik ezin neike  
nagon lekun bizi;  
etortzeko onuntza  
zuei galerazi,  
agur egiterikan  
ez dute merezi.



Nik bertso ori kantatuagatik, ez nuan pixka batean erantzunik izan, eta, jakiña, Beltxa eta biok beste trago bana botellari. Bañan alako batez or dator erantzuna:

Alkain gaztea, ez asarretu,  
ni ez naiz zure etsaia,  
esango dezu kontestatzeko  
bazala zerbait garaia.  
Gaurkoan beintzat ez digute utzi  
egiten nai degun naia,  
jakin beazu beti naizela  
artalde-mutil artzaia,  
ni juango nintzan pozikan baño  
asarre zan nagusia.

Amezketako zala, aurretik esana zidan; bañan artzai mutilla zanik, beñ ere etzidan artean esan. Andik aurrera, bertsoan artzaia deitu nion.

Gau artan ez genduan geiago kantatu. Bañan Beltxa eta biok jarraitu genion txandakako eginkizun ari, eta botella dana ustu artean ez genduan onik izan.

Eta orduan, batere gogoratu gabe, or lo artu degu. Etzan arritzekoa; arritzekoa, ez artzea izango zan.

Gaueko amabietan idiki genduan botella, eta urrengo amabietan esnatu nintzan, eguzkiak arpegira jotzen zidalako. Bestela, ez dakit noiz esnatuko nintzan. Eta nere laguna oraindik lo zegoan.

Onela esanaz esnatu nuan:

— Eguerdiko amabiak dituk. Oraintxe egin diagu ederra.

Gizagajoa ia marruz asi zitzaidan. Bañan egiña beti egiña izaten da, eta an etzegoan ezer marruarekin.

Andik nola edo ala irten egin bear. Zallazan, bañan estuasunean du gizonak burua argien, eta guri ere ederki argitu zitzaigun.

Garro tartetik, azaria bezela, an inguruko erreka batera joatea bururatu zitzaigun, eta andik, erreka-erreka, iñork ikusi gabe, gure lagunen atzeko aldera igoko giñala.

Alaxe egin genduan. Lenengo, Eibar'tik Elgeta'ra dijoan kamiora irten giñan; eta, urrena, andik gure lagunetara, arratsaldeko ordu-bietan.

Gure lagunengandik ez genduan errita-aldirik izan. Bai zera! Inguratu giñanean, danak besarkatzera. Ez-bearren bat gertatu eta galduak izango giñan bildurrez zeuden. Gero, dana konstatu genienean, ango algara-soñuak!

Bañan, Urdiñarengana inguratu giñanean, ura errita-aldia! Pistola eskuan zuala, onela esan zigun:

— Zuek maite izanik ere, ia-ia oraintxe biok iltzeko negok! Orrela etzegok emen gauza onik!

Arek garbi-garbi ikusten zuan, botella pattrra edan eta gaua garro tartean igarota, Beltxa eta Alkain gaztearekin gizonik etzeukala.

Nere buruari onela esan nion:

— Arrazoi guziak ematen dizkiot Urdiñari.

Bañan nik ere zerbait egin naia neukan, eta errita-aldi arekin ez nintzan kakaztuta gelditu.

Gure artean bazan beste tolosar bat, Elustondo, eskola asko zuana eta takigrafia ere zekiana (2). Joan eta esan nion:

— Aizak, Elustondo: rekete edo falanjista alderdi ortan amezketar bat badek, izugarrizko arrazoi sakonak ematen dituana; eta i, bertsoak eta diskursoak takigrafiaz artzen ikusi izan aut. Etorriko al aiz gurekin bigar illuntzean? Edo etzi. Nai dekenean.

Aukera utzi nion, eta, berak esan zidanean, Urdiñari ezer abixatu gabe, irurok joan giñan; Beltxa, Elustondo eta ni, alegia.

Basalgo mendi orrek ordeka batzuk baditu, eta orduan, beintzat, oietan garo-leku onak zitu.

Beltxa eta biok, berreun bat metrora inguratu giñan etsaiarengana. Elustondo ori, pixka bat atzerago gelditu zan.

Alaz guztiaz ere, naiz aparte xamar egon, bere takigrafi-apunteak ondo eta garbi artzen zitu, linterna baten argiarekin, urrengo egunean letraz idazteko.

Orrela jaso ziran, andik aurrera, Amezketako artzai mutillaren eta nere bertso-saioak.

Gure jardunaldiak, gaueko amabietatik goizeko irurak bitartean izaten ziran. Onela ekin nion gau artan:

Amezqueta'ko artzaia, entzun,  
jakin bearrean nago,  
artzai geienak diran bezela  
zu ez al zera izango;  
zure izen da apeliua  
ikastea nik naiago,  
nola dituzun zuk beraz oiek  
ez al dirazu esango?

Botella pattarra edan genduan gauean bezela, artzai ura etzegoan lotan. Pattarra edatera etortzen nagusiak utzi etzietela esan nai zuan orrek. Oraingoan, lengoan baño aguroago izan nuan erantzuna, bertso sakon onekin:

Alkain gaztea, nola liteke  
galdera ori neretzako?  
Esango nuke, baldin bakarrik  
balitzake zuretzako;  
ematerikan nere izena  
ez daukat besterentzako,  
zuk bezelaxe gogo gutxi nik  
daukat oraindik iltzeko.

Onela erantzun nion:

Aizu, artzaia, bildurrez beraz  
jarririkan zaude lertzen,  
pozez beterik emen egon naiz  
zure bertsoa aditzen;  
gugan okerrik izango danik  
ezer etzait iruditzen,  
aitormen jator egin ezkeru  
ura ez dakigu iltzen.

Nunbait ere, Aralar'ko mendigaiak aize garbiak dituzte, eta artzai buru argiko arek erantzun garbi eta jator au eman zidan:

Alkain gaztea, ni piatzen naiz  
zure esana oiekin:  
ez litzakela ezer okerrik  
aitormen jatorrarekin;  
eta badakit or zabiltzala  
zure antzeko lagunakin,  
bañan ez nazu ezer piatzen  
C. N. T.'ko jendeakin.

Urrena nik onela bota nion:

Ortan, artzaia, emango dizut  
arrazoi oso poliki,  
C. N. T.'koak zer nola diran  
Alkain gazteak badaki,  
zuzenbiderik oien artean  
nola ezin dedan arki;  
arro xamarrak ziraden baña  
umildu dira ederki.

Eta berak onela eman zidan ordaña:

Bertso ori nik ongi aditu det  
irtena zure agotik:  
C. N. T.'koak zuk ezagunak  
daduzkazula gogotik;  
alaz guztiaz ni bildurrik naiz  
zuk ori esanagatik:  
ez al dute oiek beti izango  
burua lengo lepotik?

Ortan, bearbada, arrazoi izango zuan. Bañan nik, andik edo emendik, aren izena eta apelidoa jakin nai nituan, eta orregatik berriro ere galdetu nion:

Aizu, artzaia, nere azkeneko bertsoa entzun zaidazu:  
garbi bazaude, C. N. T.'koen bildur izandu etzazu;  
zure izen da apelidua zauden lekutik ekartzu, ortik aurrera C. N. T.'koaz nai dezuna egin zazu.

Bañan, azkenik, jakin gabe gelditu bear izan nuan. Onela erantzun zidan:

Alkain gaztea, asarre gabe zurekin nai det pakean, naiz gerran emen ibilli arren biok alde banatean;  
nere izena zuk jakitea etzendukela kaltean, gaur ez dadukat ematerikan, agur beste bat artean.

Bertso orrekin banatu giñan gau artan. Bañan gauza eder eta pozgarri batek gizona beti goserik uzten baitu, andik bi gauera osterara ere joan gera irurok lengo tokira.

Onela ekiten diot artzai orri:

Gabon, artzai mutilla  
eta zure lagun,  
oraiñ ere emen gera  
gu zuen ingurun;  
izena jakitea  
lenguan utzi nun,  
zerbait beste gauzetan  
kantatu dezagun.

Erantzuna berealaxe etorri zan:

Bejondaizula, bada,  
zu, Alkain gaztea,  
berriro jator-jator  
bazatoz ostea,  
artzai onengandikan  
zerbait ikastea,  
**laguntza egitearren**  
batetik bestea.

Onela erantzun nion:

Gañera aitortzera  
arrazoi zendula;  
ikusten det agindua  
betezen dezula,  
zauden soldaduzk'ortan,  
bear dan bezela;  
bañan jakin zazu zu  
euskaldun zerala.

Aren urrengo bertsoa.

Ongi badakit, Alkain,  
euskaldun naizela,  
amaren sabeletik  
sortuak gerala,  
bañan bide banatatik  
biok guazela;  
au ezin entenditu  
dizut nik iñola.

Nere buelta onela izan zan:

Ezin al diozu orri  
iñolaz igarri?  
Batetik egia da:  
gabiltz lotsagarri,  
tiroak tirarikan  
anaiak alkarri;  
pakea nai badezu  
gugana etorri.

Eta berak:

Alkain, etzazu esan  
orrelakorikan,  
emen euskaldun ez naiz  
bakar-bakarrikan;  
ixilik egon zaite  
zu orregatikan,  
etzegoan ezertxo  
esan bearrikan.



Nere erantzuna:

Artzaia, orain dakit  
nik guzi-guzia,  
jostorratza baño're  
aria luzia;  
arrazoi txar etzera  
ezer merezia,  
nigandik lasai gorde  
daukazun bizia.

Bertso ederra entzun nuan bueltan:

Oraintxen uzten nazu  
ziaro pozturik,  
ez naiz egongo zukin  
sekulan azturik;  
gertatzen bada nunbait  
alkar ikusterik,  
ez dizut nik tirako  
jotzera tirorik.

Gau artan orrekin bukatu genduan. Andik  
bi edo iru gauera, beste saio bat egin genduan.  
Onela ekin nion:

Irugarrengo saio egitera,  
artzaia, ementxe nator,  
aurren-aurrena danoiri gabon  
emanikan jator-jator;  
alaitasuna dagon lekutik  
ondoren zerbait badator,  
ongi badakit, artzaiagandik  
neretzat txarrik ez dator.

Artzaiaren erantzuna au izan zan:

Or al zerade, Alkain gaztea,  
irugarrengo txandetan?  
Zerbait geiago itzegin naia  
badaukat gaurkoan bertan;  
lengo egunez zu falteakin  
egondua naiz penetan,  
amaika poza ematekoa  
zerade mundu onetan.

Artzai orrek egunetik egunera poz geiago  
ematen zidan berarekin kantatzeko. Onela eran-  
tzun nion:

Artzai jatorra zu ziñadela,  
lendabiziko egunez  
gau guzi artan nere biotza  
jardun zitzaidan esanez,  
nola bertsoa kantatzen zendun  
biotzan agintasunez;  
gaur ere pozik ni jardungo naiz  
zurekin anaitasunez.

Aren erantzuna etzan txantxetakoa izan:

Alkain, nerekin ez dezu izango  
ezertan ere nastea,  
euskaldun jator eta garbia  
zeradela ikuste'a;  
penagarria au da bakarrik:  
alkarri tiroz astea,  
ezer kulparik izan gabetan  
tiroka bata bestea.

Arrazoi sakon ori entzunda, naiz biok fren-  
tearen alde banatan egon, zer erantzun txar  
emango nion? Onela kantatu nuan:

Artzai maitea, ori egia da,  
ortan ez dago dudikan,  
biok orrela jarri gaituzte,  
jaunak, nun edo andikan;  
bañan biotza biok zabala  
gerrarik gabetandikan,  
mundua onek martxa onetan  
ez dakarki gauz onikan.

Gizatasunezko bertso au kantatu zidan urren-  
goa:

Nik bezelaxe ikusten dezu  
ongi asko ondorena,  
bañan desgrazi penagarria  
allegatu da gugana:  
lau-bostengatik kendu nairikan  
berez degun zoriona,  
ikasten jardun bearrean gaur  
aztutzen ari gizona.

Ikasi bearrean aztutzen ari gizona... Arritu-  
ta gelditu nintzan artzaiaren arrazoi orrekin. Bai  
egoki esana. Bildur naiz gaur ere ori bera ger-  
tatzen ari dan.

Onela kantatu nion urrengoa:

Nere erantzunez, aizu, artzaia,  
etzera kopet-beztuko,  
pena artzen det eta gañera  
etzera ezer poztuko:  
zuk badakizu ez dietela  
nik leporikan moztuko,  
jarri diguten gerra zikiñ au  
sekulan ez da aztuko.

Onela erantzun zidan:

Alkain gaztea, ori da arrazoi  
garbi-garbi ematea,  
zure biotzak eta nereak  
eskatzen dute pakea;  
mundu guzian zeru ederrik  
obeagorik ote'a?  
Azkenekoa nik ikusten det  
anaiak alkar iltzea.

Bertso bikaña au ere. Bañan zerbait esateko  
baneukan eta onela erantzun nion:

Artzai jatorra, azkenekoan  
notizi badet zuretzat,  
nik bezelaxen pena izango  
dezula iruritzen zat:  
biar goizean Bizkai aldera  
jun bearra daukat beintzat,  
agur sendo, ta anaitasuna  
izan euskaldunarentzat.

Eta berak oso ederki erantzun zidan:

Alkain gaztea, nik aditu det  
onela nere artean:  
zuk diozunez, biar goizetik  
ez gerade alkartean;  
ongi badakit, ni triste-triste  
zu ingurutik juatean,  
ez al gerade gu alkartuko  
biok alako batean?

Neri ere ain euskaldun jatorrarengandik al-  
dentzeak pena ematen zidan.

Bañan, etxera ezin eskribitu bainuan, one-  
la kantatu nion urrena:

Ala nai nuke, artzai maitea,  
ikustea alkarrekin;  
nai eta nai ez, nik joan bearra  
nere eginkizunakin;  
nabillen lekun ez naiz aztuko  
zure anaitasunakin,  
bizi naizela abisu pasa  
Galartxei artzaiarekin.

Eta berriro ere artzai arek jator eta garbi  
erantzun zidan:

Negar-malkoa etorririkan  
ori dana entzunikan,  
zu bazuaz ta nik nun arkitu  
zu bezelako launikan?  
Jarrai dezagun aurrera ere  
euskaldunak izanikan,  
abisu ori egingo dizut,  
nigan ez izan dudikan.

Bertso orrekin despeditu giñan. Bigaramo-  
nean Bizkai aldera joan giñan, gure tokira beste  
lagun batzuk etorrira.

Artzai arek, agindua txintxo-txintxo egin  
zuan. Andik illabete batera-edo, nere aita eta  
senideak bazekiten Basalgo gañean bertsoan eta  
izketan ari izana nintzala, botella pattarra gau-  
ean garo tartean lasai edanez.

Amezqueta'n, gerra ezkerro, galdezka izana  
naiz; bañan ez det oraindño aztarrenik atera.

Amezqueta'n baditut ezagunak; bañan artzai  
arek bere izen eta apeldorik eman ez baitzidan,  
eta Amezqueta'n artzaiak amarretatikan zazpi  
bertsolari baitira, ura zein zan jakiterik ez.

Iaioa eta artista zan, bada! Eta gerra artan  
zer suerte izan zuan ere ezin jakin.

Bañan, bizi bada eta alako batez aurrera  
azaltzen bazait, egunik zoragarriena neretzat ura-  
xe izango da.

Len esan bezela, gu bertsoan aritzen giñan  
bitartean, Elustondo tolosar ura bertsoak taki-  
grafiaz artzen jarduten zan.

Elustondo au eta beste gure laguna, Beltxa,  
Olaeta'ko Santa Krutz mendian il ziran bonba  
batekin.

Artzai orrekin jardun nintzala bai, gogora-  
tzen nintzan; bañan zer bertso ziran aztuta neu-  
kan.

Bañan, orain denbora asko ez dala, Tolo-  
sa'n orduko beste lagun batekin gertaturik, ber-  
tso oiek erakutsi eta eman zizkidan. Eluston-

do'k, guk gabean kantatua, urrengo egunean letraz jartzen zuan, eta beste lagun orrek kopia bat jaso eta gorde.

Egun aietan, Urdiña kapitanaren baimenik gabe joaten baigiñan, ni aren bildurrez nenbillen. Etzigun ezer esan. Bañan, Bizkai aldera joateko eguna etorri zanean, erritan onela eman zidan:

— Lenago reketeak ez induten arrapatu milagro bezela, eta geroztik ere jakin diat bi-iru txandetan inguru oietan ibilli aizela, nere esanari kasorik egin gabe. Lotsagabe xamarra aizela bazekiat. Bañan ire oraingo lotsagabekeria neurriz fuerakoa izan dek. Ire bertsoak-eta artzeko, zertan eraman dek Elustondo nere ixilka?

Nik onela erantzun nion:

— Bearbada arrazoi izango dezu. Bañan gerrak, lengo zarrak ziotenez, otzak eta beroak berekin omen ditu, eta otzean berorako lan egin lezake batek.

Eta arek orduan:

— A, zerria! Arrazoi izango dek eta ala bearko dik. Emen ez baitek iñor asten. I, berriz, asi egiten aiz eta irekin norabait joan litekek.

Eta, onela, bostekoa eta besarkada eman zidan. Elustondo eta Beltxa ere inguruan ziran, eta laurok betiko lagun an egin giñan.

Bañan aiek irurak, ain gizon prestuak izanik, il ziran; eta ni, berriz, majadero xamarra, bizirik gelditu...

Gure Basalgo'ko egonaldiak orrela bukatu ziran, eta andik Bermeo'ra joan giñan.

(1) Beltxa au, Justo Baztarrrika zeritzan. Arakiña zan berez, eta gerran sukaldari ibilli zan.

Parre onela egiten omen zuan:

— Ja-ja-ja!

Eta *Ja-ja-ja* izengoitia jarri zioten. Ofizialak ere onela galdetzen zuten:

— *Ja-ja-ja* nun da?

Onela esaten omen zuan askotan:

— Gerra bukatutakoan, traje berriarekin eta gorbatarekin joan bear diagu etxera; ez abarka eta bota zar auekin.

(2) Elustondo onen izena, Patxi zan. Orrela esan dit Tolosa'ko adiskide batek. Alkain'ek izenik esan ez baitzidan, berari galdetu nion.

Adiskide ori karlista izaki, ordea, eta urrena onela esan zidan:

«Elustondo orri zor diot nik bizitza.

— Gerra asi zanean, ni emen, Tolosa'n, nintzan. Naparroa'ra alde egin nai nuan. Goiz-alde batean abiatu naiz, bañan batzokiaren aurretik pasa bear, eta or entzuten det:

— *¡Alto!*

Zein ote guardia egiten eta Elustondo ori. Onela galdetu zidan:

— Nora oa?

— Egia esango diat. Badakik zer naizen eta igesi niak.

— Alde egin zak, bada, emendik lenbailen! Alkarekin ikusten bagaitue, neretzat konpromiso aundia dek.

Arek ni detenitu bear ninduan noski; bañan lagunak giñan eta libre utzi. Orregatik, berari zor diot bizitza.»



## BERMEO

Basalgo mendi ortatik Bermeo'ra joan giñan, batalloi osoa antolatu eta osatzera.

Bermeo'ra lendabiziko joanaldia egin nuanen, arratsalde batez, kontu xelebrea gertatu zitzaidan.

Lo egiteko, etxe baten señaik eman dizkirate *Centro Popular*'ean: zer kale eta zenbaki eta abar.

Bermeo'ko erri zarra mendi baten egalean egiña dago, eta itxas ondoko ertzak oso apañak ditu, bere ordekak, zabaltokiak eta guzi. Garai batean, ordeka eta zelai oiek itxasoak bereak izango zituan. Ala ere, egun artatik onera askoz ederragoa dago ura ere, beste asko bezela, asko berritu dalako. Bañan oni utzi eta goazen asi geran gertaera orrekin aurrera.

Esan bezela, paper batean eman dizkirate kale eta etxe artako señaik, banijoa kale batean betik gora, eta or topo egin det sardiña saltzen zebillen emakume batekin.

Nik bear nuana, arek, etxez-etxe baitzebi-llen, beste iñork baño errezago jakingo zualakoan, or galdetzen diot kale ori nun dagoan.

Galdetu badiot, galdetu! Ura zan izkera emakume arena! Parrez lertu nuan barrena. Ezerki entenitzen niola, zuk uste al dezu, irakurle? Ezta apurrik ere. Ura zan euskera, ura! Onela esan nion, arrituta, parrez ia eroturik:

— Bañan, etxekoandre, zer nolako euskera daukazu?

Eta nere artean esaten nuan:

— Ni, oraindik ere euskera ikasten ari naitzela; bañan onek ere bazedukak ikasten lana.

Berriro ere galdetu nion kale ura ea nun zegoan, eta bai zera! Egun artan nik ez nuan abildaderik izan, aren izkerari ez belarririk, ez bururik eta ez ankarik billatzeko.

Erderaz asi bear izan nuan, eta orduan jakin genduan ongi alkarren berri. Bestela, alperrik zan.

Gero berak esan zidanez, arek nerean ongi ulertzen zidan, eta nik arena ez ulertzearekin arrituta zegoan. Ura zan arritzekoa, ura: nik ari ez entenitzea eta arek neri bai.

Gertaera onek, euskaldunak oraindik oso atzeratuak gaudela esan nai du, eta Euskalerriko leku guzietan euskera berdintsua jartzen saiatzen ez gerala.

Andik aurrera, askotan gertatzen nintzan sardin-saltzalle arekin, eta gerora biok ongi etortzen giñan, alkar ongi ulerturik.

Bañan lenbiziko egun artan, ezta kañabeta eta ezpata gibeletik sartu bazidan ere. Oraindik ere orrela gaude gu, euskaldunak.

Batalloia osatu genduanean, *Itxarkundia* jarri zitzaion izena. Eta komandante, Felipe Lizaso erreteriarra izendatu zuten.

Etxeberría eta biok emen osterá alkartu giñan. Gu Basalgo aldean giñan bitartean, bera Berriatua inguru ortan ibillia zan, mutil-talde batekin.

Andik egun batzutara (1), Bilbao'ko desfilea izan zan, eta ara joan giñan. Ez gu bakarrik. Ez dakit zenbat batalloi; bañan asko.

Egun ortan etzan oso eguraldi atsegiña. Euria eta kazkabarra lasai egiten zuan. Bañan gu beti oso ongi ibiltzen giñan jantziz.

Desfile au ikusten, izugarritzko jendea zan. Ni, sarjento bainintzan, saietsetik nentorren.

*Hotel Carlton* edo, obeto esateko, Euzkadi'-ko gobernuá zegoan etxe inguru ortara ia allegatu geranean, mutil gazte bat, amabost bat urtekoa, jendearen tartetik or irten da, oju egiñez:

— *¡Muera Euzkadi! ¡Viva el comunismo!*

Orduantxe pare-parean baintorren, mutur zikin ez-jakin ari, ori entzunik, *zast!*, ostikoa ipurtxulo inguruan eman nion.

Berriz oju egiteko gogoak kendu nizkiola uste det. An gelditu zan lurrean luze-luze, muturkada ederra eginda.

Beste egun batez, Bermeo'n geundela, motorista bat etorri zan, Etxeberria eta nigatik galde egiñez. Guretzako sobre itxi bat zekarren. Idiki genduan eta onela zion euskeraz, gutxi gorra-bera:

«Etxeberria eta Alkain gazte lagun anaikorak: Onela eskatzen dizuegu: gaurtik aurrera gure mende izango zerate, esploradore eta abar egiteko. Gure baimen guziak izango dituzute. *Estado Mayor* onek emango dizkizuen eginkizun eta aginduak, al dan ondoen kunplitzen saiatu bearko dezute. Erantzuna, baietz edo ezetz, zuek esan, al dezuten azkarren. Gaurkoz besterik ez. Agirre jauna eta abar.»

Firma orrela jartzen zuan. Bereala, motorista berarekin, baiezkoa eman genien, urrengo egunean arratsaldeko lauretan Sabin-etxean izango giñala esanaz.

Ala, gure *Itxarkundia* batalloiaren automobil batean, Sabin-etxe ortara joan giñan. An arkitu genituan Agirre, Leizaola eta abar.

Izketaldi bat egiñik eta kafe bat edo beste arturik, berak ekarri ziguten dokumento-papera antxe firmatu genduan biok.

Esan genien, gure faltean etzirala bein ere izango, eta egiñalak egingo genituala, egiten ari giñan bezelaxe.

Txolarte ortan esandakoak, dan-danak go-goan ez eduki arren, bat badaukat oraindik. Agirre jaunak, berak zeukan *Estado Mayorra* oso gogokoa zuala esan zigun, eta arek emango zizkigun abiso eta aginduakin konfiantza osoa iza-

teko, eta eskatzen zitzaiguna guk al genduan erarik onenean egiteko.

Gure batalloiak, len esan bezela, Bermeo'n izan zuan kuartela. Bañan andik aurrera, naiz-eta gure lagunak atsedeen-aldiak egin, Etxeberria eta biontzat etzan askotan olakorik izaten. Ia gelditu gabe, batera eta bestera ibiltzen giñan.

Egun batez, Berriatua eta Markina gañetik barrena ibilketa luze bat —geiena oñez, noski— egिñez eta bi edo iru egun igarota, Bermeo'ra etorri gera; eta, ango taberna batean, gure lagun Sebastian Garagorri'rekin topo egin degu.

Nagusia eta etxeakoak oso alaiak ziran, eta gure Sebastian ori oso maitea zuten, bañan ara zergatik: mendigañetan irabazten zituan txanpon geienak, an uzten zitualako. Eta, jakiña, azkeneko balantza, ez gorputzarena bakarrik, baita boltxilloarena ere.

Nagusi ura, Bermeo'n askok ez uste arren, bere bibote txiki eta guzi, falanjista zan. Guk, beste esploradore batzuen bitartez jakin genduan.

Gure lagun Garagorri ori nun eta nola egoten zan lendik jakiñik, taberna ortan sartu gera. Bañan, sartu orduko, gu ikusirik, exerita zegoan lekutik altxa da. Gu zerbait esateko asmoz giñan. Bañan bera erritan asi zitzaigun, onela esanaz:

— Zer da? Ni iltzera al zatozte? Nai dezutena egin nerekin, gaur beñepein sabela bete-beterik zeukat eta.

Orrelakoa zan. Alde batera arrazoi zeukan. Arek ongi asko ikusten zuan, gurekin mendira eta frentera joanda, iltzeko arrisku geiago zeukala, kale-txokoan baño.

Guk ez genion orregatik bein ere erritarik eman izan. Dirurik gabe arkitzen bazan, eskua luzatu eta lagundu bai, orduan mokadu goxoa-goak jartzen zizkigulako. Bera izan baitzan gure kozineroa Bizkai'ko mendietan.

Batek zertarako balio duan, artara beti lagundu bear zaio. Ori egiten ez baitegu, orregatik gabiltza askotan alkarrekin, gabiltzan bezela.

Bañan guk beti, al genduan guzia lagundu egiten genion Sebastian oni, gero mokadu goxoak berak ipiñi eta jateko.

Gizon nekatuak, mokadu goxoak jaten badiu, gero lo ongi egiten du; eta lo ongi egitea baño zeru oberik ez da mundu guzian gizon nekatuarentzat eta edozeñentzat.

Eta guk, Sebastian oni eskerrak, jan eta lo ederki egiten genduan, eta orrela indarberritzen giñan.

---

(1) 1936, Azaroak 14.

## URBINA

Azaroaren azkeneko egunetan, batalloi osoa atera giñan. Gure billa ez dakit zenbat autobus etorri ziran.

Aietan geren arma eta guzi sartuta, nora ginjaizen ezer ere jakin gabe abiatu giñan.

Gernika'n geldi-aldi bat egin genduan. Orduan, nere lagun Etxeberria'k, autobusetik kanpora ateratzeko deitu zidan.

Nik orduan ezertxo ere ez nekian. Bañan arek zerbait bazekiala, bereala antz eman nion.

Autobusetik jetxi eta galdetu nion?

— Zer dek?

Eta arek:

— Motell, Zarpa! (1) Ordena zorrotzak dizkiat Estado Mayorretikan. Gaur arratsean alkarrekin ibilli bearra izango diagu, erorrek nai baldin badek beintzat.

Nik erantzun nion:

— Urnieta'ko batzokian lo egin uan gau-  
ean eman nian itza beti gogoan zeukat; eta ne-  
re laguntza bearrez arkitzen baaiz, erorrek nai  
deken edo agintzen diteken lekura, beti lagun-  
duko diat.

Norbere autobusetan sarturik, ezer ez jaki-  
ñean Ubidea'ra allegatu giñan.

Emen danok jetxirik, ni orduan Etxeberria  
orren billa asi nintzan, eta onela gertatu zan:  
ni an nenbillen batetik bestera autobus-illara  
artan beraren galdezka, eta ura illara berean ne-  
re galdezka.

Eguraldi gordiña eta zakar xamarra zan. Eu-  
ri asko eta otza egiten zuan. Elur bustia ere bai  
tarteka. Mendi guziak zuriturik zeuden.

Gure *Itxarkundia* batalloi ori, Ubidea'tik  
Ollerias, Elosu eta Nafarrate aldera baztartu eta  
sakabanatu zan. Erri auek artean etsaiaren men-  
dean zeuden.

Gu biok, berriz, bertan gelditu giñan. Etxe-  
berria'k, orduan, paper batean idatzita, Euzka-  
di'ko gobernuaren agindu bat erakutsi zidan: Ur-  
bina'ko erri ingurura joan eta zenbat indar ze-  
goan ikusteko.

Nik orduan esan nion:

— I, Etxeberria: eta dirurik bai al da?

Erantzun zidan:

— Bai, motell. Lau milla pezta emen zeuz-  
kat emanak.

Nik orduan:



— Bueno, i: aurrena egin bear diagu, ondo apaldu. Bizitzaren arriskua ikusten diat nik gaur guretzat; eta, badaezpada ere, obe dek ondo jan eta edanda iltzea.

Ala, biok, ezer abusorik gabe, Ubidea'ko taberna batean aparta egin genduan.

Ondoren, erriko saiets batera irten eta abitu giñan.

Nik artean ango berri ezer ere ez nekian. Etxeberria'k, berriz, estudiantua zeukan. Krokis bat ere bazuan.

Ollerias eta Elosu tartetik eta Billarreal ingurutik pasatzen dan ibaia artu eta arenertzari jarraitu genion.

Etxeberria pakete batekin zijoan. Alako batean, bidean luzaroan joan ondoren, onela esaten dit:

— I, Iñaki: paketea zabaltzera niak. Emen beste jantzi bat zetorrek guretzako.

Zabaldu zuan eta falanjista-jantzia azaldu zitzaigun. Eta, nere gogokoa ez izanik, onela esan nion:

— Pakete au idiki baño lenago, ez al ekiten falanjisten jantzia zala?

— Motell, Iñaki: nola jakingo nian bada nik?

— Ara, Joxe: naiago nian nik iru alako zeketeen jantziarekin joan, reketeak euskaldun deskuidatuak dituk eta. Urrengorako, alkarrekin ongi itzegin bear diagu, zer eta nola ibilli bear degun.

Onela, beintzat, lengo erropaz gañera, galzak eta gerrera urdiñak jantzi ditut. Nik, linternarekin, aurrena berari begiratu nion eta gero neroni.

Urrena or eman dit gorroa. Ura ere falanjistena, bere borla edo txintzarri eta guzi. Jantzi nuan eta onela esan nion:

— Oraintxe bai ematen detala nik Mussolini.

Lendabiziko jantzi-aldia onela egin bear izan genduan. Gero, makiña bat aldiz egingo gendua.

Nere gogokoa ez izanagatik, geienetan falanjisten jantzia izan oi zan; reketeena gutxixea-go eta soldadua oso bakanetan.

Etxeberría, nere ustez, irurogei kilo ere etzan izango. Nere pixua, berriz, sei bat arrua inguru izaten zan; irurogei ta amasei bat kilo, beraz.

Bañan, len esan bezela, lengo erropaz gañera jazten baigenduan, Etxeberría'k ia larogei bat kiloko gizona ematen zuan, eta nik larogei ta amar baño geiagokoa.

Ala ere, jantzi oiekin ez genduan bein ere okerrik izan.

Beste bolara batean ibai-ertzari jarraituaz, alako batez nere lagunak onela dit:

— Orain emen, Urbina izena daukan erri bat zeukagu.

Erri orren izena orduan ikasi nuan nik. Gero onela jarraitu zuan:

— Troparik bai ote dan jakitera etorri gaituk onera. Ori ikusi bear diagu.

Bañan errira sarrerarik ezin arkiturik gertatu giñan. Erria aurre-aurrean, kilometro batera-edo ikusten genduan. Bañan arako, ez zubirik eta ez biderik etzan.

Onela esan nion:

— Estado Mayorraren ordenak ik artu dituk. Bañan mundu ontan, agintzea errezagoa izaten dek, norberak egitea baño. Orain nun arraio dek erriko sarrera?

— Bai, motell, bai; arrazoi aundia dek. Krokis onek etzidak erri onen sarrerarik bear bezela erakusten.

— I, Joxe: ik igari ez dakik. Bañan nere bizkarrean jartzen baaiz, naiz ibaiak korriente aundi xamarra eraman, ire pixuarengatik pasako aut beste aldera. Katarro ikaragarria arrapatuko diagu, ordea.

— Ez, ez. Ibai oni aurrera jarraitu bear zioagu; eta nunbaitetik izango dik erri onek sarrera.

Noizbait ere, ibilketa luzea egin ondoren, alako batez zubi bat arkitu degu eta or egin degu Urbina'ra sarrera.

Guk, erri guzia soldaduz beterik egongo zala uste genduan; bañan etxe guziak ixil-ixilik eta itxita zeuden. Batetik bestera ibilli giñan, eta an etzan animarik ikusten.

Onela esan nion nere lagunari:

— I, Joxe: oneraño etorri gaituk eta emen etzegok zurrunga-otsa besterik. Esnatu bear dizkiat, bada.

— Bañan, Zarpa: zer egin bear dek, oiek esnatuta?

— Eta gerra denboran etsaia zurrungaka utzita, zer egin bear dek? Orrela etzegok gerra irabazterik. Oneraño etorri geran ezkeru, kanta bat edo beste kantatu bear diat.

— Ez adilla emen asi! Erotu al zaik edo zer zerri aiz i?

Onela asi nintzan kantari:

*Aunque la oración suene  
yo no me voy de aquí,  
la del pañuelo rojo  
loco me ha vuelto a mí...*

Nere laguna, tiroka asiko ziran beldurrez, erriko pillare edo kontzejupe oietako batera bazartu zan, ni zaintzearren.

Bañan, kantari ari nintzan bitartean, leio eta atek zabaltzen asi ziran, eta or azaldu zai-gu gizaseme, emakume eta sekulako jende-pilla. Erri guzia uste det.

Onela esan nien:

— *Estas canciones se las dedico a este pueblo, porque sabemos que para mañana o pasado los rojos tienen preparado un ataque. Y, como a lo mejor morimos, nos estamos expansionando con buen humor, por si las moscas.*

Eta batek ardoa eta besteak ez dakit zer, erri artan etzekiten zer egin gurekin.

Nik erderaz Etxeberria'k baño geiago nekian; bañan geiegi ere ez. Eta euskaldunak ote giñan aiek galdetu eta guk baietz. Orduan ostera onela galdetu ziguten:

— *Pues entonces, ¿por qué vais contra los vascos?*

Nik erantzun nien:

— *Miren: yo ando buscando buenos vascos. Pero como hay muchos malos entre nosotros, voy contra ellos. Porque a la persona mala hay que eliminarla. Si Vds. no me comprenden hoy, me comprenderán mañana. El que mal anda, mal acaba. Tarde o temprano cae al hoyo. Por hoy, nada más. Con que adiós y hasta la vista.*

Ala, ango jende jatorrari agur egiñik, berriro zubia pasa eta, arunzkoan joan giñan bezela, ibai-ertzetik gentozen.

Onelako batez, gelditu eta Etxeberria'ri onela diot:

— Poxpolorik bai al daukak?

Arek arrituta:

— Zer bada?

Eta nik:

— Orain arriskurik etzeukagu, eta nik ez diat olako trajerik nai. Poxpolorik baldin badek, laister dek suturik.

Bañan, poxpolorik iñork ere ez baigenduan, erantzi, bildu eta putzura bota genituan geren traje aiek.

Ubidea'ra egunsenti aldera iritxi giñan. Nik  
lo lasai egin nuan.

Bañan Etxeberria, zer ikusi genduan parte  
ematera joan zan.

---

(1) Zarpa, gerra-lagunak Iñaki Alkain'i jarri zioten  
izengoitia izan zan.

## BILLARREAL

Andik bi edo iru egunera (1), Billarreal'ko atakea egin genduan. *Meabe* batalloia eta gurea, *Itxarkundia*, Ubidea'tik irten giñan.

Gure etsaiak, Elosu eta Nafarrate'n zeuden. Meabe batalloia, bereala eta ia tirorik egin gabe jabetu zan Elosu eta Nafarrate'z, naiz-eta Nafarrate inguruetan etsai batzuek mendigañetan utzi.

Gu, berriz, Ollerias eta bere gañak arturik, Billarreal'ek aurre-aurrean daukan ibaiaren ertzera allegatu gera.

Jakiña, an zegoan zubia, etsaiak dinamitarekin botea. Eta ibaia, aurreko egunetan euri eta elur asko egin baitzuan, urez bete-beterik zetorren. Ura ikusirik, geldiera bat egin genduan.

Saseta jauna zan gure kapitana. Saseta jaun orrek, Billarreal artzen, Ollerias, Elosu eta Nafarrate bezin errex zegoala uste zuan.

Ala, igari zekiten guziak ibai ura igari-edo pasatzeko agindu zigun, Billarreal bereala artu-

ko genduala eta. Eta, batzuek igari eta beste batzuek ol eta egur zarretan, zenbaitek pasa genduan.

Gure artilleriak ongi lagundu zigun egun guzian. Goiz-goizetik asia zan. Bañan aparte xamarretik, Ubidea ingurutik alegia, ari baitzan, etzuan Billarreal'ko kanpantorrea arrapatzen, inguru xamar ibiltzen bazan ere.

Kanpantorre ortatik kalte izugarria egin zигuten. Egia edo gezurra, espionajetik jakiñik geunden, torrean ametralladorekin guardiazibil erretiratu eta begi-bakar bat izaten zala, ikaragarritzko punteri onekoa.

Ibai ura pasa genduanak aurrera ginjoazen, Saseta kapitana gure aurretik zala.

Naiz-eta ibaia pasatzen eta abar torretik eta leioetatik guardiazibil begi-bakarrak eta danak ederki ikusi, erri-ingururuañõ allegatu artean etzigun iñork tiro bat ere tira.

Orregatik, bearbada, geiegi fiatu giñan. Eta, alako batez, lenbiziko kale-ertz sarrerara allegatu geranean eta zabaltzen ari giñala, or ekin digute danak batera kanpantorretik eta abar.

Saseta iztarrean jo zuten, eta guk geren bu-rua al zan lekuan gorde egin bear.

Saseta ori, naiz zauritua izan, etxe-ertz artatik etxe-atzera gu bezelaxe bere oñez biurtu zan. Iztarra gomarekin lotu genion. Etzuan gauza aundirik; iztar-masallekoa baizik (2).

Egonaldi bat izketan egiñik, Saseta'k pixkanka eta banaka erretiratzea erabaki zuan. Ala,



osterera ibai-ertzera allegatu giñan. Saseta artean bere beroan ibiltzen zan, naiz iztarra loturik euki.

Aurrena, Etxeberria nik bizkarrean pasanuan, eta Saseta ermuatar batekin utzi genduan.

Gu biok, kaminero-etxe batera joanik, andik edo emendik soka bat inguratu genduan. Ura arturik eta ibaia osterera pasarik, naiz Saseta'k igari jakin, soka-mutur bat berari eman nion, eta, besteari nik eldurik, beste aldera berrogei metro berago pasa giñan. Eta, jakiña, Saseta andik ospitalera bialdu genduan.

Gero emen zan koxka! Ura joanik, gu umezurtz antzera gelditu giñan, ez zerurako eta ez inpernurako. Etxe batetik aitak edo amak alde egiten badu, seme-alabak orduan konturatzen dira zeñen utsunean gelditzen diran.

Guri ere berdin gertatu zitzaigun Saseta jaun ori zaurituta, eta osterera lengo lekura biurtu bear izan genduan, burua makur-makur genduala.

Gero, illunabarrean, ibai-ertzetik Bitori alderago joanda, zapadoreak zubia egin zuten, guk gerok berai lagunduta.

Izugarrizko aritz eta platanoak zeuden an, ibaiari alde batetik bestera eragingo ziotenak. Aietako lau zugaitz aundi bota eta oso xamurra izan zan zubia egitea.

Zubi ori etzegoan, bestea bezela, torretikan bistan egiña, oso izkutuan baizik. Etzeukaten iñolaz ere ikusterik, eta orduan an etzegoan iñori aitzaki ematerik; ura pasa eta aurrera egin besterik.

Etxeberria'k eta biok, zubi ura eginda ikusi artean, ez genduan begirik ere itxi. Gure lagunak, berriz, lasai lo egiteko aurretik esanik, naiz lur bustiaren gañean izan, al zuanak al zuana egin zuan.

Zapadoreak zubia bukatu zutenean, geren begizko mutil batzuei guk ere ordubettxo bat lo egin bear genduala esan genien.

Artean amabi ta erdiak zirala uste det, eta jakiñik geunden, ordu bietan atakea jo eta Billarreal sonatu orri eraso bear geniola.

Etxeberria'k onela eman zuan agindua: erri atzeko lenbiziko etxe ondoraño allegatzean, danok etzanda gelditzeko, eta berak agindu arte ez iñork itzik eta tirorik egiteko.

*Itxarkundia*'ren konpañi guziak zabaldurik geunden. Guk, laugarrengoak alegia, atzetik lenngo kolpea eman bear genduan, besteak orduan aurretik erasotzeko.

Etxeberria'ren agindu oiek gogoan arturik, or abitu gera guziok xomorro-xomorro lau ankean. Bostean joandakorik etzan izango noski.

Gaurko añean eztul neronek ere ez nuan egiten; ez besteak ere. Eztula ez egiteko, bildurra bezelakorik ez da. Naiz-eta zigarro-errezaleak gure kuadrillan asko izan, gau artan baño jende eztul gutxiagokorik nik ez det sekula nabaitu.

Oso zail izango da beste egunen batean oinbeste lagun alako ixiltasunarekin arkitzea.

Juanito Aranburu zeritzaion nere lagun batek eta biok, fusil ametrallador txeko bat genduan. Naiz sekulako tiro-pilla egin, aren kañoia etzan lertzen, tiroengatik galdan gorri-gorri jarriagatik ere.

Juanito Aranburu ori Alkiza'koa zan, oso mutil leiala eta ausardi ikaragarritzkoa. Onela esaten zidan:

— Etxeberria txoro ori nun dabillen etzekiat. Ezin egon nauk tiroka asi gabe.

Etxeberria aurrera joana zan. Alako batez, or etorri da eta esan digu:

— Kañoi-bateri bat oso-osea ortxe zegok erriaren sarreran. Joan zaitezte ixil-ixilik ondo-ondoraño. Inguruan jartzen zeratenean, egin zazute deskarga bat ametralladorekin. Danak lo egongo dituk, naiz guardi bat edo beste euki. Deskarga orrekin, beren etzan-lekuetatik dandanak altxako dituk, eta zuek, *alto* emanaz, guziak arrapatuko dituzute. Iñor il gabe ori egitea bazegok, eta egin!

Arek agindu bezelaxe egin genduan. Deskarga egin genduanean, or atera dira arrapastaka beren *tienda de campaña*'tik, begietako makarrak kentzeko denborarik gabe eta onela oju egiñaz:

— Gora Euzkadi! ¡Gora Euzkadi! ¡*Nos entregamos!*

Ogei ta bost ziran danak. Etxeberria'k erdi-erditik asmatu zuan. Gau artan ederki asko nabarmendu zan, artzantza gauza askotarako eskola ona dala.

Etsai aiek geren lagunai entregatu eta atzeko aldera bialdu genituan. Eta gu an gelditu giñan, geren lau kañoi eta guzi.

Guretako iñork kañoi aiek manejatzen jakin izan balu, orduan bai guardiazibil begi-bakkar arek etzuala torretikan geiago tirorik tirako.

Juanito nere laguna eta biok pozez zorutzen geunden: ia tirorik gabe eta iñor il gabe, bateria osoa arrapatu, alajañetan.

Bañan ametralladorekin egin genduan tarratarrako tiro-otsarekin lotan zeuden guziak esnatu ziran, eta an ekin ziguten bazter guzieta-tik tiroka.

Kañoi aiei kasorik egin gabe eta ixil-ixilik ibillita kaleetan sartu izan bagiña, ordubeterako Billarreal gurea izango zala uste det. Bañan etsai guziak esnatuta, an etzegoan giro, alajañetan.

Alako batez, Urbina aldetik or datoz gure kontra bi kamioi blindatu, garai batean arrobietan ibiltzen ziran oietakoak.

Gu danok, aien motorraren saietseko txapari tira eta tira eta tira asi giñan, guritzearren; eta, minutu gutxi barru, bi blindatu aiek sutan jarri genituan.

Bigarrengo sake arekin, dan-dana egiña zegoala uste izatekoa zan. Bañan mesede bearrez, kalte izan genduan.

Blindatuak sekulako su-garrak jarri zituzten inguru aietan; eta orduan torreko guardiazibil arek, naiz begi-bakarra izan, ederki asko ikusten ginduan.

Baita ere bi edo iru tellatu-gallurretan, gu etzanda geunden ogei ta amar edo berrogei metrora, jarri ziran etsaiak. Aiek, bururik ikusten bazuten, burutik sartzen zuten.

Ez gerran bakarrik. Pakean ere berdin-berdin gerta litzaioke bati: ustez lenbiziko kolpea ongi egin, bigarrena ere bai, bañan irugarrena gaizki. Guri ere orixe pasa zitzaigun, blindatu aiei su emanda.

Jakiña, gu ere ezin tira gabe egon, naiz-eta askotan nora tiratzen genduan ez jakin. Eta ainbeste tira eta tira, kartutxerak bukatzen ari ziran.

Egunsentia allegatu zitzaigunean, or etorri zait gure buru egiten zuana, Urdiña tolosarra, eta onela dit:

— Alkain, oraintxe munizioak erre dizkiagu eta laister bat ere gabe gaituk. Ea, bada, kaminero-etxe artara joan eta fulamentua egiten deken.

Juanito Aranburu eta biok, geren fusil ametrallador arekin, txandaka ari giñan. Une artan bera ari zan, eta alako batez:

— Ai, ama! Ai, ama!

Lau bat metrora geneukan. Bereala joan nintzan. Eldu nion eta alperrik: kopetaren erdi-erditik zeukan balazoa. Nere Jesukristo Jauna esaten asi zan, nik lagundurik, eta berealaxe il zan, nere besoetan.

Urdiña ere laguntzen asi zitzaidan, eta onela esan nion:

— Beidok! Beidok! Makurtu adi!

Bañan makurtzen asi zan orduko, *zast!*, ari bular erdian balazoa. Au ere, Nere Jesukristo Jauna esanaz il zan (3).

Bi alako mutil jator une txiki batean iltzen ikusita, arritzekoa litzake negar-malkoa ez ixur-tzea. Negar-malkoz eta marru egiñaz, bi gor-putzak alkarren gañean gurutzea eginda utzi ni-tuan.

Eta, nere erritar Juan Elustondo'ri fusil ametrallador ura utzirik, an niak nere kapitan zanaren agindua betetzera, kaminero-etxe artara.

Bañan oñetan neuzkan botak, iltze-dunak, ru-soak omen ziran. Nik ez dakit amerikanoak baldin baziran ere, bañan bai oso ederrak zirala. Eta nunbait ere nere oñetan artean ez egon oituak, edo nere oñak ere ez aiekin.

Korrika min artzen nuan, beintzat; eta, mi-ñik granorik ere ez baita bein ere onik izan, ibai-ertzera allegatu eta nere amorruan or bota ditut putzura, etsaiak ez arrapatzeagatik.

Igaro det igari ibaia edo errioa, eta uraxe bai zala erioa! Kaminero-etxe ori bertan neu-kan. An sartu naiz, oñetan galtzerdiak bakarrik nituala eta busti-bustia. Ura nere otza!

Eta an zein arkituko eta, letxua baño fres-koago, gure buru egiten zuan bat. Ez det ize-nik esango, oraindak berak baño lotsa geiago daukatalako.

Orain ez dakit, garbi esateko, nere errital-di artan zer esan nion; bañan ikaragarriak bein-

tzat. Burura etorritako guziak. Eta, orain zerbait esateko baldin badauka, nigana etorri dedilla.

Etxe atzean bazeuden bi mando munizioz kargatuak. Bakoitzak zortzina kaja zeukan bizkarrean.

Mando bakoitzak mutil bana izaten zuan; bañan aiek, gure buruzagi ura kuxkurtuta ikusita, zer poza bear zuten, guri munizioa eramateko?

Auxe zan gure «Gora Euzkadi askatuta». Buruzagi jaun ari amaika aldiz entzuna nion ordurako dei ori. Bañan bear zan tokian ezer etzan ageri.

Ala, beñepein, bi mando oiek artu ditut. Ibai ertzean aurrera jarri nituan, eta neroni lurrean etzanda gelditu. Oraintxe okertzen ziran mandoak, bereala an nintzan korrika zuzentzera.

Mando bat iztarretik zauritu zidaten. Bañan arraio arek, zer egin bearra zegoan bazekiala ematen zuan. Ura nuan aurretik, eta ura, bere erren eta guzi, beti aurrera. Geroztik amaika mando ikusi eta ibilli ditut; bañan ura bezin leialik bat ere ez.

Nolabait ere, nere bi mando aiekin, bezperan egin genduan zubi berrira allegatu naiz; eta an arrapatu ditut, lagun usteko ez dakit zenbat alper-pilla.

Geienak, Gora Euzkadi kalean esaten zekitenak ziran; bañan nere mando zauritua baño okerragoak. Arek beintzat, zaurituta egon arren,

aurrera egiten zuan; eta lagun usteko aiek, ote tartean gordeta egon.

Bañan egun artan mugitu erazi nituan ederki. Bakoitzari kaja bana munizio bizkarrean ipiñi, eta neroni atzetik nintzala, onela esan nien:

— *¡Gandules y zarposos! ¡Venga para adelante!*

Eraman genituan amasei kaja muniziorekin, jo degu irugarren aldiz atakea. Bañan dan-dana aldrebes egin genduala uste det.

Orduan ere, zer gertatzen zan nere lagun Etxeberria'k igerri zion. Ura bai zala berez argia eta pizkorra benetan!

Guk, Billarreal atzeko aldetik jo genduan atakea. *Loiola* eta *Larrañaga* batalloiak, berriz, Pagotxiki eta Alberti mendigañetatik jo zuten. Eta, gure saietseko piñudi batera allegatu ziranean, gu beren etsaiak giñala pentsatu eta orasi zaizkigu tira eta tira eta tira.

Ni, orduan, ildako bati botak kendu eta nere oñetan jazten ari nintzan; nereak, esan bezela, ibaiak eramana ziran eta.

Etxeberria inguratu zait eta onela dit:

— I, Iñaki: emen izugarria pasatzen ari dek.

— Zer bada?

— Lagunak alkar iltzen ari gaituk. Onak bereala gelditu bear dik.

Altxa orduko, Etxeberria'k arrazoi zuala ikusi nuan. Guk bagenekian etsaiak dan-danetara zenbat ziran erri barrenean. Bañan guregana,



piñuditik eta erritik, bala kazkabarra bezela zetorren.

Txingurriak bezela, makiña bat lagun il eta zauritu ziguten, beñepein, momentu batean. Lagunak lagunari tiraka!

Eta, Saseta zauritua eta Urdiña kapitana illa, gure konpañia umezurtz gelditua zan. Orduan, Etxeberria'k buruzagitza bere esku artu zuan, eta zaurituak jasotzeko eta illak bertan uzteko agindu. An etzegoan beste bide egokiagorik. Alaxe egin genduan, poliki-poliki Elosu aldera atzeratuaz.

Alaz guztiaz ere, Etxeberria eta biok, naiz busti-busti egon, Urbina aldera jira-biraketa bat egin genduan, ango eta inguruko berri beste egun baterako jakitearren.

Ibillaldi auetan sakabanaturik joaten giñan, bakoitzak bere esku-muturrean brujula eramani.

Orrela goazela, egur-pilla batetik or irten zait erbi aundi bat, eta, nere pistola ametralladorekin eiztari baten antzera bainijoan, tira diot eta ankaz gora erbi ori. Bera atera zan egur-pillaren gañean utzi nuan gaxoa. Zortzi bat libra bazan gutxienez.

Aurrera jarraitu nuan. Alako batez, biok alkartu gera, eta erbi bat bota eta egur-pilla baten gañean nola utzi nuan esan diot. Eta erantzuten dit:

— Erbia baño obe uan, torreko guardiazi-bil tuerto ura bota izan bau.

Nik erbiarena jator-jator esan nion. Bezperan, gaueko amarrak inguru ortan egin genduan azkeneko jatekoa, xamurra gañera. Eta emertzitzi urte neuzkan, eta ibillaldi penagarriak gañera: ibai-pasatzeak, tiroka jarduteak eta abar eta abar. Etzan arritzekoa ni orduan goserik arkitzea. Ezta nere lagun Etxeberria ere. Bañan arek gorroto geiago zeukan Billarreal'ko torreko guardiazibil begi-bakar arentzat.

Ala, beintzat, Urbina'ra iritxi gera eta an etzegoan iñor; ezta zakurrik ere.

Bueltan gentozela, erbi arekin merienda ederra egingo genduala-ta, asmo oiekin nentorren, eta Etxeberria'ri onela diot:

— I, Joxe: eskubi alde ortan dago erbia.

Eta arek onela dit:

— Bai, eta torreko guardiazibil tuertoa ere, gu goazen baño eskubirago zegok.

Orrela, erbi gajoa an gelditu zan, eta obe. Etxeberria'k auxe esan nai zidan: egun artan ez niola erbiari tirorik tira bear, artean gure aurrean bere garaia etorri eta tiratzekoak ba-zeudelako.

Bañan ni goseak, eta goseak erremedio bakarra du: jatea.

Berriro ere sakabanatu giñan. Eta ondo go-goan det, orrela gentozela, pago baten atzetik nola esan zidaten alako batez:

— Iñaki, emen al ator? Motell, ire zai nitxioken.

Nere lagun Jose Berakoetxea zan. Urrena onela esan zidan:

— Etxeberria nun dek?

— Beste alde ortatik zetorrek. Laister azalduko dek onera. Ekar zak zigarro bat, ni dan-dana busti-bustia negok eta.

— Bai, motell. Eldu zaiok. Gaur danak me-rezi dituzute Etxeberria eta biok.

Onekin gauza bakarra esan nai zuan. Etxeberria'k erdiz-erdi asmatu zuala bere garaian atzeratzea, bestela danok an garbituak izango giñala eta.

Zigarro ura erre eta Elosu'ko errira joan giñan, eta emendik Ubidea'ra. Emen autobuse-tan sartu eta Zeanuri'ra, ango etxeetan lo egi-tera.

Lo egin eta goizean jo digute korneta. Bañan ez dakit erdiak ere osatu bagiñan. Bezperan ildakoak asko ziran, zaurituak ere bai; bañan ainbesterik ez. Batzuek egin zutena au izan zan: batek buruko miña zeukala, besteak ankekoa edo saietsekoa, eta besteak bildur galanta eta bere burua al zuan tokian izkutatu.

Nik ori errex ulertzen det. Bañan amorru ematen zidana au da: atzeraka asten ziran aiek, kale-zuloan berak ibiltzen zirala aurreraka.

Alegia, berak sasiari su eman eta besteri itzali arazi. Gaurko egunean ere olakorik asko dago, eta izango ere bai (4).

---

(1) 1936, Azaroak 30.

(2) Saseta iztarrean jo zutela esaten du Alkain'ek. Euzkadi egunkariak, berriz, 1937-II-24'an, Saseta'ren il-berria ematerakoan, onela dio:

*«Fue herido dos veces. Una, en las posiciones de Andatza. Recibió aquí dos heridas, en una mano y en una pierna. Poco después volvió a la brega, animoso como siempre. Más tarde volvió a ser herido en una mano en Legutiano. (Billarreal'en, alegia.)*

*No quiso retirarse esta vez y continuó al frente de sus soldados.»*

Ez datoz bat, beraz, Alkain eta Euzkadi.

Euzkadi onek dionez, Billarreal'ko atakea jo zuten gizonak, Saseta'k antolatu zituan:

*«El fue el organizador de la brigada que llevó a cabo la difícil operación de Legutiano...»*

(3) Euzkadi, 1936-XII-6:

*«...Hoy nos toca agregar un nombre más a la lista de heroicos defensores de la libertad euzkadiana. José de Ugarte Goikoetxea, capitán de la compañía Euskalduna, afecta a la columna Itxarkundia, ha sucumbido en la flor de la juventud en la llanura alabesa, el día primero del corriente mes.*

*Joxe Urdiña, el popular tolosarra, fue uno de los que desde la posición de Zubeltzu colaboró a la heroica y malograda defensa de la ciudad de Irun. El quien, al frente de su compañía, se granjeó el calificativo de «una de las compañías más fogueadas y valientes de las columnas gipuzkoarras». Nuestro inolvidable Urdiña, quien se ganó las simpatías de los vecindarios de Loyola, Saturrarán, Gernika, Bermeo y de todas las plazas que han sido testigo de su carácter afable, campechano y jovial.*

*En el pueblo alabés de Legutiano yacen, por hoy, sus despojos mortales, junto a los de otros varios de la heroica compañía Euskalduna...*

*La esposa querida, el umetxu idolatrado de nuestro entrañable amigo fueron el único testamento que nos legara en inolvidable conversación mantenida unos cuantos días antes de que aconteciera el desenlace fatal...»*

(4) Euzkadi, 1936-XII-1:

«El ejército vasco... ocupó Etxaguen, Cestafe, Elosu, Nafarrate y Urrunaga...

El ala derecha logró llegar hasta el pueblo de Elosu. Los facciosos hostilizaron a nuestros gudarís con ametralladoras que tenían colocadas en la torre de la iglesia. Pero su empuje trajo como consecuencia la toma del pueblo a media mañana.

...inició entonces una incursión por las cotas inmediatas, camino de Legutiano. El movimiento envolvente iba a producirse de forma admirable, ya que la columna que operaba en la zona izquierda avanzaba también por las otras cotas, en combinación con la del centro. En forma de tenaza fue cogiéndose Legutiano, avanzando siempre. El pueblo quedó desbordado en bastante extensión por ambos lados, estrechándose poco a poco el cerco. A la noche se encontraban nuestras fuerzas a 200 metros, aproximadamente, de Legutiano, esperando la orden definitiva de ataque para apoderarse de él, ya que su situación se hace insostenible...»

\* \* \*

Euzkadi, 1936-XII-2:

«Ayer quedó cortada la comunicación por carretera entre Legutiano y Gazteiz. El cerco de aquella localidad se va estrechando progresivamente.

...ayer se estrechó aún más el cerco de Legutiano (Villarreal). El enemigo, sin embargo, se hace fuerte en la defensa del pueblo.

A primeras horas de la noche cesó el intenso tiroteo, continuando los «paqueos» en las distintas zonas. Pero a eso de la una de la madrugada se generalizó el fuego, funcionando magníficamente nuestras ametralladoras y la fusilería. Las descargas eran cerradas, y es de suponer que quebrantarían al enemigo. La lucha siguió en las horas restantes, haciéndose más encarnizada a partir del amanecer y durante todo el día con más o menos intensidad.

Favorecido por las sombras de la noche, ya para amanecer, el batallón Itxarkundia, con su comandante Lizaso, efectuó una incursión por el costado derecho

del pueblo, penetrando en tres casas, volviendo más tarde a sus posiciones anteriores para seguir combatiendo y tomar contacto con el resto de las fuerzas y realizar una acción conjunta...

...este avance arrollador trajo como consecuencia el corte de la carretera de Gazteiz entre Legutiano y Urbina.

Inmediatamente de tomarse posición tan importantísima, ya que con ella se impedirá que el enemigo reciba refuerzos de la capital arabarra, se procedió a efectuar trabajos de fortificación, habiéndose preparado unos parapetos en sitios estratégicos, desde donde se cortará todo intento de esa naturaleza por parte de los rebeldes. Fruto de esta acción de nuestras fuerzas ha sido la captura a los requetés de tres camiones de munición que les eran enviados desde Gazteiz, pedidos, por lo visto, con urgencia.

...Llovió mucho, y el azote continuo del agua y el estado del terreno impidió realizar los movimientos necesarios.

No obstante, en una nueva incursión nuestras fuerzas volvieron a ocupar tres casas de Legutiano, en las que se han quedado para hostilizar desde ellas a los rebeldes.»

\* \* \*

J. M. Martínez Bande: La guerra en el Norte:

«Jornada del 30 de noviembre.

...Ante Villarreal la preparación artillera es muy intensa y dura toda la mañana. Por la tarde se inicia el ataque, interviniendo tres carros Viskers por la carretera de Durango y varios blindados por la de Bilbao, y numerosos milicianos tratan de envolver el pueblo descendiendo desde el Maroto, que han ocupado primero.

A las cinco de la tarde llegan de Vitoria algunos refuerzos, mientras que otros se reparten por el sector de Gopegui y el propio de Urbina, y ya de noche entran en Villarreal dos blindados con municiones y dos ametralladoras...»

*«Jornada del 1 de diciembre.*

*...Por lo que respecta a Villarreal, la lucha se mantiene durísima a lo largo de la jornada. Varios batallones presionan sin cesar por todas partes, haciendo un verdadero derroche de munición, ocupan Albertia y las lomas del sureste del pueblo y llegan hasta unas casas situadas al sur...*

*La localidad ha quedado cercada por la acción del fuego enemigo. Un convoy de camiones, que al amanecer trató de penetrar en ella, es detenido...»*

\* \* \*

Loiola *batalloiaren* gudari izan zan Franzisko Lete (Patxi Estra) azkoitiarraren libreta batean, onela esaten da:

«Gauga Durango'n igaro genduan, eta urrengo goizean, igandean, Otxandiano'ra iritxi giñan. Eguna eta gauba emen igaro, eta urrengo goizian, astelena, Deun Ander eguna, bai egun gogoangarria, urten genduen Legutiano-Villarreal aldeko mendietara, eta guda-sailla bi puska egin genduan: erdi bat eskubitik, Larragain, eta beste erdia, gurea, Pagotxiki, ezkerretik.

Itxarkundia ere eskubitik Nafarrate aldera gendun, eta ikaragarri gogor eta ausarditsu jokatu zuan.

Egun ontako burrukaldian, eziñ ukatu, mutillak jausi zitzaizkigun, bañan garaipena guria izan zan, eta Itxarkundia'kin batera Legitiano'ko atetara eldu giñan, eta, naiz-da burrukaldi aundienetan ibilli eta eguraldi txarrenetakuek egin, igandea eta Ama Sortzez Garbiaren egunean jaupa deuna entzun genduen mendian.»

\* \* \*

## ITXARKUNDIA SAILDIA LEGUTIANO INGURUAN

«Agindu digute aurrera ekiteko. Bermeo itxastar uri zoragarria utzita, Ubidea aldera goaz. Bizkai ta Araba'ko lurralde guziak urez estaliak daude. Euria atertu gabe ari dualarik, arritzeko ez da non-nai ibai edo erre-karen bat arkitzea.

Gaberdian iritxi gera Ubidea'ra; laño beltz aiek euria dariote oraindik ere. Urrengo egun guzia ere orrela, eta gu itxoiten egoaldi onari, aurrera ekiteko.

Etorri da eguna, Ander Deuna, abertzaleontzat ain gogoangarria, euzkotarrentzat ain maitagarria, gure aurrekoak egun ontan zapaldu izan bai-zituzten gure etsaien gudarozteak, gure aberriaren arerioak euzkolurraldetik bidalduaz. Guk ere egun ontan asiera emateakin, itxaropen osoa datorkigu gure biotzetara. Oldozpen oiek nere buruan daramazkitela, ekin diogu Legutiano aldera.

Aurretik, Ollerias errian, atsedean apur bat gure gorputzari eman, sabelak bete, gure buru gañian pazisten egazkiñak dabiltzan bitartian, eta, Lizaso aurretik degularik: ¡Aurrera!

Ollerias arabar erri koxkor bat da. Amabost edo ogei etxe inguruan izango ditu. Nekazaritza bizi dira. Bere basetxe ta mendietan gure euskera zarra oraindik bizi da; zarrak eta gazteak euskera goxo au erabiltzen dute beren izketaldietan.

Atsaldeko ordu bi ta erdietan, Ollerias'tik igarotzen dan bidetxabaletik kilometro erdi bat ibili ondoren, Itxarkundia saildia eskubi aldetik mendiratu zaigu; ezberretik, berriz, Araba saildia dijoa. Ondo bananduta goraka goaz, laister ikusteko Legutiano. Iru bat kilometro Ollerias erritikan. Emendik oso eskubian eta pixka bat atzeraxeago, Elosu ikusten da. Poliki-poliki mendiaren zabalera guzia artzen goaz, gure Lizaso-ren «aurrera!» esanetara.

Bitartian gure kañoiak, eguardian utzitako lanari ekin diote, goiz guzian Legutiano aldera zuzendu baidi-



tuzte beren suak, beren ao zabaletik sua dariote orain ere, erri guzia garretan jarriaz. Ikusi biar, sinixteko, euzko gudariaren trebetasuna. Zaurituak erortzen ari badira ere, len baño adore geiagoz, len baño kemen geiagoz dijoa. Bertaratu dira. Bosteun bat metro besterik ez errira irixteko eta zapla!, guzia ondatzeko, aurreko egunetako euriaz aunditutako ibai bat, eta, au gutxi baltiz, gaba gañian. Ango zugaitzak moztutzea gudariak igaro ditezen, aurrera jarraitzeko asmo bizi-az, emengo igari egin bearrak, euzko aldeko ots eta zalaparta guzia alperrik, era ontan jarraitzen gaitza ta arrixku aundikoa izanik, goizerarte itxoin bear aitzenian.

Zapadoreak gau guzian lanian, igaro lekuak antolatu, beribillak igarotzeko botatako zubia ipiñi ondoren, goizeko lauretan ekin genion aurrerakadari.

Emengo alde banatatik odol isurtzea! Esku batian fusilla, bestean bonbakin, bost edo sei etxe artu ziran. Gazteiz aldetik zetozten lau beribil aundi munizioz beterik reketeak berak su eman zioten bildurraren bildurrez; leioetatik tiro batera, tiro bestera, bonba an eta emen, orko kañonazuak ez ziran txantxetakuak; tamalgarría ordea su-garra bukatzen zijoan, legoiak gordeko ez luketen eran zaindutako etxeak, ainbeste odol eta bizi galdu ondoren, utzi bearra izandu zuan. Emengo gertaera asko ta asko eztira aztutzekoak.

Luze dijoa idazki au; baña, ala ta guztiz ere, ez det bukatu nai Gorostidi bat, eta bestia, gure lagundiko buru egiten zuan eta guk ain maitekiro deitzen genion bezela *Urdiña*'ri, erritar eta lagunak biak, lerro batzuk oroigarri zuzendu gabe. (G.b.).

Lenengoak, aitzeneko bonba botatzeakin batera erio-tza arkitu zuan. *Urdiña* zana, berriz, beti aurretik zebillen ikasbidea emanaz mutillei (ontan berdin jokatu dute izardun guziak), «Beti aurrera!» zion, eta bate-donbategen oartu zionian bost bala besterik ez zuala, «Naikoa dek orrentzako» esanda, goruntz len baño bi-ziago ekin zion, geiago ez altxatzeko erori zan arte. Orduan ere bere aizken itzak oiek izan ziran: «Aurre-ra, mutillak, guria dek-eta!»

Ollerias'tik, *Euskalduna*'ko gudari bat.»

\* \* \*

Ikasi degu idazlan orren egillea nor izan zan: Tolosa'ko Estanis Urruzola, *Uxola* idazlea.

Inprenta-utsegite batzuk zuzendu ditugu. *Euzkadi*'k onela zion: *nor-nai, ikisteko, sua, aitxeneko, bere, orrek, saldia, onek*. Ez bat ere erantsi degu.

## NAFARRATE

Zeanuri erritik ostera Elosu'ra joan giñan. Onera allegatu eta bereala, gosaria eta egun guziko janariak eman zizkiguten.

Ango plazan gosaltzen ari giñala, bi kaño-nazo or sartu dizkigute erdi-erdian, eta dozen erdiren bat an il ziran, beste zauritu-mordo bategin.

Ildako iru edo lau, oñatiarrak ziran, oso mutil jatorrak. Txantxikutarrak esaten genien. Ez dakit zergatik; bañan alderdi ortan oitura aundia dute oñatiarrai ori esateko.

Andik atera eta, baztarka-baztarka, Nafarrate'ra igo giñan. Allegatu ordurako, illunbista zan.

Erri au, Bitori aldetik begiratuta, gain batean dago; bañan inguruan baditu altuagoko beste mendigain batzuk. Udarako erri polita, bañan negurako otza.

Nafarrate erri ortan, *U. G. T.* - 14 batalloia zegoan. Bañan oso nekatua eta aldaketa egitera joan giñan.

Ettxeberria eta beste lagun asko, erri barruan eta erri inguruko aldapa aietan jarri ziran. Ni, berriz, erritik eskubiko mendigain batean. Nere lagunak nekatuak zeuden, eta ni ere bai, jakina.

Pareta zar baten atzean geunden. Ari begiratuta, bazirudian len ere an gure aurrekoak geran ibilliak zirala.

Etzan bero-usai aundirik. Antxe igaro genduan gaua, otzak madarikatzen.

Etsaia oso aldean zegoan, berreun bat metrorra, ondoko eta altuagoko gain batean.

Ortxe laurak inguruan, nere lagunik geienak zurrungaka lasai-lasai zeuden. Ni, berriz, zigarroa erretzen ari nintzan. Alako batez, ia us-te gabean eta neroni ere erdi lotan nengoala, *zast!*, batek aurreko aldean linterna piztu zidan. Eta onela dit:

— *Camarada, a ti te conozco.*

Nik erantzuna:

— *Pues yo a Vd. no.*

Konsijnarik eskatu ez baitzidan, nik ez dakit nola ez nuan gizon ura garbitu. Ezagutzen ninduala esan zuanean, ni ez nintzan ezertaz ere gogoratu. Bañan berak onela dit berriro:

— *Tú te llamas Iñaki.*

— *Sí, señor.*

— *Tú estuviste a punto de ser muerto por mí en Urnieta. Pero ahora, al verte aquí vigilando, me doy cuenta de que hice bien perdonándote la vida.*

Nik orduan esan nion:

— *Entonces Vd. es el comandante Mario.*

— *Así lo soy. Anteayer me enteré de que tienes un amigo y de que operáis con valentía. Me alegro, pues, de no haberte matado.*

Urrena, onela galdetu zidan:

— *¿Cuántos chicos sois aquí?*

— *Me parece que somos veinticinco.*

— *Son pocos. Te mandaré otros tantos dentro de pocos minutos. Vas a dirigir esta operación: esa cota en la que están los enemigos, vas a tomarla según tu parecer y entender. A ver qué nos haces.*

Bereala, ogei bat edo ogei ta amar bat mutil bialdu zizkidan.

Komandante arek ainbesteko konfiantza nigan jarrita, zerbait egin bearra zegoan. Nere burua nekaturik, buruzbide au atera nuan, nere artean esanaz:

— Neroni ere, tontoena bostak inguru ortan egoten nauk. Besteak ere ola egongo dituk: lo zorroan eta zurrungaka noski.

Bostak baitziran, onela esan nien an bildu ziran erdiai:

— Ez badegu mendigain ori artzen, zuek leku ontan egon lasai.

Beste erdiai, berriz, onela esan nien:

— Zuek, mendi onen egaletik, abaniko bat egiñik eta tirorik tira gabe, atzeko aldera sartu bear dezute. Ni erdi-erdiatik joango naiz, nere

pistola ametralladora onekin eta zortzi esku-bonba auekin. Nik esku-bonbarik tira artean, iñork ere ez tirorik tira eta ez itzik egin. Etzanda egon lasai. Eta, ni esku-bonbak tiratzen asten naizenean, eskuetara etorriko zaizkizue or dauden txori guziak.

Orrelaxe egin genduan. Mutil guziak jator-jator portatu ziran.

Bañan beti izaten da alako kezka bat, esana egin ote duten edo ez duten egin. Badaezpada ere, aurrena bi aldeetara jira-bira bat egin nuan, arratoia bezela, nola jarri ziran eta nere esana kunplitu ote zuten begiratzera.

Bi arrapatu nituan, kuxkurtu eta atzera geldituak. Beste guziak norbere lekuetan zeuden, iñork zigarrorik erre gabe eta itzik egin gabe.

Oiek danak orrela ikusirik, neroni, arrastaka-arrastaka, beren trintxera-inguraño sartu naiz.

Esku-bonbak tira nituanean, or esnatu dira guziak, eta trintxeratik igesi atera, xaguak beren zuloetatik bezela.

Nere lagunak, tirorik egin gabe, dan-danak korruan arrapatu zituzten. Ogei ta iru prisionero egin genituan.

Iñori ezer ikuturik eta gaitzik egin gabe, entregatu bear ziran lekura entregatu genituan.

Mario jaun ori, bereala igo zitzaidan zorionak ematera, besarkatuaz eta abar.

Egunsentia zan. Beste mendigañetako etsaiak igesi zijoazela ikusirik, onela esaten nion Mario jaunari: gure batalloiko mutillekin eta

beste batalloien laguntzarekin, bereala artuko gendukela Bitori.

Mariok sinistatzen zidan. Bañan Estado Mayorretik, Ibarrola'rengandik alegia, Nafarrete'ko mendigain ura artzeko eta bertan gelditzeko ordena zuala esan zidan.

Eta an gelditu bear izan genduan, ez zerurako eta ez inpernurako.

Geren katalejoarekin, jendea Bitori'tik ateratzen ari zala ikusten genduan. Errioja aldera jotzen zuten, batzuek kamioz eta besteak bide txiorrez eta soroz-soro.

Ori ikusirik, orduan eta amorru geiago. Onela esaten genduan:

— Mendigain larru-gorriarik dagoan ontan geldirik egotea baño, obe genikek, iñori kasorik egin gabe, bereala Bitori artzera joatea.

Ordurako konturatua nengoan, jendea alde egiten asten zanean, aurrena kargu zeukaten gizonak eta aundi-jende orrek alde egiten zutela erri bakoitzean. Nere artean onela esaten nuan:

— Aundi-jendea iges asia zegok. Orain joango bagiña, txiki-jendea laister genikek besarka eta muxuka.

Antxe asi zitzaizkidan duda guziak, lengoak eta ordukoak, barrena sartzen. Guk orduan geneukan sasoiarekin eta gogoarekin, ia ordubeterako Bitori'ko plazan giñan.

Bañan, erderaz esaten dan bezela, *el que manda, manda*; eta an gelditu bear izan gen-

duan, ixil-ixilik eta bildur-bildurti, mendigain artan.

Izan ere, mendigain ura soil-soillik zegoan. Ezta zugaitz bat ere. Txillarra bakarrik, eta au ere motza. Iñun gaizki gelditu bagiñan, antxe bai gelditu giñala benetan gaizki.

Ortaz gañera, etzegoan ez lur-zulorik eta ez trintxerarik, eta egiterik ere ez, alik-eta illundu arte.

Etsai batzuk beste gain batean geldituak ziran, eta andik saietsez garbi-garbi arrapatzen zuten gure mendigain ura. Iñor deskuidatu eta zutik jartzen bazan, edo burua altxatzen bazuan, laister zuan balazoa.

Andik ordu pare batera, or ikusi ditugu bi trenkada, *mercancías* esaten zaien oietakoak, Miranda aldetik Bitori'ra sartzen. Etxeberria orduantxe etorria zan eta onela dit:

— Iñaki, laister emen zetorrek guretzat jasara. Or etorri diran bi trenkada oiek, guretzat konpite txarrak zekarzkitek, eta guk emen zulorik egiterik ez gau illuna arte.

Ura bai zala negargarria benetan. Olloak kotan bezela, kuxkur-kuxkur eginda an egon bear. Ura bai zala egiazko makurtasuna. Ez da, ez, alako espetxe eta kartzelik. Ura zan nai eta ezin ezer egin.

Etzuten ordu erdirik igaro, gu atakatzeko gauzak antolatzen. Bereala, sekulako kañonazopillak asi zitzaizkigun. Tropak guregana nola zetozen ikusten genduan, eta ezer egiterik ez.



Alako batez, esku-bonbak botatzen asi zaizkigu. Gu ere bai mendiaren atzeko aldetik, guren fusillen muturretan baioneta sartuta.

Bañan berak ere atzeko aldetik; etziran gañera azaltzen. An naiko lanak bagenituan danok ere. Lenengo saioa, beintzat, orrela bukatu zan.

Andik laister, ostera saioa. Bañan oraingoan sekulako zaldi-sallarekin. Etxeberria'k, aiek nola zetozen ikusirik, onela dit:

— I, Iñaki: ametralladora bat artu eta, txillar-tartez-tarte, or beko zabal ortara joan bear diagu. Bestela, emen danok ilko gaituk.

Alaxe egin genduan. Jetxi gera txillar tartetik lurrean arrastaka, eta alako txoko batean jarri.

Andik ain egoki arrapatzen genduan zaldizkoen etorrera, eta bai goizean artutako mendigañaren espalda ere. Txillar aundirik etzegoan, eta gu antxe, lurrari musu emanaz.

Iru lagun giñan: Etxeberria, ni eta irugarrena Luis Arregi, azkoitiarra, nik ezagutu detan mutillik iaioenetako bat. Gerra ezkeroztik ez det aren berririk jakin. Ez dakit bizi dan ala illa dan. Bizi bada, liburu ontatik nere zorionak eta agurrak.

Zaldizale oiek arro-arro zetozen. Aiek etzuten pentsatzen ere, bidean, zabal-leku aietan, ezeren oztoporik izango zutenik. Aiek, mendigain artaraño etsairik etzegoala usteko zuten. Gizagajo aiek ere ez izan guzizko maleziak.

Gu, iru lagunok, patxara-patxaran eta il edo

bizi, ortxe eun bat metrora inguratzen utzi genien.

Etxeberría'k pistola ametralladora zeukan. Luis Arregi'k ere, pistola ametralladora. Eta nik, fusil ametrallador bat, berrogei ta bost peinerekin.

Berrogei ta bost peine aiek katua bezela lurrean arrastaka eramaten, nekaldi ederra izan genduan. Aiekin kaballeri ura ez zatitzekotan, gu zaituta geunden. Onekin esan nai det gure bizia antxe jokatu genduala, bein bear da ere.

Zaldizale oiek, zabaldurik eta arrai bat egiñik, orruka eta bullaka zetozen. Nere ustetan, pattar-puskaren bat edanik zeuden; *asaltapara-petos* alegia. Izan ere, Bitori'tik ateratzean, etzuten *vitamina C* artuko. Beintzat, oso itxututak etorri ziran guregana.

Ni ezin egonik nengoan. nere fusil ametralladorarekin tiroka asi gabe. Etxeberría, berriz, naiz berez nerbioso xamarra izan, oso buruzkoa zan, eta onela esaten zidan:

— Iñaki, egon adi lasai, egon adi lasai! Emen gu ez gatzik iñork ikusiko eta! Utzi oraindik geiago arrimatzen.

Izketa auek danak minutu erdi barruan ziran. Alako batez, eun bat metrora zeudenean, onela dit:

— Benga, Iñaki! Asi, motell!

Asi gera irurok batera. Nik, *ta-ta-ta-ta-ta*, fusil ametralladora alde batetik bestera mugitzen nuan, arraia bat bezela egiñik.

Zaldiak, zauriturik, *iiiiii* irrintzi egiten zuten eta zutik jartzen ziran, bi eskuak gora altxata. Orduan, jakiña, gañean zijoana lurrera; eta zaldia, naiz zauritua egon, korrika ostera Bitori aldera, len etorri zan bidetik.

Nik lenagotik astoak zer egiten zuten banekian; bañan zaldiak ez. Egun artan ederki asko ikasi nuan.

Gañean zijoazenak, noski, dan-danak zauritu eta illak etziran izango. Ori badakit. Bañan zutik igesi abiatzen zana botatzen nuala ere ongi dakit.

An etzitzaigun guri iñor geiago azaldu; ezta txingurririk ere.

Orduko nere tiro-tiraketa sekulan baño azkarragoa izan zan, eta bear ere bai. Azkarregia benetan fusil ametralladoraren kañoiarentzat.

Peine asko erre ondoren, berria sartzen ari nintzan une batez, kañoiá, naiz egun argi egon, errementariaren aizkoragitean bezela galdatua zegoala ikusi nuan. Eta, peinea sartzerakoan, kañoiaren ikutu txiki batez iru beatz erre zitzaizkidan.

Ura ere, Txekoeslobakia'n egindako fusil ametralladora zan.

Geroztik askotan ikusi nituan, ura baño gutxiagorekin, fusil eta ametralladorak kañoiá lertzen. Bañan egun artan, zerbaitetan suerte bear eta Jaunak ala naita, oso arma ona izan genduan benetan, geren estuasun artan.

Irurogei bat zaldi etorri ziran, eta geien-geienak utsik bialdu genituan Bitori aldera.

Leku artan egotezkerotan, munizio eta ametralladora fresko eta berriak bear genituan. Eta, olakorik ez baigenduan, lengo mendigain artara biurtu giñan.

Bañan erderaz bada esaera bat: *donde las dan, las toman*. Orixe ber-bera gertatu zitzaigun egun artan.

Guk kaballeriari egin genion azarikeria, etsaiaren infanteriak guri egin zigun. Berak ere iaioak izaki lurrari musu emanaz ibiltzen. Guk ezertxo ikusi gabe, saietsera sartu zitzaizkigun, eta andik, uste gabean, tiroka ekin ziguten.

Une artantxe, C.N.T.'ko batalloi oso-oso bat zetorren guri aldaketa egitera. Ango berri ez jakiñik, danak zut-zutik eta lasai sartu ziran. Baita bereala erori ere, batere gezurrik gabe, berreun bat mutil. Asko eta asko bertan il ziran; beste batzuek zaurituta gelditu.

Ordu pare batean, an etzan gauza onik izan. Burua zerbait altxatzen zuanak, burutik zuan tiroa.

Gure artean, C. N. T.-koengatik gaizki esaka askotan jarduten giñan, atso-gixonak zirala eta abar. Oietako bat neroni nintzan.

Bañan egun artan burua berengana makurtu nuan. Garbi ikusi bainuan, etzutela sakeatzen bakarrik ikasi, baita ere bear zan garaian arpegia ematen, mendi larru-gorri bizi artan eman zuten bezela.

Esku-bonbak tiratzen asi bear zanean, Etxeberria'k beti neri ematen zidan egiteko ori.

Ara zergatik: Nik neronek ez nuan iñoiz gure aita arri tiratzen ikusi. Bañan Gipuzkoa'ko arrikalaririk onenetako bat izan omen zan. Bein batez, beintzat, apustu bat onela egin zuan: berrogei duro, iru arri erdiko zulorik gabe berak aukeratuak artu, eta aietako batekin, Ormaiztegi'ko tren-zubi azpiko kamiotik arrika tira eta zubiari eragin baietz eta ezetz. Joan ziran eta lendabizikoan zubiaren baranda jo omen zuan. Bañan bigarrengoan, sei edo zazpi metro goragotik pasa zuan arriak zubi-gain ori. Irugarrena ere tiratzeko esaten omen zioten. Bañan, nunbait ere bigarrengoan nerbiosoegi jarri zalako, besoaren zañen batek min eman zion, eta irugarrengo ori ez omen zuan tira, erdiraño ere allegatuko etzala ezagutu zualako.

Etxeberria orrek, nik esanda edo bestek esanda, oiek danak bazekizkian, eta egun batez, Alberti'ko mendi-zulo batean, lau bonbarekin prueba egin arazi zidan.

Ni ere, erentziz-edo eta gazte-gaztetandikan, arrikalari on xamarra izana nintzan, eta, esku-bonba urrutira tiratzen nuala ikusirik, andik aurrera, esan bezela, ni jartzen ninduan lan ortan.

Nafarrate'ko egun artan ere ala jarri ninduan. Onela egin genduan: neroni, arrastaka-arrastaka, ia mendigain-gaiñeraño igo nintzan. Eta C.N.T.'koak, Etxeberria'k esanda, esku-bonbak eskuz-esku, ladrilloak obretan bezela, pasa-

tzen zituzten. Bonba nere eskuetara allegatzen zan une berean, anilloa askaturik an zijoan ezker-eskubira, lekua nasturik eta aldaturik, al nuan urrutienara.

Bai errespeto ederra jarri ere. Etsaiak ikarratu eta atzeratu egin ziran, eta tiro-ixiltasuna bereala egin ere bai.

Ettxeberria'k onela esaten zidan:

— Ea, motell, Iñaki! Etsaia atzeratzen asia dek, eta ixiltzen ere bai. Ik auxe egin bear dek: iru edo lau tira; gero, zortzi edo amar metro ezker-eskubira erori aldatu, eta andik ekin berriez ere.

Arek esan bezela egiten nuan. Leku batetik iru edo lau bota ordurako, etsaiaren ordañak bereala asten ziran ni egondako lekura etortzen. Bañan ni, lekuz aldatua izaki.

Esan bezela, etsaiak eta guk ez genduan alkar ikusten, mendiaren egal banatatik giñalako. Bañan al genituan konpiterik goxoenak botatzen genizkion alkarri.

Nik ez dakit zenbat bota nituan: berreun bat ortxe nunbait. Gelditu bear izan nuan beintzat, itoko ez banintzan.

Orduan, *C.N.T.*'ko mutil bikain bat nere lekura boluntario jarri zan. Arek ere, beso ona izanik, nik bezin urrutira botatzen zuan esku-bonba. Eta nik atzeratu egin nintzan, asnasa artzera.

Tirorik eta arrixkurik etzegoan lekura allegatuta, antxe ikusi nuan, nere begien aurrean,

C. N. T.'ko gazte bat bere oñari tiroa tiratzen, lenbailen ospitalera joateko. Orduan, nere amorruan, beste anketik eldu eta mendigañetik arrastaka bota nuan.

Badakit ondo ez nuala egin; bañan arek gaizkiago. Auek eta beste gauza asko ikusten dira gerran. Gauza ona gutxi, ia dana txarra, eta ori ere an ikusi nuan.

Egun artan, beintzat, garaile gelditu giñan mendigain artan. Bañan jendea txingurria bezela il zan. Ura bai zala tamalgarria bi alderdientzako.

Mundu ontara amatxoren sabeletik sortu eta, ezeren kulparik gabe, «Ai, ama!» ozta-ozta esan eta beste mundura.

Amaika mutil jator eta eder il zan denbora gutxian mendigain artan.

Mendigain orrek bere izena bazuan; bañan ez naiz gogoratzen. Ez gogoratzea obe dala uste det, su-garretan idazten ari naiz eta. Nik izena jarri nion: *el matadero de Nafarrate*.

Nik ez dakit zenbat; bañan, batere gezurrik gabe, zauritu eta illak milla pare bat bai bi aldeetatik. Oso gogorra izan genduan borroka-al-di ura; Billarreal'koa baño ere aundiagoa.

Etxeberría izan ez balitz, berak esan zidan bezela, ia danok an garbitzen giñan. Bañan, bear da ere, aren buruak lan egin zuan, eta egin arazi ere bai.

Illunbistan, txanda egitera beste batzuek etorri ziran, bizkaitarrak; eta gu, neke-neke egi-

ñak eta burua makur-makur degula, Elosu'ko errira jetxi giñan.

Gure batalloiko beste mutil batzuk Nafarrate'ko errian gelditu ziran, eguna ere an pasa baitzuten.

Etxeberria eta biok zerbait janari arturik, ura ostera, bere bizitasun ezin sinistekoarekin, Nafarrate'ra joan zan, gaua pasatzera.

Ni, berriz, Nafarrate'ko erri koxkor artatik, izugarrizko jipoia eta paliza artuta, Elosu errira jetxi nintzan; eta, ingurura allegatu nintzanean, or topo egin det nere iru erritarekin: Sebastian Garagorri, Juanito Elustondo eta Jose Berakotxea. Nere zai jarrita zeuden, erriaren sarre-ran exerita.

Ni ikusi orduko, oso-osorik nentorrela, zauritu gabe alegia, poz-pozik altxa ziran iru erritarrak.

Ordurako gaua zan eta, jakiña, lotarako lekua nai.

Elustondo'k eta Garagorri'k adierazi zigutenez, Ubidea'n bazeukaten, emakume jator batek eskeña, maindire zurizko oia alegia, eta aiek ara joango zirala eta abar.

Orduan nik esan nien:

— Motellak, bai, bai; joan lasai etxe ortara. Joxek eta biok nunbait ere arkituko diagu zerbait. Bañan bigar, lenengo orduan, emen ostera alkarrekin.

— Bai, bai.



Ori guri esanik, joan ziran. Jose eta biok, berriz, an Elosu inguruko baserri batera.

Nik ez nuan apari eta janaririk nai. Lo egiteko lekua bakarrik eskatzen nuan. Bañan oso jende jatorra tokatu zitzaigun.

Apari ona eman ondoren, oerik etzutela esan ziguten; bañan estalpean iñostor eta garo-pilla bat bazeukatela, eta an lo egin nai bagenduan, egiteko lasai. Ura izan zan gure gau artako lo-lekua.

Egia esan, ni orduan txiki-txiki egiña nengoan, arrunt nekatua alegia. Eta, jakiña etzan nintzan ordurako, zerraldo lo bereala (1).

---

(1) *Euzkadi*, 1936-XII-3:

*«En la parte izquierda de Akosta, que está situado entre Etxaguen y Cestafe, se registró una carga de caballería enemiga, con la que se pretendía, por lo visto, efectuar una acción envolvente que habría de poner en peligro la marcha de las operaciones emprendidas por las milicias euzkadianas.*

*El movimiento, sin embargo, resultó frustrado, ya que nuestras fuerzas respondieron al ataque con intenso tiroteo de fusil y ametralladoras, derribando a bastantes jinetes, que rodaban, heridos, con sus caballos. Al ver que las bajas aumentaban y que el esfuerzo por avanzar resultaba verdaderamente vano, el enemigo tuvo que retroceder, abandonando heridos y muertos.» Jesús de Garriz.*

Nafarrate'tik Akosta'ra, ordubete-edo izango da oñez. Eta, Garriz orrek dionez, zaldizkoen eraso-aldi ori Akosta'tik ezkerretara gertatu zan; Nafarrate aldera, alegia. Baditeke, beraz, eraso-aldi ori Alkain'ek kontatzen duana izatea.

\* \* \*

Euzkadi, 1936-XII-4:

*«Parte del Consejero de Defensa de Euzkadi.*

*...por la mañana se ha operado enérgicamente sobre las alturas que el enemigo ocupaba al sur de Nafarrate, conquistándolas, haciendo trece prisioneros, cogiendo bastantes fusiles, dos ametralladoras y gran cantidad de munición, siguiendo el avance sobre Eribe.*

*En la loma de los pinos, al este de Legutiano (Villarreal), se ha hecho una intensa preparación artillera, que barrió literalmente las trincheras enemigas, tras la cual se lanzaron nuestras tropas al asalto, que hubo de interrumpirse al cerrar la noche, retirándose ordenadamente al Albertia, base de partida, donde se continuó fortificando.*

*Al anoecer, un batallón ha tomado el vértice de Eribe, magnífica posición que domina casi todo el sector de lucha...»*

\* \* \*

Euzkadi, 1936-XII-4:

*«Por exceso de original no pudimos publicar ayer esta interesante crónica...:*

*Hoy el enemigo, y como corresponde a la gran operación realizada ayer por nuestras fuerzas, ha atacado duramente la posición de Nafarrate, que perdieron ayer, valiéndose de refuerzos traídos de Logroño y Burgos. Nuestras tropas han rechazado en furiosa embestida el ataque, ocasionándoles gran número de bajas. El enemigo, al fin, ha abandonado sus proyectos de recuperar dicha posición, al mismo tiempo que la artillería pesada causaba estrago en sus filas...» K.*

\* \* \*

*«En Nafarrate, del sector de Otxandiano-Ubidea, hay trece soldados entregados a nuestras fuerzas, perte-*

*necientes al 12 ligero de Bailén. Llevaban dos días en la posición. La mayor parte son gallegos y fueron conducidos de Lugo a Logroño y de allí a Gazteiz, de donde pasaron a las trincheras del mencionado sector.*

\* \* \*

*Euzkadi, 1936-XII-5:*

*«Desde una cumbre de la zona de guerra vimos, a pesar de que el día no era muy claro, la capital arabarra. La catedral destacaba del fondo gris del paisaje y en su torre se divisaba la esfera del reloj. Un gudari se desvivía por divisar la hora que señalaba y un compañero le dijo:*

*— No hagas caso; ya llegará el día en que la veamos hasta con niebla cerrada...»*

\* \* \*

*Euzkadi, 1936-XII-10:*

*«Después de estar varios días en los frentes de batalla y sostener dura lucha con el enemigo, han sido relevados los batallones Itxarkundia y Amayur, que se hallaban en Otxandiano y Orduña, respectivamente, pasando a gozar del bien merecido descanso a sus cuarteles respectivos.»*

\* \* \*

*Euzkadi, 1936-XII-16:*

*«Itxarkundia gudari-taldia Bermeo'n.*

*«Igazi zan egubastenez (\*), ospatu zan, Gipuzkoar Gudarozte entzutetsuak eralduta, Miren Deunaren tx-*

---

*(\*) Abenduaren 9'garrena.*

don nagosian, ontxu Araba lurraldeko Legutiano inguruan jausi diran euzko gudari kementsuaren gogo aldeko otoi eleizkixunak.

Lizaso buruzagi trebiak eupadia eginda ederto aurkeztu ziran Bermeo'ko endore jauna, Bermeo'ko Uriburu Batzarra bere guda-batzordeagaz, Batzokija, Bermeo'ko Euzko Gaztedija, Emakume Abertzale-Batza eta Bermeo'ko Euzko Langille Alkartasuna.

Gudariz josita eguan elixia. Kanpotarrik be ikusi genduan ugari. Erri-notintza be asko erdu zan.

Eliz-jaija politto eguan. Jaupea be Euzko-Gudarozteko Larrozea'tar Bittoren, Amutxategi'tar Joseba Mirena eta Kortabitarte'tar Markelin apaiz gazte eta Jaun-Goikotarrak esan ebien. Abestu be, Perosi'ren jaupea iru abotsetara ederto ei ebien gipuzkoar gudarijak.

Gaizkatzalliaren Gorpuzkiña jagi bittartian, «Itxarkundia» gudari-taldeko «trompetero» koxkorrak, eresi samurrez, «Gure oroiz aita dago - lañopian gaberaño» erestu eban.

Euzkotar abertzalien kistartasuna aunexelako da beti. Egizkoa. Zuzena eta baketsua.

Onu eder ta goitarra Euzkadi'ren gudari-egikerea, Kristo ukatuten daben maometarrakaz bat eginda dabilbazan «kapitaliste», «militariste» eta enparau «katoliku» (?) galduaren ondoan.

Ikasi! Ikasi, «kistar» paltsu, Golgota'ko Ziñopearen bide bakarra.

«Urdiña», Ondartza, Moniosguren, Garin, Azallu, Uarte-mendia... Adiskide onak, agur!! Gero arte. Jaun errukiorra, betiko atsedena emon beioe Aberri-askatasun alde euren bixitzia emon dabieneri.

Irakurle euzkotarra, otoi, iges-egin deuskuenaren go-go alde.» Urkidi.

\* \* \*

*Euzkadi*, 1936-XII-18:

«...il onen 9'na. Goizeko amarrak ziran ortarako. Laurden gutxigorako Deun Miren txadonako enparantza beterik zeguan; erri, esbesteko oztea agiri zan, ta gudari lagunak guztien artetik sartu ziran. Abeslariak asi ziran: «*Regem cui omnia...*» Gudari ta ozte guztiak ixilik otoizten zuan bitartean. Perossi'ren jaupa abestu zuten, eta ostean «*Liberame, Domine, de morte aeterna*». Litargi (\*).

---

(\*) *Litargi*: Lizaso'tar Gillermo, Felipe eta Alejandroren aita, bata komandantea eta bestea kapitana *Itxarkundia* batalloian.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK


1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*)
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara. (*Aitua*).
37. A. Cardabercz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak. (*Aitua*).

73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabea. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*.)
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*.)
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*.)
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.



126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).



AUSPOA  
LIBURUTEGIA